

ELIZA, KULTURA ARETO

Olentzero eta Mari Domingirekin
zabalduko ditu ateak
Bergarako Seminarixoak / 20

Azken ukituak
ematen erabilera
askotariko aretoan,
Seminarixoan.

XABIER URZELAI

Urteko erosketa-sasoi onenean

165.000 euro gastatuko dituzte Debagoieneko udalak Gabonetan, urteko kontsumo-garai indartsuenean / 4

GABONAK

Hurrengo aldizkakiak:
'2017 urtekaria': 29an.
GOIENA: urtarrilaren 5ean.
'Puntua': urtarrilaren 5ean.

Ondo
ibili!

**Arrasateko Udalak
webgunean publiko
egingo ditu jasotzen
dituen biztanleen
kexuak** / 8

**Gabonen aurreko
feria handia ospatuko
dute Arrasaten gaur,
eguraldia lagun:
santamasak** / 9

**Txus Goikoetxea eta
Premin Sanpedro
aske geratu dira,
17 urte kartzelan
eman ostean** / 8

**1937an, gerran,
Intxortara bota eta
lehertu ez zen bonba
ikusgai Interpretazio
Zentroan, Elgetan** / 27

SINADURAK

	XABIER MUGARTZA / 6		ANDERE ARRIOLABENGOA / 18
	NEREA MAKAZAGA / 10		LUKENE IGARTUA / 30
			AGURNE BARRUSO / 48



Bergarako 'Irrintzi'
taldea, dardo
jokoan trebe

Itziar Alkortarekin
berbetan amatasun
subrogatuaz







**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

OÑATI:

JESÚS ODRIÓZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2 Behea
ANTXON HARATEGIA - San Lorentzo, 5

BERGARA:

LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24

ANTZUOLA:

GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

Indar abertzaleen arteko lana nahiko luke Olanok

Gipuzkoako Batzar Nagusiak gaur onartuko ditu, ezustekorik ez badago, 2018ko aurrekontuak, eta lurraldeak aurre egin behar dien erronken inguruan berba egin zuen Gipuzkoako diputatu nagusiak eguaztenean Goiena telebistako saioan

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Gaur, dena ondo bidean, 2018rako aurrekontuak onartuko dituzte Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Bertan diru partidak nora bideratuko diren eta etorkizunean Gipuzkoak dituen erronken gainean mintzatu zen Markel Olano diputatu nagusia eguaztenean, Goiena telebistako *Harira* saioan. "Aurrekontu potoloak dira, 840 milioi euro inguru, baina beharrak ere horrelakoak dira. Beraz, egonkortasuna dugulako onartuko dira", zioen Markel Olanok.

Proiektuak

Gizarte politiketarako aurrekontuen ia erdia bideratuko du Foru Aldundiak: "2016, 2017 eta 2018 legealdietan gizarte politiketara aurreko legealdian eskaini zena baino gehiago eskainiko diogu. *Per capita* ere, herritar bakoitzeko gehiago eskaintzen ari gara Gipuzkoan, eta hori borondate politikoaren seinale da". Gizarte politiketarako aurrekontuaren barnean, Elkarrekin proiektua azpimarratu zuen Olanok: "2018an egonkortuko dugun Elkarrekin tresna oso garrantzitsua izango da. Baztertze arriskuan dauden pertsonen lanerako insertzioa edo aukera izango da bere helburua".



Markel Olano diputatu nagusia *Harira* saioan. ANDONI BODES

Azpiegituretan hartutako konpromisoak "martxa onean" doa zela eta bete egingo direla azaldu zuen Olanok. Antzuola-Bergara saihezbidea "2019ko martxorako bukatzea" aurreikusten dute, eta horrekin "ahalmen handiko errepide sarea bukatutzat" emango du Aldundiak. Autobus zerbitzuaren berrantolaketa, turismoaren eta Zubietako errauste plantaren inguruan ere jardun zuen Olanok.

Edesa Industrialen egoeraren gainean ere hitz egin zuen diputatu nagusiak, eta "egoera

gaiztotu" egin dela eta "oso konplikatu" ikusten duela onartu zuen.

Akordioak

"Erronkei aurre egiteko abertzaleen arteko batasun bat" nahiko luke Markel Olanok, eta, Katalunia aipatuta, bertako "konfluentzia inbidiaz" ikusi duela azaldu zuen.

Gipuzkoa mailan, "ezker abertzalearekin harremanak diplomatikoak" direla baina "konfiantza falta" dagoela ere nabarmendu zuen diputatu nagusiak.

Mizpirualde egoitza Gipuzkoako Foru Aldundiko Kabinan sartu da

Bergarakoaren ostean, Oñati eta Arrasateko nagusien egoitzen kudeaketa ere bereganatuko du Kabinak

J.B. DEBAGOIENA

Gipuzkoan udalen ardurapean dauden hamasei nagusien egoitzen kudeaketa bereganatzeko pausoak ematen jarraitzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kabiak, eta urtarrilaren 1etik aurrera Bergarako Mizpirualde egoitza bere gain hartu du erakundeak. Azkoitia, Elgoibar, Villabona eta Zumaiako egoitzen kudeaketa aurretik bereganatuta zituen Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea betetzeko 2014an sortutako Kabiak, eta barneratu dituen azkenak Andoaingo San Juan Bautista, Lasarte-Oria-ko Atsobakar eta Bergarako Mizpirualde izan dira. Azken hiru horiek urtarrilaren 1etik aurrera barneratuko dira erakundeak.

2020rako, Kabiak 1.336 egoiliarren eta eguneko zentroen beste 169 plaza kudeatuko ditue-

la aurreikusten du Foru aldundiak. Horrela, Kabiak 300 pertsona inguruko lantaldea izango du, eta, gainera, egoitzetan euren zerbitzuak eskaintzen dituzten 18 enpresatako 950 langile inguru egongo dira aipatutako egoitzetan nagusiak artatzen.

Arrasate eta Oñati, hurrengoak

2018an zehar Arrasateko Iturbide eta Oñatiko San Martin nagusien egoitzen kudeaketa bereganatzea aurreikusten du Kabiak, Tolosako Iurreamendi, Ordiziko San Jose eta Errenterriako Jesusen Bihotza egoitzekin batera.

2019rako, gainera, Eibarko San Andres, Irungo Ama Xantalen, Hernaniko Santa Maria Magdalena eta Pasaian eraikiko duten egoitza berria gaineratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

33 erretiro aurreratu onartuko dituzte Arcelorren

Bergaran Arcelor Mittalek duen lantegiak egingo duen "berrantolaketa" barnean, 33 langileren erretiro aurreratua onartu du enpresa batzordeak. Desadostasunak egon dira batzordean, eta ELA eta CCOO erretiro aurreratuaren alde azaldu ziren martitzeneko batzarrean -90 baiezko, bost ezezko eta boto zuri bat-, baina LABen ordezkariek ez

ziren batzarrera joan, neurrien kontra zeudelako. Enpresak bi aukera eman zitkien langileei, batzordeko kideek azaldu dutenez: 33 langileri erretiro aurreratua ematea edo 50 langile subrogatzea.

"Erretiro aurreratuak onartu ditugu, eta akordioa gauzatzea falta da. Datorren urterako lan plana eta langileen egutegiak baditu Bergarako Arcelorrek, baina konpromiso hori ez du nahi izan idatziz zehaztu", azaldu dio GOIENARI enpresa batzordeak.

BIODIBERTSITATEA
BIZIAREN ETORKIZUNA

ERAKUSKETA

ABENDUAK 27/29
BISITA GIDATUAK

URTARRILAK 3
BISITA GIDATUA
IPUIN KONTALARIAREKIN

ABENDUAK 27
URTARRILAK 3


GABONETAKO EKINTZAK
LABORATORIUMen



Bergarako Udala



LABORATORIUM



Aisialdia eta kontsumoa, Gabon jaien oinarriak

Egunak dira Debagoieneko kaleek ohikotasunetik aparteko itxura hartu zutela, Gabon girora hurbilduz. Bada, udal gehienek egitarau berezia dute martxan, kaleak atontzera mugatu barik. Horrek, besteak beste, mesede egiten die komertzioei

Iker Oñate DEBAGOIENA

Gabon garaian sartuta, herrietako udalek atonduak dituzte kaleak: argiak, zuhaitzak, apaingarriak... Baina Gabonetarako eginiko inbertsioa ez da horretara mugatzen; horrez gain, jaietarako propio antolatutako ekintza ugari biltzen dituzte herrietako egitarauak. Eta, bestiere, herriaren tamainak eragina du udalak eginiko inbertsioan; bada Gabonen bueltan inbertsioa zehatzik egiten ez duenik ere; Gatzaga, adibidez.

"Oro har, esan dezakegu jendeak aisialdirako darabilzkiela Gabonak. Horretarako, bitarte-



Arrasateko plaza, Gabonetarako propio atonduta. IMANOL SORIANO

koak eskaintzen saiatzen gara, adin tarte eta gustu askotako jendearentzat egitaraua prestatuz", azaldu du Nerea Zubiak, Oñatiko Kultura zinegotziak. Hori horrela, Gabonen bueltan antolatzen diren ekintzek darabate ibarreko herrietako aurrekontuaren zati handiena.

Dena den, eztabaida sortzen da kaleak atontzeaz hitz egitean. Batzuek diote gehiegi atontdu ohi dela kalea, diru asko gastatzen dela; beste batzuek, berriz, uste dute kaleari Gabon tanke- emateak mesede egiten diela herriko komertzioei, bertako kontsumoa bultzatzen duela. "Erdibidea topatzen saiatu beharra dugu", azaldu du Zubiak. Baina denek ez dute bat egiten ideiarekin; Aramaion, udaletxea besterik ez dute atontzen, "aparteko gasturik eragin gabe".

Dendariak, prest

Bestalde, herrietako komertzioek ere egiten diete ekarpenik Gabonei. Aretxarte Aretxabaletako dendari elkarteak, esaterako, Gabonetako azoka antolatzeari ekin zion duela hiru urte, garaiko kontsumo inertzia apro-

betxatuz. Dendarien esanetan, garaiak mesede egiten die. "Finan, erosteko gogoz da jendea. Duda barik, Gabonak garai onak dira guretzat", dio Idoia Elexpuruk, Aretxarteko kideak. Gaineratu du kaleak eta komertzioak atondurik egoteak mesede egiten diela salmentei. "Jendea giroan sarrarazten dute Gabonetako apaingarriek", zehaztu du.

Udalek ordaindutakoa

Herria	Euro
Arrasate:	72.000
Aretxabaleta:	25.518
Oñati:	22.700
Bergara:	19.118
Eskoriatza:	14.388
Antzuola:	8.100
Aramaio:	2.500
Elgeta:	1.588
Leintz Gatzaga:	0
Guztira:	165.912

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN

EKONOMIA SUSPERTZEKO PLANA

200 milioi euroko inbertsioa 2019ra arte

Ekonomia Suspertzeko Plana 2016-2019 ekuatorera iritsi da, eta, bere bigarren urtean, 3.789 enpresa, zentro eta eragilek martxan jarritako ekintza eta proiektu ekonomikoak sustatu ditu. Gainera, 200 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du 2019ra arte eta lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea bultzatzea du helburu. Lau arlotan banatuta –industria, lehen sektorea, gizarteratzea eta kultura eta turismoa–, eta fiskalitatea zeharkako lerro gisa hartuta, 2017ko atalean 50 milioi aktibatu dira aurretik. Laguntza horien irismena zabaldu egin da, ia 3.800 enpresa, zentro eta eragilek babesa jaso baitute. Horrez gain, 510 enpresaren eta negozio berriren sorrera bultzatu du plangintzak, eta, foru erakundearen estimazioen arabera, 2.121 lanposturen sorrera bultzatu du.

Proiektu estrategikoak

Lurraldeko ekonomiaren egoerari dagokionez, azken hilabeteotan sendotzen ari diren "zeinu positiboak" aipatu ditu Markel Olano diputatu nagusiak. "Langabezia %9,1ean kokatu da gure



Markel Olano –diputatu nagusia– eta Ainhoa Aizpuru –Ekonomia Sustapen diputatua–.

lurraldean, Eustaten datuen arabera, enpresen sorrerak gorakako bidean jarraitzen du eta barne produktu gordinararen hazkundea %3an dago". Hala ere, Olano, "zuhurtziarekin" hartu ditu datuok, badirelako "zailantza eremuak", eta nabarmendu du aktibitate eta lanpostu berriak sorraraziko dituzten "apustuak" egiten jarraitzeko beharra.

Foru Aldundia lanean ari da, Olanoren esanetan, "proiektu estrategikoak

gauzatzeko, etorkizuneko sektoreetan lanpostuak sortuko dituen industria eta ekonomia aktibitate berria" hauspotzea helburu: fabrikazio aurreratua eta zibersegurtasuna; biozientziak eta

osasuna; elektromugikortasuna eta energia biltegitratzea. "Ekonomia susperraldia finkatzeko lan konpartitu horretan, gure eskuetan dagoen guztia egiten jarraituko dugu, enpresekin elkarlanean eta lurraldeko ekonomiaren mesedetan apustu berri eta berritzaileak eginez".

Enpresa proiektu berriak

Lurraldeko enpresen lehiakortasuna errotzeko eta berrikuntza hobetzeko programei dagokionez, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreako diputatu Ainhoa Aizpuru aditza eman du 800 enpresa ingururi eskaini diotela laguntza, eta horrek "eragin positiboa" duela lurraldeko 30.000 langilearen eguneroko lanean.

Datorren urteari dagokionez, Gipuzkoako apustu estrategikoetan sakontzeko neurri eta programetan lanean jarraituko du. Gainera, lehiakortasuna, ekintzailetasuna eta berrikuntzara bideratutako programetan sakontzeari eutsiko dio Aldundiak eta, aldi berean, talentua sortu, erakarri eta mantentzeko "estrategia indartuko du.

ORAIN GIPUZKOA



Informazio gehiagorako eskaneatu QR kode hau.

Auzibide berria: 'Fagor' markaren erabilera

Edesa Industrialek Fagor marka erabiltzen ez segitzeko urratsa egin du kooperatiba elkarteak, auzi eskea aurkeztuta. Edesaren esanetan, bestetik, marka ezin erabilia, ez luke zentzurik Euskal Herrian jarraitzeak. Auziak "kezka" sortu du langileengan

Iker Oñate ARRASATE

Auzirako bide berria zabaldu da Fagor Kooperatiba Elkartearen eta Edesa Industrialek artean; oraingoan, markaren erabilera dute eztabaida iturri. Fagorrekin egubakoitzean aurkeztu zuen auzi eskea, Edesa Industrialek hitzartutakoa bete ez izana argudiatuta. Hori dela eta, Edesak adierazi du Fagor marka ezingo balu erabili, ezingo lukeela Euskal Herrian jarraitu.

Auzibide berriak "kezka" eragin du enpresako langileen artean: "Egoera gero eta larriagoa dela ikusten dugu, aurrera egiteko arazoak ugaritzen ari direla". Besteak beste, Edesa Industrialek jardueraren administratiboa eten du auzibide eskeak: enplegu erregulaziorako suspentsio plana aurkeztu behar zien langileei, baina, epailearen erabakia iritsi bitartean, proposamena bertan behera uztea erabaki du enpresak.

Modu horretan, euren lanpostuen alde "borrokatzeko" jarra berretsi dute langile batzordeko kideek. "Fagorrekin hartua du erabakia. Guri, geure lanpostuen alde borrokatzea dago kigu", azaldu dute. Bestetik, "argitasun" handiagoa eskatu diote Edesa Industrialei. "Aurreko astean aurkezturiko bidera garritasun planak apenas ziurtatzen du lanposturik. Gaur-gaurkoz, 40 lanpostu inguru dituzte adosturik. Asko falta zaie aginduriko 140 lanpostu horietara iristeko", argitu dute.

Fagor markari, "kalte"

Hainbat dira Fagor Kooperatiba Elkarteak auzi eskea aurkezteko bultzatu dituzten arrazoiak; eta tartean da Edesa Industrialek jardunak markan izandako eragina: "Edesa Industrialek jokaraz kalteak eragin dizkio markari. Finean, ez darabil markaren politika zuzena, eta horrek ez die batere mesede egiten



Edesa Industrialek Garagartzan duen lantokia. GOIENA

LANPOSTUEN ALDE BORROKATZEKO JARRERA BERRETSI DUTE ENPRESAKO LANGILEEK

Fagor marka darabilten kooperatibei. Kontratuak galtzeko arriskuan ere egon dira zenbait, argitu dute Fagorreko iturriek. Gaur-gaurkoz, bost kooperatibak darabilte marka -zortzi dira guztira-.

Bestalde, horri lotuta, Fagor Kooperatiba Elkarteak azaldu du Edesa Industrialek ez dituela markaren erabileraren, horren posizionamenduaren eta lanpostuen bueltan hitzartutakoa bete. "Ez ditu akordio ekonomikoak ordaindu, ezta lanpostuak sortzearen inguruan sinatutakoa bete", diote.

Edesaren erantzuna

Edesak, berriz, ez ditu onartu Fagorrekin leporatutakoak. Eta adierazi du "harritu" egin dituela "aldebakarreko" erabakiak: "Duela gutxi diru sartze esanguratsuak egin genituen marka

erabiltzen segitzeko; horrenbestez, ez dugu ulertzen auzi eskerako erabaki hori". Orain, epailearen erabakiaren zain dihardute, "hurrengo urratsak zehazteko".

Kasuak kasu, epaileak Fagorrekin aurkezturiko auzi eskearen alde egingo balu, Edesa Industrialek ezingo luke bere marka erabiltzen segitu, "stockean dituzte produktuak saltzeko eta bezeroei euskarri teknikoak eskaintzeko salbu". Eta horrek eragina izango luke Edesaren etorkizuneko erabakietan. Azaldu dute, besteak beste, marka erabiltzeko ezgaitua egotekotan, ezingo lukeela Euskal Herrian jarraitu, "ekoizpen zein lantalde kostu altuak eta diru laguntzetarako aukerak tarteko".

Aurrera begira

Dena den, Fagorreko iturriek baieztatu dute auziak ez lukeela ezinbestean etorkizuneko akordioak sinatzeko aukera baztertzea ekarriko. "Erabakitzeke dugu aurrera begira zer egin halako hitzarmen proposamenekin", aitortu dute. Azaldu dutenez, epaileak "laster" jakinaraziko du erabakia.

Euskararen alorrean "atzerapausoa" Arrasateko ospitalean

Arrasateko ospitaleko bost medikuntza lanpostutan euskara eskakizuna baztertzea erabaki dute, "horiek langile euskaldunekin betetzeko zailtasunak" dituztela argudiatuta. Zehatz esanda, pediatria, traumatologia, barne medikuntza eta oftalmologia alorrekoak dira lanpostu horiek. Modu horretan, hizkuntza eskakizunik gabeko aldi

baterako langileek beteko lituzkete lanpostuok.

Erabakiaren aurka egin du LAB sindikatuak: "Euskararen normalizazioaren bidean atzerapauso nabarmena da, aurreikusita zegoen moduan lanpostuak langile elebidunekin egonkortu ordez, langile ez-elebidunekin egonkortuko baitira". Gauzak horrela, neurriak exijitu ditu langile elebidunak egonkortu eta euskara menperatzen ez dutenei horretan treba daitezen bitartekoak eskaintzeko.

Europako Eden saria 'Ignaziotar lurraldea' proiektuarentzat

Eskualdeen arteko lankidetzan oinarritutako EAE mailako lehen egitasmoa da *Ignaziotar lurraldea*. Bada, jaso du bere aitortza: turismo jasangarria saritzen duen Europa mailako Eden saria. Hain zuzen, "antolaketa eredu, garapen turistiko jasangarria, lurraldearen proposamenen etengabeko eguneraketa -ibilbide tematikoak

proposatuz- eta Ezkutuko Altxorak egitaraua" baloratu dituzte epaimahaiko kideek. Hori horrela, sariaren bueltako balorazioa eskaini zuten eguaztenean erakunde ezberdinetako ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundian eginiko agerraldian. Zehatz esanda, 1997an sorturiko egitasmoa da *Ignaziotar lurraldea* bataiaturikoa. Eta berrikuntza etengabea dihardu ordutik, Debagoiena, Urola Garaia eta Urola Erdia eskualdeen elkarlanari esker.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialerako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2017ko azaroaren 30ean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2018ko urtarrilaren 18a.

LEKUA: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

ORDUA: Lehen delaldia: 18:00. Bigarren delaldia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2016-2017 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkezte, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2016-2017 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-erria, Diru Fluxuen Egoera-erria eta Txostena), eta baita Kudeaketa Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2016-2017 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2017-2018 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkezte.
6. Kontseilu Soziala berriztatzea.
7. Kontseilu Errektorea ahaldundzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
8. Galde-erantzunak.

arizmendi
ikastola

Aitziber Arregi Iribecampas
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, 2017/11/30



ZABALIK

XABIER MUGARTZA

Bakoitzak berea guztiontzat

Fan xaku beste urte bat, agudo fan be.

Edadia aurrera doian heñian, erlojuak erritmua igoten dauela emuten dau.

Ez da urte samurra izan, hainbat gorabehera izan dittuena baizik, bai mundu maillan, baita gertutxuau be.

Bakoitzak berorren zilborrera gero eta gehixau begiketan dauen mundu honetan, komunidad zentzua gero eta txikiñaua dan mundu honetan, satisfakziño pertsonal neurri gabe eta azkarra jainko barrixa dan mundu honetan, radikalidadia aldarrikatu gurako neke, etimologikoki, hain zuzen be, gauzan sustraira jotia, gauzak errotik aztertu eta aldaketia.

Bakoitzak osaketan dogun komunitate mailla desberdiñetan, komunidad horreiri eskeiñi gekien onena zer dan ikusi biharko geke, komunidad horreinganako gure aportaziñua, hazixa zein izan leikien.

Satisfakziño pertsonala, biharbada, ez da izango momentukua, baiña, zalantza barik, epe luzekua eta betiagua izatia lortuko dogu.

Nik nere alabei gauza bat esaten dostet beste danen

PERTSONA ONAK IZAN DEIXELA, SAIATU DEIXELA INGURUKUAK EURAKIN GUSTORA EGOTEN

gaiñetik, eta uste dot dauen gauzarik inportantiena dala: pertsona onak izan deixela, saiatu deixela ingurukuak eurakin gustora egoten, ingurukuen biharrak ikusi, ikasi eta beteten lagunketan.

Urrats hau emuteko kapaz bagara, zaillena eginda dakogu, eta, hortik aurrera, bide dana aldaz beheran etorriko da mundu hobe bat egitteko lan honetan.

Urtia akaboten dabillen honetan, aldaketa honetan protagonismo berezixa euki biharko leken komunitate bat bere ospakizunik garrantzitsuenetakuan murgilketan da; pertsona onak izatia zer dan irakutsi doskunan jaiotza, hain zuzen be. Elizako komunidadian be badakogu zer pentsau eta zer aldatu, egoera barrittara moldatuz, eta, betibe, gizarte osuaren onerako lanian.

Urtia akaboten dabillen honetan, Izar Ederrak gidatu gaitzala mundu justu, eder, zoriontsu eta hobe bat egitten.

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Maialen Lujanbio Zugasti

ION ALBIZU GONZALEZ
ARETXABALETA

Maialenek irabazi du aurtengo txapela. Batzuentzako, Euskal Herriko emakumeak berak ordezkatzan ditu. Larregi esatea dela esango nuke. Larregi, berririo ere, emakume baten gainean jartzen delako zama guztia. Baina tira...

Gaur ez nator Maialeni buruz berba egitera, bere amaz baizik. Domekan, Maialenek irabazi zuela iragarri zutenean, "Maialen Lujanbio Zugasti" esan zuten: Zugasti. Baten bat akordatu

zen noizbait ama batek Maialen izan zuela.

Goienan, hainbat kazetari daude eguneroko errealitatea prosan helarazten digutenak. Baten bat gogoratzen al da haien amez? Mirari Altube, Xabi Urzelai... ez al zituzten hauek ere emakumeren batek, noizbait, izan? Zergatik ez diegu haien amen abizenei lekutxo bat egiten berriaren egilea idazterakoan ere.

Mokue

EÑAUT ZUBIZARRETA MENDIETA
ARETXABALETA

Badie norbere posiziñotik, laguntza barik, ikusten ez dien zenbait gauza, hagin bittartien geratu jatzun

letxuga zatixe edo bixkerrien ipiñi dotzuen *Jo txapete bat* posticka, adibidez. Inportantziarik bako gauzak dien arren, askotan ez dutzogu lagunari ezer komentetan. Lotsiagatik, akaso. Baiña zeinñenatik, hirugarren pertsona horrenagatik edo norberanagatik? Hain egoera hutsaletan holan jokatzan badogu, zelan jokatuko ete dogu pixuzkuetan?

Txixa egin eta gero eskuak garbiketan fan eta espiluen neure burue begitu dotenien ikusi dot, hor, eskumako surtziluen txintxiliske nauken moko higuingarri hori. Eta ez, iñork ez dust ezer esan kalien narioen ordu eta erdixen.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eilortza.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Iparraldean, kontsentsu bat lortu da presoen gaiarekin"

EMILIE MARTIN BAGOAZ-EKO KIDEA

Mireia Bikuña BERGARA

Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude lelopean, hitzaldia egin dute asteon Bergaran. Urtarrilaren 13an Bilboko Casillan egingo den ekitaldirako gonbidapena zabaldu dute. Hizlarietako bat izan da Emilie Martin.

Paristik Bilbora?

Bai, hala da. Abenduaren 9an Parisen egindako manifestazio erraldoiaren ondorengo izan behar luke Bilbokoak. Parisen bizi izandakoa, aldarrikatutakoa eta oihukatutakoa Hego Euskal Herrira eraman behar dugu. Kontsentsu orokor baten aldeko pausoak eman behar ditugu.

Zu zeu egon zinen Parisen.

Zer-nolako sentimenduak azaleratu zitzaizkizun han?

Parisek berak sortzen ditu sentimenduak, baina horrenbeste herritar anonimo, eragile eta lagun elkarrekin ikustea zirraragarria izan zen. Autobuskadak joan ziren haraino. Monstparnassen



Bagoazeko kide Emilie Martin. EMILIE MARTIN

egindako topaketa ikaragarria izan zen. Gogotsu eta pozik egon ginen han.

Parisko sentimenduak Bilbon sentitzea inportantea izango da?

Bai. Guztiok egin behar dugu bat, han edo hemen.

Abenduaren 9ko manifestazioak urteko plangintzari bukaera eman zion. Gustura zaudete?

Bai. Emaizak onak izan dira. Pausoak eman ditugu, eta adostasunera heltzeko bidea laburragoa dela esango nuke.

Nolako dinamika egin duzuen Etxeratek, Sarek eta Bagoazek?

Interpelazio lana egin dugu: hautetsiekin, eragileekin, norbanakoekin, erakundeekin... Frantzia egindako dinamika parte-hartzailea eta oso aberatsa izan da.

Ekintza puntualak egin dituzue, orduan.

Baraualdia egin zuten, hitzaldi informatiboak ere bai, mahai-inguruak... Hilez hileko lanketa bat izan da. Gainera, senideek 54 salaketa ipini dituzte Frantziako Eskubideen Defendatzailearen aurrean. Euskal Herriko Arartekoaren parekoa dena. Gainera, presondegiatako gida bat ere egin dugu. Frantziako zortzi hiriburutan daude euskal presoak dituzten kartzelak, eta guztietatik pasa gara euren eskubideak berma daitezen eskatzera. Kartzela batzuetako arduradunekin egoteko aukera ere izan dugu. Zuen lana komunikabideetara ere heldu da.

Eta hori oso inportantea da guretzat. Hautetsi batzuekin egon gara. Parisko etxean, presoek eskubideen aldeko mozio bat sinatu dute. Ipar Euskal Herrian presoek gaiarekin kontsentsu bat, adostasun bat, lortu dela esango nuke.

HAU BE BADOGU!

Hauteskundeak Katalunian



Hilabete korapilatsuen ostean, atzo hauteskundeak egin zituzten Katalunian eta #21D traola *trending topic* izan zen mundu mailan.

@IrodriguezA21:

"Komunikabideek ez dute errespetatu hausnarketa eguna. #Catalunya-k aurpegia eman behar du eta hauteskunde -tranpa- hauek irabazi behar ditu!".

@jokinmoran: "Gobernuaren interesen aurkakoei irabazten badute poliziaren indarra edo beste artikulua bat aplikatuko dute?".

Altsasu, berriro zurrunbiloaren erdian

Nafarroako herrian atxilotutako gazteek 400 egun baino gehiago preso daramatela salatzeak txioez gain, asteon Altsasuko Zubi-Ondo sozietatean Falangearen aldeko pintaketak egin dituzte:

@javier_bilbao: "Norbaitek epaiketarik gabe kartzelan 402 egun eramatea beldurgarria da #Altsasu".

@dophin11: "Faxistek lehenengo mehatxatu eta gero erasotzen dute. Altsasuko Zubi-Ondo elkarte, gaurkoa".

'#Tortura' traola, 'trending topic'

EHUK torturari buruz Eusko Jaurlaritzarentzat egindako txostena ezagutzera eman dute asteon; bertan, 4.113 tortura kasu biltzen dira:

@arnaldootegi: "Gaur ofizialki jakinarazi digute betidanik esan duguna, existitu ez den gatazka politikoa baten ondorioz, milaka euskaldun torturatutak izan garela. #Tortura".

@arivero87: "4113 kasu 1960-2014 urteen artean... #GizaEskubideak #tortura Egunon".

ITURRI ONETIK

Oñatiko 26. kondea

Oñatiko 26. kondearen izendapenaren berri izan dute Oñatiko Turismo Bulegoan. Hain justu ere, Iñigo Velez Gebara Oñatiko lehen kondearen oinordeko Camilo Travesedo Juliaren berri. XV. mendean jaso zuen Iñigo Velez Gebarak Gaztelako errege-erregina katolikoen partetik konde izaera. Aurretik, Nafarroako Erreinuko jauntxo izaera zuen, baina Nafarroa indarrez Gaztelara lotu zenez geroztik konde izaera hartu zuen. Espainiako Justizia Ministroak sinatutako agiri ofizialean dakar izendapena.

GORA ETA BEHERA



Bizikleta garbitzeko mangera barik

Bizikleta-zale batek bidali du salaketa. Izan ere, aretxabaletar horrek dio "triste" iruditzen zaiola Markole auzoan egokitutako guneko bizikletak garbitzeko mangera "lapurtu izana". 300 sinadura batu zituzten Aretxabaletan horrelako zerbitzua ipintzeko eskatzen. Jarri zuen Udalak, azaroaren erdialdean, eta handik gutxira ostu egin zuten. Arrasaten ere badabiltza eskaera horrekin...



Biztanleen kexak publiko izango dira aurrerantzean

Alderdi guztiek oposizioan egon izan direnean kexak ikusi ahal izatea eskatu dute, baina hauei erakustez gain, herritar guztiei zabaltzea erabaki du gobernuak. Hiru hilean behin jarriko dira udal webgunean, baina hauen erantzunak ez dira publikatuko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gasteizko Udalak egiten duen eredua aintzat hartuta hasiko da Arrasateko Udala kexak, iradokizunak eta abisuak webgunean publikatzen. "Informazio demokratizatzeko modu bat da. Hobetzeko erronka ematen digun tresna izango da. Herritarrek jakingo dute Udalak zein kexa, iradokizun eta abisu jasotzen dituen", esan du alkateak. Zentzu berean adierazi du herritarren datu pertsonalak babestu egingo dituztela. "Gardentasunaren bidean emango dugun urrats berria izango da. Hori bai, publikatu arren, bidaltzailearen anonimotasuna gordeko dugu".

Urtarrilean hasiko dira udal barruko zerbitzu informatikoa aldatzen. Hori horrela, urtarri-leko, otsaileko eta martxoko kexak, apirilean publikatuko dira. Hiru hileko hurrenkera izango du zerbitzu horrek. "Udal webguneko *Gardentasunaren Ataria* atalean publikatuko dira guztiak".

Kexak bai, erantzunak ez

Kexak, iradokizunak eta abisuak publikoak izango dira, baina herritarrek jasotzen duten erantzuna ez da publikoa izango. "Bai zehaztuko dugu ze kexak,



Juan Ramon Mendieta, Maria Ubarretxena eta Edurne Muxika. MIREIA BIKUÑA

jaso duten erantzuna, baina, herritarrek jasoko duen testua pertsonalizatua izango da. Aha! legingiduko gara kexa, iradokizun eta abisu guztiak erantzuten. Baina, kontziente izanik, erantzun guztiek ez dutela prozesu eta denbora maila berbera eskatzen", aipatu du alkateak.

Oposizioaren eskari historikoa

BAZeko kexak udal kudeaketa hobetzeko tresna oso erabilgarria izaten dira agintea duenarentzat. Baina era berean, arma politikozorrotza izan daiteke oposi-

zioarentzat. Horren erakusgarri da Arrasateko Udaleko alderdi guztiek kexei sarbidea izatea eskatu izan dutela historikoki.

Baleikek eta Irabazik, adibidez, azaroaren 24an eskari formala egin zuten BAZen, euren alderdiek kexak ikusteko eskumena izateko. Alkateak abenduaren lehen erantzun zien, esanez alderdi politikoei erakustez gain herritar guztiei zabaltzeko asmoa zutela. Oposizioko bi alderdi horien ustez, euren eskaerak "behartu du" Udala gobernu neurri hori hartzera.



Goikoetxea eta Sanpedro Arbolapetan euren argazkiak kentzen. X.GOROSTIDI

Premi Sanpedro eta Txus Goikoetxea aske geratu dira

la 17 urteko espetxealdia egin ondoren harrera beroa jaso zuten asteazken gauean Arrasatera heltzean

X.G. ARRASATE

2001eko ekainean atxilotu ondoren, asteazkenean geratu ziren aske Txus Goikoetxea eta Premi Sanpedro preso arrasatearrak. ETaren komando ibiltari bateko kide izatea leporatuta atxilotu zituzten. Operazio horretan Ivan Astondoa, Nerea Hernandez y Natale Landa ere atxilotu zituzten, baina epaileak aske utzi zituen, nahiz eta Natale ondoren kartzelan sartu zuten Ekin-eko kide izateagatik.

Goikoetxeak eta Sanpedrok ia 17 urteko kondena bete dute, eta tarte horretan hainbat espetxe aldaketa jasan dituzte. Sanpedroren kasuan, sei espetxe ezagutu ditu: Soto del Real, Aranjuez, Asturias, Algeciras, Granada, Jaen.

Goikoetxearen kasuan bost izan dira guztira: Soto del Real, Aranjuez, Albacete, Puerto de Santa Maria, Sevilla.

Harrera Arrasaten

Sanpedrok eta Goikoetxeak hainbat senide eta lagun izan zituzten Jaeneko eta Sevillako espetxetako ateetan zain. Besarkadak, musuak eta agurrak banatu ostean, Arrasaterako bidea hartu zuten. Burgosen geldialdia egin zuten 17 urteren ostean elkar ikusteko, eta gau partean heldu ziren Arrasatera. Ordu-rako hainbat herritar zeuden zain, Seber Altube Plazan harrera egiteko prest

Hiru arrasatear kartzelan

Goikoetxea eta Sanpedro aske geratu ondoren hiru dira preso jarraitzen duten arrasatearrak: Josu Arkauz, Unai Parot eta Julen Mendizabal. Lehen biek 27 eta 26 daramatzate hurrenez hurren, eta irteera data zehaztu gabe dute oraindik. Mendizabal, aldiz, 2018an zehar irtengo da Osnyko kartzelatik.

www.harremandenda.org

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Produktu bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako!

Pobretutako herrialdeen ekoizleen egoeraren ardura daukagu. Eman dezagun benetako pauso bat egoera hau mantentzen duen mekanismoaren aurka, merkataritza konbentzionalaren irizpideak alde batera utziz. Modu honetan, egiten duten lanetatik soldata duin bat edukiko dute, beraien **duintasuna eta garapena ahalbidetzeko!**



Aukeratu... BIDEZKO MERKATARITZA
Praktikatu... KONTSUMO ARDURATSUA

Atzean istorio berezia duten opariak egiteko aukera !!



Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran aurkituko gaituzu!

Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza...

Santamas eguna gaur, ondo pasatzeko osagai guztiekin

Atzo 'losu Amantzio' txerria aurkeztu ostean, ekintzaz eta zaporez betetako egitaraua prestatu dute gaurko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Trikiti doinuek, txistor usainak, euskal dantzek eta baserriarren produkturik onenek Arrasate bereganatuko dute gaur.

Goizetik gauera

Santamas Komisiñoko kideek egitarau mamitsua prestatu dute, eta goizetik gauera bitartean primeran pasatzeko aukera zabala izango da, Udalaxpe txistulari taldearen dianarekin hasi, eta DJ Makalaren azken kanta dantzagarri arte.

Esan bezala, jai handiari hasiera emateko ardura izango dute Udalaxpe taldeko txistulariek. 09:30ean hasiko dira jai-giroa jartzen, herriko kaleetan zehar egingo duten dianarekin.

10:00etan hasiko da Laubide plazako ganadu eta hegazti feria, eta ordu berean hasiko da Seber Altuben egongo den fruta, barazki eta herriko saltokien lehia-keta. Baina bi ekintza horiez gain, *Iosu Amantzio* txerriak ere ordu horretan hasiko du bere ibilbidea, eta 10:30ean Euskal Herriko etorritako artisauen postuak ikusteko aukera izango da Jokin Zaitegi Plaza inguruan.

11:00etan Aramaioko sagardoa eta taloak izango dira Herriko Plazan.

Uluak talde antiespezista

Aurten sortu den talde horrek performance baketsu bat egingo du Biteri plazan, 10:00etatik 14:00etara. Hala, "tradizioaren izenean animaliak erabiltzen dituzten jaien aurka" daudela adierazteaz gain, txistor beganoa banatuko dute.

Dantzak eta musika

11:30ean Arrostitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariak kalejira hasiko dute herriko kaleetan zehar, trikitilarien, txistularien, gaiteroen, albakarien eta txalapartarien laguntzarekin. Ostean, 12:50ean txerri dantza egingo dute Herriko Plazan.

11:30ean, herriko kaleetan zehar ibilbidea hasiko dute Los Incansables txarangakoe eta Iturenjo joaldunek.



Joaldunak ez dira faltako. GOIENA

12:00etan, fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa egingo dute, Seber Altuben, eta 12:30ean herri kirol erakustaldiak egingo dira Zaldibarko frontoian.

Herri bazkaria

Goizaldeko ekintza guztien ondoren, Azoka plazan herri bazkaria egingo da. Bada, bertara joateko txartelak bi orduko tartean agortu dira aurten.

18:00etan binakako pilota txapelketako neurketa izango da Uarkapen, eta bertan arituko dira nor baino nor gehiago Bengoetxea-Larunbe eta Irribarri-Merino bikoteak.

Arratsaldeko zazpitan Batzen dantza herrikoia abiatuko da Arbolapetatik, eta 19:30ean txerri dantza eta larrain-dantza ikusi ahal izango dira Herriko Plazan. 20:00etan txerri zozketa egingo dute, eta ostean Ilargi Baltza taldearen dantzaldia izango da Plazan.



Gaztetxea Txikilandiaren zerbitzura jarriko da berriz ere

Gaztetxoentzako Gabonetako parkeak ateak zabalduko ditu urtarilaren 2an, 3an eta 4an

X.G. ARRASATE

Eguberri ostean gaztetxoek primeran pasatzeko aitzakiarik ez da izango Arrasaten, Txikilandiak ateak zabalduko baititu, beste urte batez. Uarkape frontoia izango da jolasgune nagusia,

baina aurten gaztetxea gune berezi izatera bueltatuko da, eta aurpegi margotzea eta jostailuak sortzeko tailerrak hartuko ditu.

Urtarrilaren 2an, goizean, Musakolako kiroldegiko igerilekua ur parke bihurtuko da. Bi haur

txoko ere antolatu dituzte, bata haurren garapenerako jostailuekin eta bestea material ezberdinekin esperimentatzeko.

"Lehen egunean oihala jarriko dugu, bigarrenean kartoia eta hirugarrenean harea", azaldu du Iker Agirre Txatxilipurdiko antolatzaileak.

Azken egunean, Martinber eta Tiritatxoren *Irrikula Makula* ikuskizuna programatu dute, eta horrez gain, merienda osasungarria ere izango da fruta eta bestelako jakiekin.

TXIKILANDIA
URTARRILAK 2, 3 ETA 4 2018
ARRASATE

URTA 2 RRILAK	URTA 3 RRILAK	URTA 4 RRILAK
12:30 - 13:30 UR PARKEA MUSAKOLAKO IGERILEKUAN * 10 - 12:00 UR JOLAS GIDATZAK * 0-6 urte bitarteko haur eta fameliazat igerileku taldea * 7-12 urte bitarteko haurtarik igerileku herdan puzgarrit	12:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00 JOLAS PARKEA UARKAPEKO PILOTEKUAN * Puzgarrit, 1/2 gutar herri, esperimentazio gunea, gaitz gunea, rokodromoak, pun txokos, photocall-a, gurea txokos, karakolas * Rokodromoan, jolas gidatuz gozatzeko aukera egongo da	12:30 - 13:30 / 17:00 - 18:30 JOLAS PARKEA UARKAPEKO PILOTEKUAN * Puzgarrit, 1/2 gutar herri, esperimentazio gunea, gaitz gunea, rokodromoak, pun txokos, photocall-a, gurea txokos, karakolas * Rokodromoan, jolas gidatuz gozatzeko aukera egongo da
17:00 - 20:00 JOLAS PARKEA UARKAPEKO PILOTEKUAN * Puzgarrit, 1/2 gutar herri, esperimentazio gunea, gaitz gunea, rokodromoak, pun txokos, photocall-a, gurea txokos, karakolas * Rokodromoan, jolas gidatuz gozatzeko aukera egongo da	GAZTETXEAN * Aurpegi margotzea, jostailuak sortzeko taldea, arzikapen taldea, talo taldea... 12:00 ETXEA eta 18:00 ETXEA IPUIN KONFALARIAK (pun txokos) eta KARAKOLAK (buntia nagusia)	GAZTETXEAN * Aurpegi margotzea, jostailuak sortzeko taldea, arzikapen taldea, talo taldea... (Ikusizuna dela eta antolatzaileek ez dira talerak egongo) 18:30 IKUSKIZUNA UARKAPEN IRRIKULA MAKULA I MARTINBER eta HIRITAKO * Ikusizunarako jolas parteko antzez guriak, butatu egingo dira

EKARRERAKIN EGON GEFKE ARRASATE EUSKALDUNAGO!

txatxilipurdi ARRASATEKO UDALA goiena

Herritarrei euskaraz komunikatzeko deia

Euskararen Egunaren ostean, Arrasateko Udalak martxan jarri zuen 'Arrasateko Udalarekin ere euskaraz' kanpaina. Abenduan zehar egongo da indarrean eta herritarrak Udalarekin komunikatzeko euskara erabiltzera animatzea du helburu

Xabi Gorostidi ARRASATE

2015ean egin bezala, Udalak, aurtun, berriz ere jarri du martxan *Arrasateko Udalarekin ere euskaraz* kanpaina. Abenduan 4an aktibatu zuten eta hilabete osoan zehar egongo da funtzionatzen.

Helburua garbia da: arrasatearrek, Udalarekin komunikatu behar dutenean, euskararen alde egin dezatela. Hori sarritzeko, euskaraz komunikatzen direnen artean PUNTUA aldizkariako hiru harpidetza zozketatuko dituzte.

Datorren urterako proiektuak

2018an Udaleko Euskara Sailak hiru erronka nagusi izango ditu egiteko: Udaleko barne komunikazioko euskara plana berritzea, herritarrek euskaraz egiteko plana berritzea eta Euskaraldia. "Lehen biak berritzeko hainbat eragilarekin elkarlanean arituko gara. Euren ekarpenak batu nahi ditugu, guretzat oso proiektu garrantzitsuak direlako", azaldu Aintzane Lasak, Udaleko Euskara teknikariak.

Euskaraldiari buruz zera adierazi du: "Euskal Herri mailako egitasmo honetan, herrietako euskalgintzan dabilzan elkarteek izango dute hau garatzeko ardura. Arrasateren kasuan, bil-



EAJko zinegotziak eta Aintzane Lasa teknikaria BAZeko aurkezpenean. X. GOROSTIDI

gune bat sortu berri dugu, Geike izenekoa, eta bertan sartuta dago Udalak, ikastetxeekin eta euskara elkarteekin batera. Beraz, lantalde polita daukagu bete-betean proiektuari heltzeko eta ekintzak antolatzeko".

Euskara Sailean aldaketak

Arrasateko Euskara Saileko buruak erretiroa hartu ostean, sailaren antolaketan aldaketak batzuk egin ditu Udal Gobernuak. "Estruktura zaharkituta zegoela ikusita, antolaketa birpentsatzea erabaki genuen. Hala, proiektu-

ka antolatzea aipostatzat jo genuen, inplikazio eta motibazio gehiagorekin lan egiteko", esan du Maria Ubarretxenak.

Aldaketarako lehen urrats bezala, euskaltegioko bi langile Euskara Sailean lanean jarri zituzte, lanaldi erdiarekin. "Sinergiak izateko helburuarekin egin dugu, eta uste dut lortzen ari garela. Adibidez, euskaltegian herriko merkatariak euskara irakasten dien pertsona merkatariarekin lotura duten gauzak kudeatzen ari da Udalean, eta merkatariak gustura daude".



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Gabonen atarian

Abendua bere amaierara iristen denean, urtean zehar bizi eta atzean uztear gaudenari agurra emateko beharra sentitu ohi dugu askok. Aurtengo urtea, gainera, bereziki ezberdina suertatu zait niri. Erritmo ustekabekoa, paisaia berrietan argazkitutakoa, urtaro aldaketez josia. Negua amaitzeaz zenean iritsi baitzen lehen uda, eta jarraian udaberri eguzkitsua. Urtearen ekuatorean berriz, gau luzeetako negua, munduaren amaierara eraman ninduen. Udazkenean bueltatu zen udaren hezea azalera, esker onez eta gogotsu. Eta urteari azkenak gelditzen zitzaizkionean, penduluak tiratzen duen antzera, buelta hasierara, buelta etxera. Orain, Gabon jaien atarian, betiko jakien eta mahaiaien inguruan, familia eta lagun zaharrek inguratuta, badirudi abenduak ez duela gehiegi jakin gura aldaketez. Eta betiko aurpegiekin egin dut topo, nahiz eta barruak sarri ez diren berberak.

Jai giroko egunak tokatzen dira ondorengoak eta festetan ikusiko dugu askok elkar. Trago bat eskuan, egin dezagun topa eta ongiatorria eman datorren urte berriari!

Bi hezkuntza proiektu buruz bermeak eskatu ditu EH Bilduk

Musakolako Herri Eskolaren berritzea eta Hizkuntza Eskola 2018an abiatzea eskatu dute Legebiltzarrean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasaterentzat garrantzi biziko bi gai dira, EH Bilduren ustez, baina faltan igarri dituzte horiek 2018an egiteko bermeak.

"Bi iragarpenen berri izan genuenean, EH Bilduko legebiltzarkide Rebeka Uberarekin jarri ginen harremanetan, hauei jarraipena egiteko. Kezkatzen gaituena da bi gaiak ez direla ofizialki inon jasota ageri. Momentu honetan, ahozko akordioak dira, eta, kasu horietan, ohikoa izaten da proiektuen exekuzioa denboran atzeratzea".

Kezka hori justifikatzeko, Hezkuntza Sailaren 2014-2018 azpiegituren hobekuntza plana jarri dute mahai gainean, bertan Herri Eskolaren berritzea agertzen ez delako. Hala, Rebeka Uberak idatziz erantzuteko hiru galdera egin dizkio Hezkuntza sailburuari, 2018an egiten hasiko diren jakiteko.

2018-2019 ikasturtean Hizkuntza Eskola Arrasaten kokatzeko eta martxan egoteko lanean hasteko legez besteko proposamen bat erroldatu du EH Bilduk Legebiltzarrean.

Halcon bidaia

BULEGO BERRIA!

Erdiko kale 16 • 943 79 29 88
Halconq99@halcon-viajes.es

2018rako gure IRTEERA BEREZIAK zain daukazu, ARRASATETIK:

- Arabiar Emirerri Batuetara itsas bidaia
- Kanaria Handia
- New York
- Alsazia
- Polonia
- Sevilla
- Argentina...

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

Artisauak eta euren lanak ezagutzeko azoka

Abenduaren 23an goizez eta arratsaldez eta 24an goizez, Seber Altube artisauen plaza bilakatuko da. Mimo handiz egindako produktuak eta artelanak egongo dira salgai, Gabonetan opari bereziak eta errepikaezinak egin nahi dituzten horientzako



Poltsa serigrafiatuak erosi ahal izango dira Artisautza Azokan. ESKUARTEAN KOLEKTIBOA

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko EskuarTEan artisau kolektiboko kideek beste behin antolatu dute Gabonetako Artisautza Azoka, eta asteburuan zehar Oñatiko, Elorrioko, Atxondoko eta Bilboko hamazortzi artisauk euren produktu eta artelanak plazaratuko dituzte.

"Badaramatzagu urte batzuk azoka hau antolatzen, baina aurrean inoiz baino artisau eta artista gehiago batuko gara. Azoka urtetik urtera gero eta indartsuagoa izatea lortu nahi dugu", adierazi du Helena Azkarragaurizar Arrasateko ilustratzaileak.

Opari bereziak aukeran

Azoka abenduaren 23an eta 24 egingo dute. Zapatuan goizez eta arratsaldez izango dira, Seber Altuben, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. Domekan, aldiz, goizez soilik egongo da azoka bisitatzeko aukera, 11:00etatik 14:00etara.

Denetariko materialak eta denetariko formatuak aurkituko dituzte Seber Altubera bertarazten direnek.

"Askotariko lanak egiten ditugu, formatu ezberdinetan: zilarra, larrua, ilustrazioa, bitxigintza, zeramika... Diseinua eta kalitatea eskainiko diegu bezeroei, eta gure eskulana bertatik bertara ezagutzeko aukera da. Mimo handiz egindako gauzak eskainiko ditugu, eta beste edonork jasoko ez duen opari errepikaezinak erosteko aukera izango da", azaldu du Azkarragaurizarrek.

Bere kasuan, kamisetak eta ilustrazioak jarriko ditu salgai, baina beste artisau batzuen lanak ere nabarmendu nahi izan ditu. "Birak Handmade markakoak azokan izango dira. Bizikleten gurpilekin egindako osagarriak egiten dituzte. Beraz, erabilitako gurril baten egindako gerriko bat erosteko aukera izango da, adibidez".

Arizmendi Ikastolaren abesbatzak kontzertu berezia egingo du

Arizmendi Ikastolako Arrasateko abesbatzak Gabonetako kontzertu berezia eskainiko du hainbat kolaboraziorekin. Hitzordua abenduaren 28an izango da, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Alboan izango dituzte Errenteriako Zaria Txiki abesbatza, jazz hirukote bat eta baita metal-instrumentuen boskote bat ere. Hain zuzen, 110 gaztetxo arituko dira ohol gainean abesten. Iker Galartza eta Aitziber Garmendia aktoreek aurkezpen lanak egingo dituzte, saioari umore ukitua emanda.

Arrasateko saioa Errenterian egingo dute, bi egun geroago, eta bertan 400 gazte inguruk abestuko dute.

Verdiren 'Il Trovatore' obra ezaguna Arrasatera otsailean

Giuseppe Verdiren obrarik famatuenetarikoa da *Il Trovatore*, eta 2018an zehar Arrasaten gozatzeko aukera izango da, opera formatuan.

Otsailaren 19an Amaia Udal Antzokiko agertokira igoko dira Opera 2001 konpainiakoak, lau alditan banatuko den obra hori interpretatzera. Sarrerak 30 euroren truke jarriko dira salgai.

Martin Mazik zuzendari eslovakiarrak gidatuta, hainbat tenore, mezzosoprano eta baritono gertutik entzuteko aukera izango dute operazaleek. Horien artean daude Giulio Boschetti, Paolo Ruggiero, Melanie Mousay, Christelle Di Marco eta Dimitar Dimitrov.

EROSKI
ARRASATE
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

magia
gurekin berriz

Opari onak

Aurtengo Gabonetan eskain diezazukegun oparirik onena izan dezazun nahi dugu: denbora.

Denbora hori maite dituzun pertsonentzat oparirik bereziena bilatzeko erabili ahalko duzu data berezi eta magiko hauetan. Izan ere, EROSKI hipermerkatuetan, zure ohiko erosketa guztiak burutzeaz gain, aurtengo Gabonetan ilusio gehien sortuko duten opariak aurkituko dituzu.

Zatoz eta eskuratu denbora gehiago opariak egiteko!



EH Bilduko zinegotziak diren Irati Pagoaga eta Ion Albizu proiektuaren berri ematen planoa atzean dutela. IKER OÑATE

'Txarapea parkea' proiektua aurkeztu du EH Bilduk

Txarapea erdigunearekin lotzeko proposamenen artean, igogailua eta pasabidea zehaztu dituzte; era berean, azpian dagoen berdegunea bi zatitan banatzea proposatu dute: batean, basoa eta zona lasaia; eta bestean, gune dinamikoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Txarapea ibilbidea herriaren erdigunearekin lotzeko eta ibilbide horren azpiko berdeguneari "irtenbide integrala" emateko asmoarekin, EH Bilduk proiektua aurkeztu du: "Txarapeak erdigunearekin duen lotura ez da egokiena; jende asko autoz ibiltzen da eta erdigunera joan da bizitzera. Bestetik, zelai hori oso garrantzitsua da Aretxabaletarako eta ahalik eta egokien aprobetxatzea izango litzateke onena", adierazi du Ion Albizu zinegotziak. Hala, *Txarapea parkea* proiektua aurkeztu dute, hiru oinarriekin: jendearen parte-hartzea; epeka egitea; eta ekonomikoki "ahalik eta xume-na" izatea.

Igogailua eta pasabidea

Erdigunearekin lotzeko proposamenen artean igogailua eta pasabidea zehaztu dituzte; igogailua "Zerrajerako etxeen albotik" Txarapeara igotzeko; eta pasabidea komentu albotik, ibaia

pasatuta erdigunera jotzeko. Bestetik, berdegunea bi zatitan banatzea proposatu dute: batean, basoa eta zona lasaia; eta bestean, gune dinamikoa.

Txarapea parkea proiektu horretarako epeak ere zehaztu dituzte, lau egitasmotan banatuta. Basoa eta gune lasaia egiteko "partida txiki bat" zabaldu gura dute hurrengo aurrekontuetan. Ondoren, gune dinamikoa garatuko lukete, "jendearen parte-hartzearekin". Igogailuaren azterketa ere proposatu dute: "Aukerak aztertu, proiektua egin, eta egoerak ahalbidetzen duenean, igogailua jarri". Eta bukatzeko, pasabideari helduko liokete: "Proiektua idatzi, lehenengo, eta gero, jarri".

**ZERRAJERAKO
ETXEEN ALBOTIK
IGOGAILUA JARTZEA
ETA KOMENTU
ALBOTIK PASABIDEA**

Basoa eta gune dinamikoa

Berdegunean aurreikusitakoari dagokionez, zera diote: "Ahal den neurrian basoa sortzeko zuhaitzak landatzen jarraitzea proposatzen dugu", eta gaineratu dute: "Andramari auzune pareko eskaileretatik ezkerretara dagoen zonalderako zelai itxura errespetatzea gura dugu; han-hemenka zuhaitz multzoak landatu eta leku goxoak sortuta".

Gune dinamikoan –eskaileretatik eskuma aldera– ostera, "bizitasuna" nahi dute: "Lasai egon, jolas egin, kontzertu bat entzun, txirristan jaitsi... egiteko. Txarapea erdigunearekin lotuko duen zona izatea ere nahi-ko genuke: ume-karroarekin, erosketekin, makuluekin, gurpildun aulkiarekin... ibili ahal izateko". Eta gune horretarako, honako hauek aipatu dituzte: anfiteatroa, kultura ekintzetarako zein lasai egiteko; eta jolas lekua adin guztietarako, hauek dituen: landarez egindako labirintoak, aldatsak, enbor multzoa...



MIRARI ALTUBE.

Gabon giroko emanaldia

Gabon giroan murgildu zituzten herritarrak Leizarra musika eskolako ikasleek martitzenean, Herriko Plazako karpapean egindako emanaldiarekin. Abesbatzak hasi zuen ekitaldia *Adeste fideles* kantuan eginda, eta ondoren, instrumentuetako ikasleek hainbat abesti eskaini zituzten, besteak beste, trikitiarekin, panderoekin eta biolinekin.



M.A.

Dantza garaikidea gerturatzen

Jaiki elkarteko kideek dantza garaikidea ezagutzera eman gura izan diete herritarrei, eta horretan diharduten eskarmentu handiko lagunak gonbidatu zituzten eguaztenean Herriko Plazako karpapa. Arantza Iglesias koreografo donostiarrak *Ki* dantza saioa eskaini zuen, eta Input Konpainiak, Natalia G. Muro eta Aiala Etxegarai dantzariak, *Un.y.dos* ikuskizuna.

Kamiseta margotzea, perkusio saioa eta gehiago, hilaren 27an

Kale ekintza deitu dute kale hezitzaileek eguaztenerako, abenduak 27. Hainbat jarduera egingo dituzte Iralabarri plazan, 17:00etan hasita: kamisetak margotu, txapak egin, perkusio saioa... 12 eta 18 urte arteko gazte guztiak gonbidatu dituzte: "Animatu eta hartu parte, gozatzeko helburuarekin antolatutako dugu eta".

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Kantuak kaleetan Gabonei harrera egiteko

Kantu eta txistu doinuekin girotuta hasiko dute Gabon eguna herriko umeek eta gurasoek, eta Olentzero eta Mari Domingi ere gerturatuko dira Herriko Plazara. Urtarrilaren 5a bitartean askotariko ekintzak izango dira han eta hemen

Mirari Altube ARETXABALETAK

Herriko gurasoek eta neska-mutikoek Gabon kantuan hasiko dute domeka (Herriko Plaza, 10:30), txistularien laguntzarekin. Eguerdi partean, Mari Domingiren eta Olentzeroren bisita jasoko dute (Herriko Plaza, 12:00), eta gutunak eskutik eskura eman ahal izango dizkiete umeek. Iluntzean, ostera, Ibarra kiroldegitik (18:30) Herriko Plazarainoko ibilbidea osatuko du bikoiteak, eta han kantuan egingo diete musika eskolako kideek.

Gabon egunotan Aretxabale-tara gerturatuko diren pertsonaia bakarrak ez dira izango; abenduaren 31n Bizarzuriren txanda izango da (kiroldegitik irtenda, 18:30). Hark ere umeen gutunak eta musuak jasoko ditu gozokien truke.

Eta urtarrilaren 5ean, Errege magoak etorriko dira (18:30). Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek Leizarra musika eskolako musikarien laguntza izango dute kiroldegitik Herriko Plazarako ibilbidean.

Antzerkia, bertsoak, kontzertuak
Txalo Produktzioak *Jainko basatia* antzezlaneanekin etorriko da abenduaren 26an Arkupera (19:30, 4 euro). Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agi-

rregomezkorta eta Tessa Andonegi izango dira oholtza gainean, bikote arteko liskarrak agerian utziko dituen komedia dramatikoa.

Otxandategi talde nafarrak, ostera, *Abby Potxola* emanaldia eskainiko du hilaren 28an, Arkupen (19:00, 4 euro). Abby haur senegaldarraren omenez egingako diskoan oinarritutako kontzertua izango da, Senegalgo egoera ikustarazteko sortutakoa, hain zuzen ere.

Abenduaren 29an, bi aukera izango dituzte herritarrek: batetik, goi mailako bertsolariek eskainiko duten saioa Arkupen (19:00, 4 euro). Han elkartuko dira honako hauek: Amets Arzallus, Agin Laburu, Uxue Alberdi eta Oihana Iguaran; Amaia Agirrek jarriko dizkie gaiak, hura ere bertsolaria.

Eta bestetik, Aretxabaleta Abesbatzaren Gabonetako kontzertuaren emanaldia izango da parrokiaren (19:30).

Gabonetako parkea

Umeek eta gazteek ez dute aspertzeko unerik izango opor egunotan. Ibarra kiroldegia antolatuta, patinaje ikastaroa izango dute hilaren 27an (10:30-12:30) eta puzgarriak 28an (10:00-13:00).

Eta Gazteria Zerbitzuaren eskutik, Gabonetako parkea izango dute kiroldegian urtarrilaren 3an eta 4an (11:00-13:00 eta 17:00-20:00) aukera mordoarekin: puzgarriak, mahai-jolasak, eskulan tailerrak, wii...

Gaztelekuak ere hainbat ekintza antolatu dizkie 12 eta 16 urte artekoek; besteak beste, mendi



Olentzero eta Mari Domingi, laz, umeekin. MIRARI ALTUBE

buelta, irteera berezia, bingoa eta gaztelekuko gazteen arteko topaketa Bergaran, hilaren 28an. Eta kale hezitzaileek *kale ekintza* egingo dute hilaren 27an

Iralabarri plazan (17:00): kamisetak margotu, txapak, perkusio saioa... 12 eta 18 urte arteko herriko gazte guztiak gonbidatu dituzte horretara.

Ahmed El Ajbari

Urkulu lokutorioa

"Iphone telefonoendako pantailak sekulako prezioan eskainiko ditugu hilabetez, gaur hasita"

Orain dela zortzi urte zabaldu zuen lokutorioa, eta, eskaintza zabala izan arren, telefono mugikorraren salmenta eta konponketa ditu espezialitate.

Esperientzia eta kalitatea eskaintzen ditu Urkulu lokutorioak.

Telefono mugikorrak dira zuen bereizgarri...

Bai; saldu egiten ditugu baimen guztiekin, telefono horiendako osagaiak dauzkagu eta hondatutakoak konpondu egiten ditugu.

Esperientzia handia duzue konponketetan, ezta?

Hamabi urtetik gorako esperientzia duen teknikariak egiten du langurekin. Eta dendan bost urte daramatzagu horretan: konpondu, telefonoak askatu...

Eta zein berme eskaintzen duzue?

Debagoieneko preziorik onenak ditugu konponketetan, lan ona egiten dugu, eta kalitate handiko produktuak ditugu prezio ezin hobean. Gainera, bi urteko bermea eskaintzen dugu, beste edonon bezala.

Orain, eskaintza berezia duzue. Bai. Iphone 5, 6, 6S eta 7 telefonoendako pantailak sekulako prezioan eskainiko ditugu, hilabetez, gaur hasita; argibideetarako etorri dendara.

Bezeroa zaintzen ahalegintzen zarete...

Bai, horixe; hona datorrenari beti egiten diogu beherapenen bat edo opariren bat, hala nola babesgarri bat edo zorro bat. Gure bezeroak oso pozik gertatzen dira.



El Ajbari, telefonoa konpontzen.

“Hamabi urteko esperientzia dugu konponketetan”

Egutegia bezeroendako

Aretxarte merkatarien elkarteko kideek egutegi berezia atera dute, beste behin. Ivan Valle eta Ane Idigoras argazkilaria aretxabaletarrek modelo lanetan jarri dituzte merkatariak, eta, paisaia dotoreek eta imajinazioak lagun eginda, argazki ezin politagoekin osatu dute. Astelehena ezker, oparizat jasotzen dabilta bezeroak.



M.A.

Urkulu

GABONETAKO ESKAINTZA

Pantaila osoaren konponketa

iPhone 6 > 40€	iPhone 7 > 50€
iPhone 6S > 45€	iPhone 7Plus > 55€

Konponketa 40 minututan!
12 urte baino gehiagoko esperientzia.
Eskaintza baliagarria: Errege osteraren artean

Mitarte, 16 Aretxabaleta

943 08 61 91

666 78 06 66

Astelehenetik igandera
10:00-14:00 / 16:30-21:00

"Sahararrek ez dute ezer, laguntzetatik bizi dira"

AINHOA HERRUZO CABALLERO EKINTZAILEA

Aljeriako Aaiun kanpamentuan izan da hamar egunez han dituen lagunak bisitatzen, eta laguntza handia behar dutela gogorarazi gura izan du

Mirari Altube ARETXABALETA

Aitak sortutako okindegian, Loramendi kalean, egiten du lan Ainhoa Herruzo Caballero gazteak (Aretxabaleta, 1988). Urtean pare bat aldiz joaten da Aljeriako Aaiun kanpamentura, eta oraingoan ere bete-bete egin da itzuli da.

Sahararren kanpamentutik etorri berri zara...

Bai; Aste Santuan eta abenduan joan izan naiz, eta oraingoan, hamar egun pasatu ditut. Lehenengo z joan nintzenean proiektu baten bueltan izan zen, orain dela sei bat urte. Ordutik, hamabigarren bisita izan da, eta orain senide moduan noa.

Izan ere, urtero ekartzen duzu Saharako ume bat uda pasatzera, ezta?

Hori da; gurekin hemen izandako bi umeren familiak daude kanpamentu horretan eta horiekin egoten naiz.

Eta zelan topatu dituzu?

Aurten hobeto. Iaz, uholdeak izan zituzten eta egoera kaskarrean zeuden. Poliki-poliki konponketak egin eta bere onera itzuli dira. Kontuan hartu hango tenperaturak muturrekoak direla, euria egiten duenean ere erruz egiten duela eta etxeak adobearekin egindakoak direla. **Laguntzarekin joaten zarete hemendik?**

Saiatzen gara. Botikek emandako materiala eraman dugu, adibidez. Gabonetako otarreak eta loteria ere saltzen dugu hemen dirua lortzeko; eta diru horrekin batetik, behar dituztenak erosten ditugu, eta bestetik, jaitxo bat antolatzen dugu; benetan polita izaten da! Gero, urtean zehar ere saiatzen naiz laguntzen.

Etxean jasotzen dituzun umeak urtetik urtera aldatu egiten dira?

Bai. Lehen, sei eta zazpi urtetan jarraian etortzen ziren berberak, baina ume horiek hartuko dituzten gero eta familia gutxiago daude hemen; Aretxabaletan bakarra naiz. Horregatik, bi urte



Margotutako eskuak erakusten aretxabaletar gaztea. MIRARI ALTUBE

baino gehiago ez dira etortzen orain, ahal den ume guztiek irten ahal izateko handik.

Hango bizimodua oso ezberdina da?

Erabat ezberdina; oso pozik bizi dira, besterik ez dute ezagutu eta, baina miseria handia dago.

Jasotzen dituzten laguntzetatik bizi dira eta kanpoan bizi diren senideek bidalitakoetatik; izan ere, han ez dute lanik. 42 urte daramatzate euren herritik kanpo eta guztien ametsa da egunen batean hara itzultzea.



Aretxabaletako gaztea Aaiungo umeei argazkia ateratzen. AINHOA HERRUZO

Umeen artean ezin gusturago

Umeekin oso gustura izaten da Herruzo, eta horiei laguntzera animatu gura ditu herritarrek. "Hara eramateko arropa –berezik umeena–, jostailuak, eskolako materiala... jasotzen ditut okindegian. Udan umeak etxean hartzeko familiak ere behar dira".



Ikasleak Sugedorriak lanaren une batean. AMAIA TXINTXURRETA

Karmele Igartua gogoan, antzezlan dotoreak oholztan

Bekari esker idatzitako 'Sugedorriak' lana eskaini diete Kurtzebarri eskolako ikasleek, hiru egunetan, herritarrei

M.A. ARETXABALETA

Karmele Igartua sorkuntza bekari esker Alaitz Olaizola azpeitiarrak idatzitako lana taularatu dute Kurtzebarri eskolako bosgarren mailako neska-mutikoei. Hiru taldek egun banatan eskainitako saioekin Arkupe bete egin zen, eta txalo zaparradak jaso dituzte.

Igartua gogoan

"Udala etorri zenean, Idazle Eskolarekin batera, lan hau antzezteko proposamenarekin asko poztu ginen. Zirrara handia izan da", adierazi du Rosa Urreta

irakasleak. Iurgi Etxebarriak, Apoxox Sormen Iturriko gidariak, jardun du ikasleekin lanean: "Oso ondo pasatu dugu guztiok, hori zen garrantzitsua; umeek ikasi dute euren artean ondo konpontzen, eta, batez ere, sormena landu dute".

Garazi Oianguren, Karmele Igartuaren alaba, izan da ikusleetako bat: "Antzezlan ederra izan da; ez da erraza hala taularatzeko. Asko gustatu zait". Eta neska-mutikoei lore sorta oparitu zioten haren ama gogoan: "Oraindik ere gogoratzen dira eta oso hunkigarria da hori".



UDAL LIBURUTEGIA

Liburutegiko irakur-puntuak

Iritsi dira etxeetara Ainhoa Caberok egindako irudia duten liburutegiko irakur-puntuak. Cabero pintura irakasleak eta liburutegiak elkarlanean, gainera, marrazki lehiaketa antolatu dute. 43 lan aurkeztu dira eta irabazlea Manex Madinabeitia izan da; lan originala eta ausarta dela adierazi du epaimahaiak. Horren irudiarekin 500 irakur-puntu kaleratu dira eta liburutegian dituzte.



Dorleta eta Aranburuzabala arteko bidegurutzean espaloia egokituko dute. IMANOL BELOKI

5,4 milioiko aurrekontua onartu du udalbatzak

EH Bildu eta Eskoriatza Irabazi oposizioako alderdiek aurka bozkatu dute; edozelan ere, Udal Gobernuan dauden Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Elizateen aldeko botoekin, onartuta geratu da 2018ko aurrekontua

Imanol Beloki ESKORIATZA

2018ko aurrekontua onartu zuten astelehenean egindako osoko bilkuran Eskoriatzako udalbatzako kideek. 5,4 milioikoa izango da, 2017koa baino pixka bat handiagoa, 26.400 euro gehiago (%0,5). Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Elizateen aldeko botoarekin atera zuten aurrera aurrekontuen onarpena; EH Bilduk

eta Irabazik, berriz, kontra bozkatu zuten.

"Urte osoan, aho batez ari gara gauza guztiak onartzen. Hori, beste alderdikideei informazioa ematen zaielako da. Iaz, salaketa izan genuen berandu ibili ginelako, eta aurrean, azaroaren 17rako egin dugu batzordea; aurretik oposizioarekin, herri-tarrek... egonda. Beste era

batera ulertzen badute parte-hartzea, ez dakit zein era den hori...", azaldu zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak, oposizioaren kontrako erabakiaren gainean.

EH Bilduren ezetzaren arrazoia

Hainbat iradokizun onartu dizkietela azaldu zuen Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak.

leak, eta aurrekontuak prestatzen lehenago hasi izana ere eskertu zien Udal Gobernuako kideei, baina erabili den metodologia eta herritarren parte-hartze modua konforme ez, eta kontra bozkatzea erabaki zuten.

Honela azaldu zuen Aitor Zubizarretak, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak: "Parte-hartzea beste modu batera ulertzen dugu guk. Udal honetan, parte-hartzea informatzea dela uste dute, baina guk uste dugu parte-hartzea iritziak eta iradokizunak jaso eta, denon artean hitz eginda, kontsentsu bat lortzea dela. Bestalde, partida bat dago inbertsioetarako, baina inbertsio horiek zeri erantzuten dioten ez dugu ikusten, ez dago marko orokor bat, non txertatu daitezkeen edo helburu batzuk bideratuko dituztenak inbertsio horiek. Azkenik, ezetzaren hirugarren arrazoia da eskaera bat egin dugula, kale hezitzailearena, eta ez da onartu. Gure gazteria alboratuta dagoela, eta figura honen ekimena interesgarria dela uste dugu. Programa txertatzea ez dugu proposatu, soilik partida ireki bat uztea eskatu dugu, beharren azterketa egitea, aurrera begira... Hala ere, hainbat iradokizun onartu dira eta alde horretatik pozik gaude".

Irabazi, etorkizunera begira

Irabaziko Rafa Bernal bozeramaileak, berriz, adierazi zuen epe motzera begirako aurrekontuak prestatu dituela Udal Gobernuak, etorkizunera begiratu barik: "Onartu dizkiguten eskaerak minimoak izan dira, eta onartu diren aurrekontuak epe motzerakoak direla uste dugu. Obretan dute oinarria. Ez dugu ikusten etorkizunera begirako

proiekturik dagoenik. Gainera, etorkizuna ez du ematen osu ona izango denik. Pilak jarri behar ditugu, eta horretarako ez ditugu obrak egin behar, oinarri sendoa duten lanak egin behar ditugu. Beraz, aurrekontuak ez doazenez gure norabidean, ezezkoa eman dugu".

Elizateak, pozik

Elizateetako Iñaki Kerexeta bozeramaileak, bestalde, adierazi zuen pozik daudela aurrekontuekin: "Elizateetarako 44.000 euroko partida bat bideratu da: bideak, argiteria, urak eta beste hainbat azpiegitura konpontzeko. Gero, beharren arabera, jasotzen ditugun diru laguntzen arabera aldatu egin daiteke partida hau, baina, hasiera batean, iaz bezala, pozik gaude...".

Inbertsio nagusiak

Inbertsio nagusiak lan hauek egiteko bideratuko dituztela gaineratu zuen alkateak: Dorleta eta Aranburuzabala arteko bidegurutzean espaloia egokitzea –irailean bukatuko dutela adierazi zuten–; San Viator parean Kuartuenako haur parkea bukatzea –maiatzean egingo da–; argiterian, kalean eta elizateetan hobekuntzak egitea; eta Udal-tzaingoarendako auto berria erostea, besteak beste. Horiatarako guztietarako 200.000 euro inguru bideratu nahi dituztela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak.

INBERTSIO NAGUSIETAKO BAT, DORLETA ETA ARANBURUZABALAKO BIDEGURUTZEAN



Tratorean badatoz, Mari Domingi eta Olentzero

Domekan iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Eskoriatzara. Traktore gainean, Apotzagan behera jaitsiko dira, eta, herriko kaleetan barrena gozokiak banatu ostean, Fernando Eskoriatza plazan izango dira haurren gutunak jasotzen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aurten ere ez digute hutsik egingo eskoriatzarroi Gabonetan opariak ekartzen dizkiguten Olentzerok eta Mari Domingik. Apotzaga auzoan behera jaitsiko dira, urtero moduan, herrira, eta hurrek haiei idatzitako eskutitzak emateko aprobetxatuko dute Fernando Eskoriatza plazan, ilusio osoz.

Eguneko hitzordu azpimarragarri horrez gain, egun osorako egitaraua prestatu du Udalak hilaren 24rako. Goizean, gaztaina erreak jateko aukera izango dute plazara bertaratzeko. 12:00etatik 13:00etara, Olentzeroren laguntzaileak Fernando Eskoriatza plazan izango dira haurren eskutitzak batzeko. Eta hurrek urtean zehar zein ondo portatu diren esango diete eguneko protagonistei, eskatutakoa ekartzeko. Ondoren, herriko hurrek Gabonetako kantak abestuko dituzte, eta trikiti eskolako ikasleekin kalejira egingo dute, 13:00etan.

Arratsaldean, berriz, 17:30ean, Gabon kantak abestera joango dira herritarrak Jose Arana zaharren egoitzara.

Traktorean Apotzagatik behera 18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Apotzaga auzotik jaitsiko dira traktore gainean, eta ongietorria egingo zaie Fernando Eskoriatza plazan, honako ibilbide hau egin ostean: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta herriko plaza. Herrian zehar ari direla, gozokiak emango dizkiete haiek ikustera gerturatzeko direnei. Ondoren, txistulari eta soinu-joleekin batera kalez kale ibiliko dira, eta herritarrek kantuz lagunduko dituzte.

Errege magoen kabalgata

Urtarrilaren 5ean, berriz, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Esko-



Iaz, Olentzero eta Mari Domingi haurren gutunak jasotzen. ESKORIATZAKO UDALA

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI APOTZAGATIK ETORRIKO DIRA ESKORIATZARA

riatzan izango dira. Urtero moduan, gozokiak banatuz kabalgata egingo dute, Manuel Muñoz kiroldagian hasita. Antortxeroak eta kabalgatan parte hartuko dutenak 17:30ean batuko dira, kiroldagian, eta,

bertatik abiatuta, Intxaurtxueta-Gaztañadui-Arbiñoste-Arana-Fernando Eskoriatza plaza bidea egingo dute. 18:30 aldera iritsiko dira plazara.

Herodesen istorioa

Errege magoek ibilbidea hasi eta gutxira, Jose Arana zaharren egoitzaren parean, Herodesen istorioa antzeztuko dute, iaz egin zen moduan. Antzeztanaren ostean, bidetari ekin, eta amaitzean, Erregeek umeen eskutitzak jasoko dituzte Fernando Eskoriatza plazan.

Abenduak 24: egitaraua

- **12:00** Olentzeroren laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte herriko plazan.
- **12:00-13:00** Gabon kantak abestuko dituzte plazan.
- **13:00** Trikitixa Eskolako ikasleekin kalejira.
- **17:30** Gabon kantak, Jose Arana zaharren egoitzan.
- **18:00** Apotzaga auzotik datozen Olentzero eta Mari Domingi ongietorria egingo zaie. Ibilbidea honako hau izango da: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta herriko plaza.
- **Ondoren** Txistulari eta soinu-joleekin batera, kantuak, kalez kale.
- **Oharra:** Goizean, gaztaina erreak izango dira plazan.

Punk-rock doinuak eramango ditu Eskupitajo taldeak Inkernura

Inkernu margotuta eta argiteria berriarekin irekiko da bihar, eta hilaren 25ean kontzertuarekin estreinatuko da

I.B ESKORIATZA

Abenduaren 25ean, kontzertua izango da, Atxorrotx Kultura Elkartek antolatuta. Oraingoan, abenduaren 24ko ajeari aurre egiteko punk-rock doinuak lantzen dituen Abadiñoko Eskupitajo taldea igoko da oholtzara. 80ko hamarkadako eta 90eko hamarkada hasierako talde mitikoen bertsioak egingo dituzte, Dictators, Eskorbuto, Hertzainak, Kortatu, eta halako taldeenak, baina betiko klasikoak soilik ez dituztela egingo gaineratu dute taldekideek.

Duela hamazazpi urte jo zuten lehenengo kontzertua Abadiñoko musikariek, eta urtean hiruzpalau emanaldi egiten dituzte, ondo pasatzeko asmoz. Hala, abenduaren 25eko kontzertua ere lagun artean ondo pasatzeko antolatu dute.

Inkernu taberna, bestalde, itxita egon da hainbat egunetan, eta bihar irekiko ditu berriz ateak. Hala, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek lokala margotu, argiteria berritu, eta elementu berriak ezarri dituzte, besteak beste.

'Mari Kixkur eta hiru hartzak' ikuskizuna Zaldibar antzokian

Abenduaren 30ean, 18:00etan, XIX. mendeko ipuin klasikoa gaur egunera ekarriko du Zaldibar antzokiko oholtzara Glu-Glu Produzioak taldeak.

Musika eta dantza komedia-ekin eta antzerki jolasarekin uztartutako lana da *Mari Kixkur eta hiru hartzak* ikuskizuna, eta, antzeztan horretan, hurrek eta familia osoak norbanako

bakoitzak intimitaterako duen eskubideaz eta elkarbizitzarekiko errespetuaz hausnarketa egingo dute.

Mari Kixkur neskato bihurria eta alaia da; ile kizkurra eta urre kolorekoa du. Domeka batean, gurasoekin haserretuko da, bere egunerokoa irakurri dutela uste duelako. Horrela, gurasoei aurka egin, eta basoan galduko da. Zuhaitzen artean ezkutatuta dagoen hiru hartzen etxea ezagutuko du, eta bertan geratuko da...



I.B

Zebra-bide argiztatua

Eskoriatzako bi zebra-bidetan hainbat argi jarri dituzte errepidetik doazen gidarientzat, segurtasuna bermatzeko aldera. Hain zuzen ere, Dorleta auzora doan bidegurutzean –Naira taberna ondoan– eta goratxoago dagoen zebra-bidean. Autoan pasatzean, beste erreiko argiak pizten dira, eta, alderantziz, beste aldekoak.

Gabonetako haur parkea, gaztetxoek dibertsiorako

Abenduaren 26an, puzgarriak izango dira igerilekuan eta abenduaren 27an eta 28an, berriz, tailerrak, puzgarriak, ohe elastikoak, bideo jokoak, eta abar Manuel Muñoz kiroldegian, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Imanol Beloki ESKORIATZA

Abenduaren 26an, igerilekuko parkea eta abenduaren 27an eta 28an kantxako Gabonetako haur parkea Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako joko eta jolasak egiteko aukera izango da, urtero moduan.

Gabonetako parkeari hasiera emateko, abenduaren 26an, 17:00etatik 20:00etara, puzgarriak izango dira igerilekuan. Abenduaren 27an eta 28an, aldiz, kiroldegiko kantxan joko eta jolas ezberdinak izango dira, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean: puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak eta Wii eta Xbox kontsolak egongo dira, gaztetxoek gozamenarako.

Bonuen prezioa

Igerilekuko parkerako, bazkideek bi euro ordaindu beharko dute sarrera eta bazkide ez direnek, aldiz, hiru euro. Kantxan egon-



Gabonetako parkea, iaz. I.B

go den haur parkerako, berriz, egun bateko bonuak bost euroko kostua izango du eta bonu osoak, berriz –hau da, igerilekuko parkeak eta bi eguneko parkeko bonuak–, 10 euroko kostua izango du.

Oharrak bertara doazenentzat

Gazteria Sailak eskatu du guraso eta laguntzaileak, ahal den neurrian, taberna inguruan edo harmailetan egon daitezela. Horrela, begiraleen lana errazteko eta umeek parkean leku zabalagoa izan dezaten. Bestalde, gaineratu du tailerretako materiala ezingo dutela eraman, tailerretan bakarrik erabili beharko dutelako.

Tortolis, Bilboko parkera

Abenduaren 29rako, bestalde, Bilboko Gabonetako jolas parkera irteera antolatu du Tortolis ludotekak. 09:30ean irtengo dira, erdiguneko geltokitik, eta itzulera ordua arratsaldeko sei-tan izango da. 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako irteera da eta prezioa hamabi euro da. Hara joan nahi duenak ludotekara joan beharko du; edozelan ere, irteeran parte hartzeko ez da ludotekako bazkide izan behar.

Gabonetako marrazkiak

Astelehenean, Gabonetako marrazki lehiaketarako marrazkiak egiten aritu ziren Tortolis ludotekako 7 eta 12 urte bitarteko haurrak. Egun hauetan, ilusio osoz ari dira ludotekako apainketa lanetan eta marrazkiak egiten, eta horren erakusle da honako argazki hau. Hain zuzen ere, marrazkien sari banaketa gaur arratsaldean egingo dute.



NEKANE ATXAGA

LEINTZ GATZAGA 17



Leintz Gatzagako liburutegia. JOANNES MENDIZABAL

Abenduaren 26an irekiko dute Leintz Gatzagako liburutegia

Maider Alzelaireren eta Dorleta Kortazarren ipuin kontaketak izango dira irekiera eguna ospatzeko

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako liburutegia berriz zabaltzeko asmoz, Gurel guraso elkarteko taldetxo bat lanean aritu da azken hilabeteetan, eta abenduaren 26an irekiko dituzte bertako ateak.

"15 urte baino gehiago izango dira liburutegia itxi zela, eta guraso elkarteko batek berrantolaketa lana egin zuen. Orain, herritarrek erabiltzen ez dituzten eta egoera onean dauden liburuak batu, eta hark egindako lanari jarraipena eman nahi diogu", adierazi du Saioa Urrutiak.

Abenduaren 26ko irekieraren ostean, astelehenetan 17:30etik 19:00etara egongo da zabalik liburutegia, eta boluntario arituko dira liburuzainak. Martitzenetik egubakoitzera, berriz, mailegutza moduan funtzionatuko du, eta ez da liburuzainik egongo.

Irekiera egunean, bi kontaketa

Liburutegiaren irekiera egunean, bi ipuin kontaketa egongo dira: bata, umeentzat izango da, Maider Alzelaireren eskutik. 17:00etan, *Bazan behin herritxo batian...* kontakizuna egingo du. Ondoren, 19:00etan, helduentzako kontakizuna izango da, *Muxutruk* izenekoa, eta Dorleta Kortazarrek eskainiko du. Bi emanaldien artean, 18:00etan, txokolate beroa eta bizkotxoak egongo da.

'Bularretik mintzora' ekimena

Liburutegiaren irekieraz gain, *Bularretik mintzora* programa jarriko dute martxan eskolan. "Astero, ume batek motxila bat eramango du etxera, liburutegian liburu bat hartu ondoren, eta, astetik astera, motxila ume batetik bestera pasako da. Hala, euskara bultzatu eta mailegutza funtzionamendua ikasteko", adierazi du Eider Encina irakasleak.

Abenduaren 24an Gabon eskean baserriz baserri

Abenduaren 24ko ohiturari jarraituz, hainbat gatzagar, urtero lez, Gabon eskean ibiliko dira herrian zehar. Gatzagako guraso elkarteak (Gurel) eta beste hainbat herritarrek antolatuta, aurten, berrikuntza moduan, txistulariekin batera egingo dute ibilbidea.

09:00etan autobusa izango da, haur eta gurasoak baserriz ba-

serri joan daitezen kantuan egitera. Haiekin batera, txistulariak ere joango dira, kantuez batera musikaz girotzeko.

Hain zuzen ere, Dorleta Santutegian hasi, eta Olaun baserria, Gure Ametsa jatetxea... eta baserri guztiak pasatu ostean, herriko etxeetan hirurak aldera amaituko dute ibilbidea. Bidean zehar, hainbat etxetan jatekoa eta edatekoa jasoko dute eta kantuan ari direla egutegiak banatzeko ere aprobetxatuko dute irteera.



San Martin eskolako ikasleak eta irakasleak, Olentzero eta Mari Domingirekin, eskolako patioan. ENEKO AZURMENDI

Iritsi dira Olentzero eta Mari Domingi Aramaiora

Gabonetako jaialdia egin zuten atzo San Martin eskolako ikasle eta irakasleek, eta bi aste hauetan eskaintza zabala eskainiko duen egitaraua antolatu dute Udalak eta zenbait eragilek; bihar, adibidez, bertso saioa egingo dute kultura etxean, 19:30ean

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Gabonak ate joka daude, eta horren erakusle da atzo, eguena, Olentzero eta Mari Domingi San Martin eskolara heldu izana. Goizeko lehen orduan iritsi ziren, eta gelaz gela aritu ziren, ikasleekin solasean. Ikasleek kantuan, bertsotan, eta dantzan ere egin zuten, eta horren ostean, bikoteak opariak banatu zizkieten. "Beti dago bihurriten bat edo beste, baina, orokorrean, ondo portatzen dira Aramaioko umeak. Beraz, opariak bakarrik ekarri ditugu, ikatzik ez. Atzo eskolan egon ginen, eta domeka gauen etxez etxe pasako gara opari gehiago banatzera", azpimarratu du Olentzerok.

Opariak banatu ostean, urteroko ohiturari jarraituz, seigarren mailako ikasleek txistorra prestatu zuten, sukaldariaren laguntzarekin, eta ikasle guztiei banatu zieten, melokotai-zukua-ekin batera.

Arratsaldean, berriz, Gabonetako jaialdia egin zuten eskola-

ko ikasle zein irakasleek kultura etxean. Gela bakoitzak emandaldi bat eskaini zuen eta denerik egon zen jaialdian: dantzak, bertsoak, antzerkia eta abar.

Bertso saioa

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Aramaioko Bertso Eskolak Gabonetako bertso saioa antolatu du aurten ere. Bertsolari Txapelketa Nagusian aritu diren hiru bertsolari eta herriar bat izango dira saioan parte hartuko dutenak, Amets Arzallus, Alaia Martin, Julio Soto eta Xabi Igoa, hain zuzen ere. Gai-jartzaille lanak Peru Abarrategi bertsolari gazteak egingo ditu. "Kartel polita osatu dugu. Eliko hiru bertsolari etorriko

GABONETAN ADIN ETA GUSTU ASKOTARIKO HERRITARRENTZAKO EGITARAU ZABALA EGONGO DA

dira eta niretzat ohore bat izango da horiekin oholta partekatzeara. Ea aretoa betetzen dugun eta saio polit bat ateratzen zaitgun", azaldu du Xabi Igoak. Saioa bihar- zapatua- izango da, 19:30ean kultura etxean eta sarrrera bost euro izango da.

Egitarau oparoa Gabonetan

Bertso saioaz gain, Gabonetarako egitarau zabala prestatu du Udalak. Gaur, adibidez, *Handia* pelikula ikusteko aukera izango da kultura etxean, 22:00etan.

Sukaldaritza tailerraren ordez, josten ikasteko tailerra egongo da aurten umeentzako, Unixe Royoren eskutik. Adinaren arabera, hiru talde desberdin egingo dituzte. Horrez gain, Yogi-puinak emanaldia eskainiko du Maite Arresek.

Argazki proiektzio bat ere egongo da, Alex Mendikutek antolatuta. Hain zuzen, Aramaioko jendea eta paisaiak agertzen diren argazkiak erakutsiko dira. Egitarau osoa 40. orrian dago.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Olentzeroren buruko minak

Urteko garai hauetan oso lanpetuta ibiltzen naiz. Haurren gutunak irakurri, opariak prestatu eta Euskal Herriko herri eta txoko guztietan zehar banatu behar izaten ditut. Beharbada, pentsatuko duzue lan erraz eta pozgarria dela, baina, sarri, neketsua ere bada.

Nire desira haurren irribarrea da, baina beti ez zait hura lortzea erraza egiten. Guztion ardura da haurrak heztea eta bizitzeara merezi duen bizitza egikaritu dezaten baloreak sustatzea. Gabon garaian ideiak oso argi izan behar izaten ditugu urdin-arrosaz banatuta dauden propagandak alde batera uzteko eta kontsumismoaren atzaparretan ez erortzeko. Txikiak direnean erraza da, oraindik Olentzeroren kontzientziarik ez dutelako, baina, koskortu ahala, kontraesanak dira nagusi. Nola ukatu neskato bati printzesa moztorra hilabete daramanean gauza bera amesten? Nola oparitu mutikoari printzesa moztorra, nahiz eta hilabete daraman gauza bera amesten?

Buruko minak buruko min, jai zoriontsuak eta urte berri on guztioi!



ARAMAIOKO UDALA

Horma konpontzen ari dira

Eguzkierripa auzoko Andra Mari ermitaren ondoan dagoen paretako konpontzeko lanak hasi ditu Arabako Foru Aldundiak. Horma zati bat jausi egin zen, eta, guztia jausteko arriskua zuela ikusita, Aramaioko Udalak eskaera egin zion Aldundiari. "Denbora dezente igaro da eskaera egin zenetik, eta, azkenean, hasi dituzte lanok", dio Lierni Altuna alkateak.

Jostailu ez sexistak identifikatzeko gida kaleratu dute

Gorbeialdeko Kuadrillako Berrintasun Sailak bultzatuta, jolas eta jostailuak aukeratzeko orduan, kontuan hartu behar diren irizpide eta gomendioen gida kaleratu dute. Neskak zein mutilak jolastu ahal izatea, haurren arteko komunikazioa ahalbideratzea, gehiegizko lehia eta indarkeria saihestea, eta abar bultzatuko da gidaren bitartez.

Beste urte batez, euskarazko produktuen alde

Udalak Euskarazko Produktuen Katalogoa banatuko du aurten ere eskolan -liburutegian ere egongo dira ale batzuk-. Haur eta gazteentzako produktuak batzen ditu katalogoak, eta zortzi ataletan sailkatuta daude: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika, jostailu eta jokoak, filmak eta gurasoentzako materiala.



Kiroldagiko aparkalekua eta eskola lotuko litzuzkeen arrapala bat egitea da Udalaren asmoa. ENEKO AZURMENDI

Arrapala bat, eskolarako bidea errazteko asmoz

Aramaioko Udalak diru laguntza eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari, San Martin eskolara joateko bidea irisgarri egiteko; kiroldegiko aparkalekuetako edukiontzietatik arrapala bat egin nahi dute; Jaurlaritzak udaberrian emango du erabakiaren berri

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Azken urteetan, San Martin eskola hobetzeko lanetan dabil Udala. Aurten erdisotua egokitu ostean, eskolarako irisgarritasuna hobetzea da hurrengo pausoa. "Eskolak ez dauka irisgarritasunik. Muino baten gainean dago eta eskaileretatik edo izkinako aldapatik igotzeko aukera dago bakarrik, baina alda pa hori ere nahiko latza da", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Horri konponbidea eman nahian, kultura etxetik eskolara malda bat jartzea aztertu zuen Udalak, "Ibarratik eskolara joateko bide naturalena hortik izango litzatekeelako". Hala ere, aukera hori baztertu egin behar izan du, legeak markatzen duen inklinazioa baino handiagoa dagoelako. Beraz, kiroldegiko aparkalekua eta eskola lotuko litzuzkeen arrapala bat egitea erabaki du Udalak.

Esan bezala, eskolara joateko irisgarritasuna hobetzea da helburua: "Bereziki, umeen karroa-

rekin doazen gurasoendako edota gurpil aulkian daudenendako eskolara joatea erraztu gura dugu horrekin, ez dezaten arazorik izan eskolara iristeko. Baina, oro har, irisgarritasuna guztiontzako da ona", azpimarratu du Altunak.

57.605 euroko diru laguntza eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, kantitate hori da lan horiek egiteko aurreikusten dena. Orain, proposamena aztertu egin beharko du Jaurlaritzak, eta erantzuna udaberrian jakinaraziko dio Udalari.

Eskolarentzat, "beharrezkoa"

Mari Carmen Garrido San Martin eskolako ikasketa-buruak adierazi duenez, irisgarritasuna

57.605 EUROKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA EGIN DIO UDALAK EUSKO JAURLARITZARI

hobetzeko erabateko beharra dago, eta arrapala egoki bat egitea "beharrezkoa" da. "Arazo handiak izaten ditugu eskolara iristeko. Abendu hasieran, elur pixka bat egin zuenean, arazo handiak sortu ziren. Gainera, ikasle bat dugu gurpil aulkian, eta harentzako eta haren familiarendako ez da batere erraza. Momentu hauetan, eskolarako sarbide bakarra daukagu, eta ez dago batere ondo", azpimarratu du.

Gainera, eskolarako sarbidea aparkaleku batetik egotea ere ez du egoki ikusten Garridok. "Eskolara sartzeko, autoen artetik ibili behar izaten dute haurrek. Oraindik ez da ezer gertatu, zorionez, baina arazoak sor ditzake horrek ere", dio.

Beste fase bat

Arrapala egin ostean, beste fase batean, beheko espaloitik arrapala horretarainoko lotura bat egitea da Udal Gobernuaren asmoa.



ALFONSO DEL CAMPO

Del Campo, binakako txapeladun

Duela hilabete, kadete mailako Arabako buruz buruko txapelketa irabazi zuen Asier del Campok, eta orain, binakakoan ere txapela eskuratu du, Joseba Letona gasteiztararekin batera, finala 22-16 irabazita. Domekan –abenduak 24– trinket txapelketako finalaurrekoa jokatu du Gasteizko Los Astronomos trinketea, 10:00etan, Axular Piconen aurka.



MIREIA BIKUÑA

Omenaldi borobila Undari

Maider Unda olinpiadak bukatzeko, Aramaioko alaba kutunak omenaldi hunkigarria jaso zuen pasa den egubakoitzean, bertso, dantza, eta abarrekin. Koikili Lertxundiren aurkako borroka erakustaldiarekin eskertu zien hark detailea. Otxandioko eta Gasteizko borrokalari gazteak ere egon ziren dagoeneko Maider Unda izena hartu duen kiroldegian.

Kuadrillak antolatzen duen Kulturgura lehiaketa martxan da

Zazpi galdera erantzun beharko dira, eta pertsona bakoitzak galdetegi bakarra egin ahal izango du zozketan parte hartzeko. Hain zuzen ere, erantzunak urtarilaren 5a baino lehen entregatu beharko dira udaletxean eta zozketa hilaren 9an egingo dute. Lehiaketako sariak eta oinarriak Goiena.eus webgunean daude ikusgai.

Samsic enpresak garbituko ditu eraikin publikoak

Urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da enpresa garbiketa lanak egiten, Udalarekin hitzarmena sinatu ondoren. Baldintzen ple-gua uda aurretik publikatu zen eta enpresa bakarra aurkeztu zen. Bi urterako kontratua sinatu dute bi aldeek eta beste bi urtez luzatzeko aukera dago. Urtean 62.070 euroko kostua du zerbitzu horrek Udalarentzat.

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzerapenak atzerapen, heltzeaz da eguna. Etzi, abenduak 24, irekiko ditu ateak lehen aldiz Seminarixoa aretoak. Luxuzko gonbidatuak izango ditu, gainera, aretoaren irekierak: Mari Domingi eta Olentzero. "Olentzero eta Mari Domingi enbaxadore aproposak izango dira txikiei eta nagusiei halako zeresan handia izango duen agertoki honen ateak zabaltzeko", uste du Kultura zinegotzi Maite Agirrek.

Jakinekoea da askotariko erabilerak eskaintzera datorrela Errege Mintegiko eliza zaharrean eraiki den Seminarixoa. Ondareari eusteko ahaleginak luzatu du itxaronaldia, Elena Lete alkateak gogora ekarri duenez: "Herritarroi luze egin zaigu agertoki berri hau bukatuta ikustea, baina aretoa bera ondarea izanik ondare hori zaintzeko ahaleginak luzatu ditu obra eta egokitzapen lanak. Tentuz eta mimoz egindako lan horri esker, Bergara erdi-erdian kokatuta dagoen XVIII. mendeko gure ondare garrantzitsuetako baten XXI. mendeko azpiegituraz hornitutako agertoki eder bat daukagu".

Zinema, irailetik aurrera

Arte ondarearen eta modernitatearen artean "ia ezinezkoa" zirudien oreka errealitate bihurtu dela uste du alkateak: "Bergarak dagoeneko badu diziplina anitzeko emanaldiak modu erosoenean eta baldintza egokienetan ikusteko eta entzuteko azpiegitura egokia". Hainbat herritarren aspaldiko eskaera izan da Bergaran zinema areto bat izatearena eta horretarako ekipamendua 2018ko irailerako egongo dela aurreikusten da; hain justu, Udal Gobernuak 80.000 euroko partida aurreikusten du datorren urteko aurrekonturako. Irailera arte, beraz, Zabalotegi aretoan izango dira zinema proiektzioak.

Emanaldiaren arabera moldatu

Eliza zaharretik egungo aretoa egiteko obraren eta ekipamenduaren aurrekontua izan da 2.322.633 eurokoa eta horietatik 1.435.089 euro lortu dira Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren diru laguntzetatik.

Aretoaren ezaugarri nagusia moldagarritasuna da. Agertokia erabat moldagarria da emanal-



Seminarixoko harmailak jasota; harmailak zabalik 254 lagunendako lekua egongo da. XABI URZELAI

Ikuskizunaz nola gozatuko zain

Itxaronaldi luzearen ostean, domekan irekiko ditu ateak Seminarixoa aretoak eta Udaleko Kultura Sailak eman du urtariletik abendura bitarteko programazioaren berri; Udal Gobernuak espero duenez, irailerako martxan egongo da zinema ekipamendua

Abendutik maiatzera bitarteko eskaintza

- **Abenduak 24** 18:30ean. Mari Domingi eta Olentzero.
- **Abenduak 26** 17:00etan. *Oa-Huetak* dantza ikuskizuna.
- **Abenduak 27** 18:00etan. *Do, re, mi family* ikuskizuna.
- **Abenduak 28** 17:00etan. Sun magoaren ikuskizuna.
- **Urtarrilak 3** 19:00etan. Gospel kontzertua: The Lord.
- **Urtarrilak 4** 19:00etan. Gospel kontzertua: The Upper Room.
- **Urtarrilak 12** 20:00etan. Musika: Amorante.
- **Urtarrilak 13** 19:00etan. Antzerkia: *Etxeko saltsak*.
- **Urtarrilak 20.** 19:00etan. Musika: *Shoah for solo violin and sacred temple*.
- **Urtarrilak 27** 18:00etan. Antzerkia: Jon Braun.
- **Otsailak 4** 12:00etan. Antzerkia: *Izar*.
- **Otsailak 10** 16:15ean eta 18:30ean. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.*
- **Otsailak 17** 19:00etan. Antzerkia: *Ez dok hiru*.
- **Otsailak 23** 20:00etan. Musika: Jabier Muguruza.
- **Otsailak 24-25** 16:30ean. Musika: *Kantari*.
- **Martxoak 3** 19:00etan. Musika: *Mozkorra parregarri*.
- **Martxoak 10** 19:00etan. Musika: HQ Quartett eta Susana Cordon.
- **Martxoak 17** 19:00etan. Antzerkia: *13 y martes*.
- **Martxoak 23** 22:00etan. Bertsolaritza: Erramu zapatu bezperako bertso jaialdia.
- **Martxoak 25** 19:00etan. Antzerkia: *Go!azen*.*
- **Apirilak 14** 19:00etan. Dantza: La Teta de Janet.
- **Apirilak 15** 17:30etan eta 19:00etan. Ipuin musikatua: *Erlauntzaren sekretua*.
- **Apirilak 21** 20:00etan. Musika: *Artxipielagoa*.*
- **Apirilak 28** 18:00etan. Antzerkia: *Euria*.
- **Maiatzak 5** 19:00etan. Musika: Voces de Cine.
- **Maiatzak 12** 19:00etan. Dantza: El fin de las cosas.
- **Maiatzak 13** 12:00etan. Haur ikuskizuna: *Kontukantari*.

*Frontoian izango da. Sarrerak: Internetez (Kutxabank) edo eguenero txarteldegian, 18:00etatik 20:00etara.



SEMINARIXOA

Kultura hazia, areto berrira

Manu Muniategiandikoetxea izan da logo berriaren egilea. "Pribilegio bat izan da niretako areto honen irudia edo aurpegia diseinatzea. Txikitako nire leku idealetako bat izanda, hainbat irudi etorri zitzaizkidan, eta behin Seminarixoa deituko zela jakitean, kultura eraikitze edo haziak ereiteko leku baten ikuspegitik begiratu diot irudiari hasieratik", dio. Irudia Bergaran sustraitutako ikur edo erreferentzia batetik abiatu behar zela argi zuen artista bergararrak: "Bergarako eskudoaren goialdean dagoen zortzi puntako izarretik abiatu dut irudia; euskal kulturaren denbora luzean erabilitako ikurra da. Hasierako hazien loreak zirenak tantaka bihurtzetik irten zen azken irudia; gogorra barrutik eta biguna kanpoaldean". Hain justu, a hizkia alderantziz duen *Seminarixoa* hitzera erortzera doan tantaka horrek islatu gura du kultura haziak areto berrian bukatzen duela.

"Kulturaren hazitegi" izan guran Seminarixoa izena jarri zaio, besteak beste, Udalak "kultura-aren hazitegi bat" izatea gura duelako: "Tamaina ezberdine-tako ikuskizunak ekarriko di-tugu baina, era berean, herriko kultura taldeek eta artistek ere bertan plazaratuko dituzte eu-ren sorkuntzak. Gure herriko kultura sortzaileek eta kultura zaleek merezitako lekua dau-kate". Hain justu, martitzenean egindako prentsa agerraldian kultura zinegotzi Maite Agirrek nabarmendu zuen "maila han-diko" agertoki bat lortu dela: "Aretoa bera ederra da, herriko ondare bizia, eta baldintzak eta azpiegiturak punta-puntakoak".

Txarteldegia zabalik eguenetan Urtarriletik maiatzera bitarte-ko eskaintzan musikak pisu nabarmena izango du -klasikoak, rockak eta popak, besteak bes-te-, baina lekua izango dute, baita ere, antzerkiak, dantzak eta umeendako emanaldiek ere. Hala ere, udaletik aditzera eman dutenez, lehen programazio hori -ikus 20. orriko taula- "oi-narri nagusia" da, baina horiez

gain ere izango dira beste eki-taldi batzuk, tartean herriko taldeek sustatuko ekimenak.

Sarrerak eskuratzeko bi bide egongo dira: Seminarixoko txar-teldegian, eguenero, 18:00etatik 20:00etara, eta ticket.kutxabank.es webgunearen bitartez. Hala, hilabeteko lehen egunean ha-siko dira saltzen hurrengo hi-labeteko emanaldietarako sar-rerak. Eta txarteldegian zein interneten eskuratu ahal izango dira edozein sarrera; ez da be-reizketarik egingo. Udaleko Kultura Sailak maiatzera bitar-tean aditzera eman dituen eki-taldien artean, sarrerarik ga-restiena zortzi eurokoa da.

Urtarrilaren 17an elkartzeko deia Kudeaketaren bueltan kezka agertu duen herritar talde bat saio ireki bat antolatu guran dabil urtarrilaren 17rako. Ingu-ruan martxan dauden beste "prozesu interesgarri" batzuk aipatu dituzte, esaterako, Oñati-ko Eltzia, Azpeitiko San Agus-tin edota Gernikako Astra eki-menak. "Aretoa nola, norekin eta zertarako?" galderari eran-tzun gura diote, besteak beste.

Ze espektatiba duzu areto berriaren irekierarekin?



ANDER BOLIBAR
ZIBERGARAKO KIDEA

"Oskola badaukagu, oso ondo, goazen mamiaz eztabaidatzera"


"Espektatiba gazi gozoak ditut. Bi itzal nagusi daude: zinema eza eta kudeaketaren gaineko informazio falta. Kultura ekimenak antolatzen ari den sektore handi bat baztertu egin da. Herritarrek lehenetsi behar dira, udal teknikari batek ezingo du-eta programazio herritar anitz bat osatu. Xaxau, kartzela zaharra, Jardun, Taun... zein paper izango dute? Kezka dugun herritar talde batek kudeaketaren inguruko saio ireki bat egin nahi dugu urtarrilaren 17an. Oskola badaukagu, oso ondo; goazen orain mamiaz eztabaidatzera".



VALEN MOÑUX
ESZENOGRAFIAN ADITUA

"Espazio eszeniko duina bada ere, ez ditu hutsune guztiak beteko"

"Hobekuntza nabarmenak sartu zaizkio 2015eako proiektuari; espazio eszeniko duina izango da. Ez ditu hutsune guztiak beteko; antzerkirako leku oso egokia da, baina musika jardueretarako oso mugatua. Sartzen diren ikusleak frontoiko beheko tribunako erdia baino gutxiago dira, eta hainbat formatu -bandak kontzertuak, musikalak...-frontoian egiten jarraitu beharko dugu. Programazioa lantzeko herritarren irizpideak jaso behar dira, baina ikusleen eskuetan egongo da espazio berri honen arrakasta".



UNAI AZKARATE
MUSIKARIA

"Ostalaritza zerbitzuek horrelako aretoen kalitatea hobetzen dute"

"Espektatiba altuak ditugu, behar handiak ase beharko ditu eta. Frontoian sartzen den jendea ez da sartuko, baina ez dut dudarik denetarik eskainiko duela; horri ere hartu beharko zaio neurria. Musika eskola, Goiko-Rock, orfeoi banda, abesbatza ezberdinak... oso inplikaturik egon beharko dira eta hori horrela izan dadin kultura mahaia estu egin beharko du lan. Bestalde, azkenaldian ireki diren halako aretoek ostalaritza zerbitzua eskaintzen dute; uste dut horrek emanaldiaren kalitatea bera ere hobetzen duela...".



Langile eta langabeentzat ikastaroak

	IKASTAROK	ORDURAK	DATAK
LANGILEEN LEHENTAKOIA (GANDU DUTEN IKASTAROK)			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
MF0009_2	UF0076: TREBEI-HARRIKETA BIDEKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZINAKETAREN TEKNIKAK, PLANOEI HARRIKETA	60	2018/01/10 - 2018/02/15
MF0009_2	UF0082: TREBEI-HARRIKETA BIDEKO MEKANIZAZIO-PROZESA GAZTATZEA ETA OPTIMIZATZEA, TOFINU A IRIBUIC	60	2018/01/15 - 2018/03/05
MF0009_2	UF0083: TREBEI-HARRIKETA BIDEKO MEKANIZAZIO-PRODUKTSIA GAZTATZEA	30	2018/03/05 - 2018/03/20
MF0009_2	UF0076: TREBEI-HARRIKETA BIDEKO MEK. ERAGIKETAREN HERRIKAK, TREBEIEN ETA ERREKIMENAK PROSTATZEA, MEKANIZAZIO KONTROLORIALA	60	2018/04/10 - 2018/05/20
MF0107_3	UF0452: FABRIKAZIO MEKANIKO PROZ. ERAGIKETAREN ERAGIKAK, SOLID WORKS	40	2018/02/05 - 2018/03/01
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKO PROZ. CAD-CAM PROGRAMARIK ERABILTZE	90	2018/03/05 - 2018/05/09
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
MF0420_2	UF0085: ELEKTRIZITATE-ERAGIKETAREN BEHE-IRATSKO INST. ELEKTRIKOAK MONTATZEA ETA MANTENTZEA	60	2018/03/05 - 2018/04/10
EL0003PO	ELEKTRIZITATEAREN ALDERDI ONARRITZIOAK	60	2018/01/10 - 2018/02/15
PRE0003PO	ROBOTIKA ORRUPAK	50	2018/04/10 - 2018/05/15
EL0004 IPO	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	60	2018/01/22 - 2018/02/27

	IKASTAROK	ORDURAK	DATAK
ADMINISTRATIBOA ETA KUDEAKETA			
UF0343	SOLDATATU-ORDAGARRIAK, KONTZERTAZIOA ETA ZERBATA-ERABAKETA	60	2018/01/15 - 2018/03/05
AD0003 IPO	FAKTURAPLANEIA, Fakturazioaren erregulazioa	35	2018/04/10 - 2018/05/03
AD0003 IPO	KONTABILITATEA	50	2018/04/10 - 2018/05/15
BESTE BATZUK			
	ORPEA-JASOTZAILEREN ERABILTZA	10	2018/01/17 - 2018/01/25
	ZUBI-GABARRIEN ERABILTZA	10	2018/01/10 - 2018/01/16
LANGILEEN LEHENTAKOIA (GANDU DUTEN IKASTAROK)			
MF0030_2	BULGOTIKA	100	2018/01/15
PRE0012PO	FABRIKAZIO ALERRETIATUA 4.0: PERFEKTSIOEN PROGRAMAZIOA	130	MARTXOAN

IBARGARAI 1, 20570 BERGARA
TEL: 943767049 - ikastaroak@maaltuna.com



MIGUEL ALTUNA
Lanbide
Heziketa
zure zubia

Nahiz eta ez den erraza beti eguneroko jarduna, hobetu asmoz amestu ohi da sarritan etorkizuna. Urtetan zehar izan ondoren askoren zubilaguna bi mila eta hemezortziak hau da ekarri diguna: Agur betiko Elementala ta kaixo Miguel Altuna!



Adostasuna frankismoko krimenei kereilak jartzeko

Diktadura frankistan herrian izan ziren krimenak ikertzeko eta biktimen senideei kereilak jartzeko laguntza juridikoa eskaintzeko mozioa aho batez onartu du udalbatzak, baita garraio publikoan izandako "murrizketak" salatzeke EH Bilduren eta Irabaziren mozioa ere

Jokin Bereziartua BERGARA

Frankismo garaiko gizateriaren aurkako krimen guztiak ikertuak izan daitezkeen kereila jartzea onartu zuen udalbatzak, aho batez, astelehenean egindako urteko azken osoko bilkuran. Elena Lete alkateak uste du erabaki "oso garrantzitsua" dela: "Intxorta elkartearen eta Josu Ibargutxiren eskutik egin dugu lan; Intxorta elkartearekin hitzarmena daukagu eta gai honetan gure txanda noiz helduko zain egon gara. Ekimen honen bitartez hainbat testigantza jasoko ditugu; aukera hori ematea oso garrantzitsua da eta ekimena gero borobildu egingo dugu kereila epaitegian aurkeztuta".



Aho batez onartu zen frankismoko krimenen aurka epaitegieta joatea. JOKIN BEREZIARTUA

Bergarako kasuak azaleratzera

EH Bilduko Agurne Barrusok ere Intxorta elkartearen lana goraipatu zuen: "Urrats inportantea da kereila hori sartzeko erabakia hartu izana. Bereziiki eskertu nahi dugu Intxorta elkartearen lana; euren lanik barik ez dugu uste hartu dugun erabakia hartuko zenik. Aho batez onartu izana pozgarria da guretako; ea Elgetak izan duen ibilbide bera dugun guk ere". Eta Irabaziko Aiert Lizarralde nabarmendu zuen gaia eskoletan landu behar dela, belaunaldi berriek zer gertatu zen jakin dezaten eta halako gertaerak errepikatu ez daitezkeen.

Mozioan jasotzen da, besteak beste, Bergaran izan ziren krimen guztiak iker daitezela eta herrian bertan salaketak jarri gura dituzten biktimei edo haien familiariekoei laguntza materiala eta juridikoa eskaintzea.

Boluko frontoia eztabaidagai

Bestalde, Boluko frontoia estaltzeko proiektuaren barruan izandako kreditu aldaketa batek eragin zuen eztabaida handien bilkuran. Ogasun batzordeak 120.000 euroko kreditu gehigarria

120.000 EUROKO KREDITU ALDAKETA ONARTU DA BOLUKO FRONTOIA ESTALTZEKO PROIEKTURA BEGIRA

onartzeko proposatu zion udalbatzari, eta onartu egin zen EAJren eta Alderdi Sozialistaren aldeko botoekin eta EH Bilduren zein Irabaziren abstentzioarekin.

Elena Lete alkatearen arabera, Boluko auzotarrek hainbat eskaera egin zituzten eurekin egindako bileretan: besteak beste, estalkia txukuna izatea, estalki horrek soinua tratatzeko zenbait osagai izatea, frontoiak itxiera bat izatea eta bertako irisgarritasuna bermatzea. Letek nabarmendu zuen proiektua orain dutela eginda: "Orain arte proiektua lantzen aritu gara. Auzotarrek adostutako konpromiso guztiak proiektuan islatuta daude, eta, hain justu, gure aurrekontuko zati garrantzitsu bideratuko dugu konpromiso horiek guztiak betetzera". Esleipen faseari hasiera urtarrean ematea espero dute eta

martxoan Udalak enpresa erakitzailen eskaintzak jasoko lituzke. EH Bilduk kritikatu zuen, besteak beste, obrak hasi aurretik hasierako aurrekontua baino 120.000 euro gehiago behar direla proiekturako. Aurrekontua 341.731 eurokoa da orain.

Garraio publikoa bermatzea

Amaitzeko, EH Bilduk eta Irabazik Debagoienan kalitatezko garraio publikoa eta "azken murrizketak" salatzeke mozioa ere aho batez onartu zen. Gobernuak uste du garrantzitsua dela bergararrei garraio publikoa bermatzea: "Azterketa eskatu genion diputatuari eta konpromisoa agertu zuen. Arlo honetan guk ez du kexa berezirik jaso, baina garraio publikoa bermatu egin behar da", dio Letek. Oposizioak pozik hartu zuen Diputazioa gobernatzen duten alderdi berberak izanik errekerimendu hori egin izana. Hala, Irabazik uste du herritarrek garraio publikoa erabili behar badute, merkeagoa, azkarragoa eta erosoagoa izan behar dela. Eta Lizarralde beste behin azpimarratu zuen mugikortasun plan integral baten beharra.



DANOBAT GROUP

Konpromiso sendoa euskararekin

DanobatGroup-ek Euskararen Egunaren harira antolatutako lehiaketaren aurtengo edizioan, Esther Lizarriturri eta Saioa Arrieta izan dira irabazleak; asteburu baterako egonaldia irabazi dute landa-turismo batean. Enpresak honako hau dio: "Euskararekiko konpromiso sendoa izango du DanobatGroup-ek aurrera begira ere: euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean..."

Napar feria bihar San Antonion, sukaldaritza lehiaketa eta guzti

Napar feria egingo da bihar San Antonio auzoan. Goiz osorako egitaraua prestatu du aurten ere Gure Ametsa elkarteak: feriarene irekitzea eta pintxo dastatzea (11:00); elkartearen arteko sukaldaritza lehiaketa (10:30-13:00); DJ Angie (10:30-14:30); meza (11:30); poneyak, zezentxoak eta jolasak neska-mutilendako (12:00-14:00); Gabonetako On Serafin Esnaola Postalen Lehiaketako sari ematea (12:30); Alai Taldea abesbatzaren emanaldia (13:00); saskiaren zozketa (14:30) eta bazkaria (15:00) izango dituzte. Sukaldaritza lehiaketan parte hartuko duten zazpi elkarteetako ordezkariak patatak olagarroarekin prestatu beharko dituzte.

OHARRAK

Jolas parkea martxan

Gaur, hilaren 23an, hilaren 29an, hilaren 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an Gabonetako jolas parkea izango da seminarioko patioan, Bergara Bizi ekimenaren eskutik. Txatxilipurdik asteburuko jolas ezberdinak antolatuko ditu jolas parkea irekita dagoen egunetan: ludoteka zerbitzua, balance bike zirkuitua, natura tailerra, sukaldaritza eta zirku tailerra, aurpegi margotzea, birziklatze tailerra... Horrez gain, ohe elastikoak izango dira frontoiaren atarian, urtarrilaren 7ra arte. Herriko dendetan banatutako txarteletan ageri da ordutegia.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Amodiozko gutunak, urtarilaren 8ra bitartean

Amodiozko Gutunen Lehiaketaren 26. edizioan parte hartzeko dei egin du Jardunek eta gogora ekarri du aurten bigarrenaz amodiozko gutunen lehiaketa ere antolatu duela; bestalde, bazkide berriak bilatzeko kanpaina abiatu du, eragileei begira

Jokin Bereziartua BERGARA

Amodiozko Gutunen Lehiaketaren 26. edizioan parte hartu gura duenak 2018ko urtarilaren 7ra arte izango du aukera. Horixe ekarri du gogora Jardunek, eta baita aurten bigarren urtez amodiozko esaldien lehiaketa antolatu duela ere. Esaldien lehiaketa izena emateko epea urtarilaren 25ean amaituko da.

Gutunen lehiaketa, 2003an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte eta aurkezten diren lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Nahi beste gutun aurkezteko aukera dago, baita aurreko urteetan sarituak izan ez diren gutunak ere. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orritan eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira; lanen luzera ezingo da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Gutuna posta arruntez bidali nahi dutenek egilearen datuak



25. edizioko irabazleen talde argazkia. JARDUN EUSKARA ELKARTEA

kartazal txiki baten sartu –izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea–, ondoren kartazal txiki hori eta gutuna kartazal handiago baten sartu eta bidali egin beharko da. Posta elektronikoz bidaltzeko, gutuna

fitxategi batean bidaliko da, *gutuna* izenarekin eta egilearen datuak *egilea* izena duen beste fitxategi batean. Posta arruntez bidaltzeko, hau da helbidea: Jardun Euskara Elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Berga-

ra (Gipuzkoa); posta elektronikoz, berriz, *amodiozkogutunak@gmail.com* helbidera. Argibide gehiago: 943 76 36 61 eta 605 71 24 69 telefono zenbakietan edota *www.jardun.eus* webgunean.

Guztira, 1.150 euro saritan

Gutunen lehiaketa lau sari banatuko dira: lehen saria 500 euro izango da; bigarren saria, 250 euro; bergarar onenarendako saria 150 euro izango da –lehen edo bigarren saria Bergarako norbaitek lortuko balu, bergarar onenarendako saria hurrengo bergarar onenari emango litzaioke–; eta 26 urtetik beherako onenaren saria ere 150 euro izango da –lehen edo bigarren saria 26 urtetik beherako norbaitek lortuko balu, saria hurrengo gazte onenari emango litzaioke–.

Bestalde, esaldien lehiaketa edonork har dezake parte eta esaldi guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute; Whatsappez zein SMS bidez (605 71 24 69) edota *amodiozkogutunak@gmail.com* helbidera bidali beharko dira.

Sari ematea otsailaren 14an egingo da, San Valentin egunean; Irizar jauregian izango da, 19:00etan. Lehiaketa jasotzen diren lan guztiak Jardun elkartearen esku geratuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukera izango du, betiere, egilea nor den garbi adierazita.

Eragileen artean bazkide bila

Bestalde, Jardunek bazkide berriak elkartzeko kanpaina abiatu du; oraingoan, eragileengan jarri du fokua: "Eragileok, herritarrek euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzen dituzue; Bergara euskalduntzea denon artean lortuko dugula sinesten dugu eta bidelagun izango zaituztegun itxaropenaz agurtzen zaituztegu".

Eragile horiei begira hiru bazkidetza mota proposatu dituzte: Jardunen bazkide direla erakutsiko duen txartel pertsonalizatua emango da 50 euroko laguntzaren truke; txartel pertsonalizatua eskuratzeaz gain, *www.jardun.eus* webgunean jarriko duten bazkide kolaboratzaileen atalean azalduko dira 100 euroko laguntzaren truke; eta azken aukera horretan jasotakoaz gain, eragile horretan euskararen erabilera soziala sustatuko duen tailerra eskainiko dute 300 euroko laguntzaren truke. Bi modu dituzte eragileek bazkide egiteko: eskuorriko fitxa bete eta Jarduni helarazita edo Internet bidez –<http://jardun.eus/egin-zaitetz-bazkide>–.

GUTUNEN LEHIAKETAN LAU SARI ETA ESALDIENEAN SARI BAT EMANGO DIRA; 1.150 EURO GUZTIRA

Zuzeneko emanaldi bereziak Gabonen etorrera ospatzeko

Gabonetako kontzertu nagusia bihar izango da frontoian (20:30), eta leihatila 19:30ean irekiko dute

J.B. BERGARA

Ez dago ulertzerik Bergaran Gabonen etorrera Bergarako Musika Bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatzak eskaintzen duten Gabonetako kontzertu barik. Aurtengoa 38. aldian izango da dagoeneko; emanaldia bihar izango da, Udal Pilotalekuan, 20:30ean hasita. Urtez urte arrakasta handia lortzen duen kontzertua da.

Oraindik kontzerturako sarrierarik eskuratu ez duenak bihar bertan izango du horre-

tarako aukera, leihatila 19:30ean irekiko dute eta. Helduen kontzertuaren aurretik, baina, Bergarako Musika Eskolako ikasleek txanda izango da. Gaur izango da urteroko ikasleek Gabonetako kontzertua, Udal Pilotalekuan, 18:30ean. "Dantza, musika, ikasleak eta irakasleak batera... denok egingo dugu bat herritarrei kontzertu ederra eskaintzeko", adierazi dute.

Orfeoi gaztea eta Sutargi

Bestalde, Bergarako orfeoi gazteak eta Sutargi abesbatzak



Gabonetako kontzertuaren amaiera, iaz. IMANOL SORIANO

Elkarrekin musikaz izeneko Gabonetako kontzertua eskainiko dute Seminarixoa areto berrian; abenduaren 30ean izango da, 19:00etan. Aitor Garitanoren zuzendaritzapean, metal eta perkusio taldeak eta Eli

Mendiaraz eta Leire Ugarte piano-joleek hartuko dute parte. Sarrerak Seminarixoko kanpoko leihatilan egongo dira salgai, aldeztu aurretik, hiru eurotan. Bihar goizean, entsegu orokorra egingo dute.

Eyharts-en emanaldia gaur gaztetxean, Betfest jaialdian

Eyharts proiektu interesgarri bezain ezohikoaren lehen zuzeneko izango da gaur gaztetxean (23:00), Betfest jaialdiaren barruan. Bergarako bikote batek osatua, musika elektronikoa eta askotariko irudiak nahasten dituzte, biak ala biak unean bertan, eta irudiari eta soinuari pisu bera emanda. Gainera, Bartzelonatik etorriko den Ene! bergarra eta udaberrian egin ohi den Bergarako Elektronika Topaketako (BET) DJetako batzuk ariko dira musika jartzen. Tartean, Balza, Keep a, Buda eta AitorMU. Horrez gain, gau osoan, Dodoma (Eibar) eta Annunaki (Bergara) bideojockeyen irudiek apainduko dituzte kartzela zaharreko hormak.



Martitzenean egindako ohiko osoko bilkura, Antzuolan. MAIDER ARREGI

Herriko bizikidetzari onarpena eta babesa

Bizikidetza lantzearen aldeko udal adierazpena aho batez onartu dute. Osoko bilkuraren ostean, EH Bilduk 2018rako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen. Urtarrilean eramango du Udal Gobernuak aurrekontua, onartu dezaten

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzenean egin zen urteko azken ohiko osoko bilkura. Hainbat hitzarmen onartu ziren. Batetik, kultura hitzarmenei dagokiena. Hala, Oinarin dantza taldeari, Alardearen elkarteari eta Alborada txistu taldeari diru laguntzak banatuko zaizkie. Hiru kultura taldeen artean sei mila euro banatzea onartu zuten, aho batez, EH Bilduk eta EAJk –Alderdi Sozialistako zinegotzia ez zen bertan izan–.

Bestetik, kirol hitzarmenean proposatutako aldaketa ere onartu zuten. "Kirol elkarteek, urte hasieratik orain arten egindakoaren memoria aurkeztu dute; Eta horren arabera banatuko dira diru-laguntzak. Hori da proposatu dugun aldaketa", argitu zuen Kirol zinegotzi Garaiz Larreak. Hala, proportzionalki, honelaxe banatuko zaie elkartei zazpi mila euroko diru laguntza: Aiastru taldeari 925 euro; AKERI 2.973 euro; Ariznoa gimnasia taldeari 326 euro; Arro-

la mendi taldeari 832 euro; Lokatza ziklismo taldeari 330; eta Olalde pilota elkarteari 1.612.

Era berean, 2016ko kontu orokorrak onartuta geratu ziren.

Bizikidetza lantzen

Bizikidetza proiektua bultzatzea eta babestea aho batez onartu zuten EH Bilduk eta EAJk. "Era-kunde ofizialen laguntza eta

errekonozimendua jasotzea ezinbestekoa da proiektua babesteko. Gertatutakoaren diagnosa egitea interesgarria da bizikidetzari bultzatzeko", esan zuen alkateak. Bestalde, EAJko Luis Jabier Telleriak azpimarratu zuen edozein herritarri irekia izatea garrantzitsua zela eta edozeinek parte hartzeko aukera zuela.

2018ko aurrekontu proposamena

Osoko bilkuraren ostean, EH Bilduk 2018rako aurrekontu proposamena jarri zuen mahai gainean. Esan beharra dago iazkoak baino 15.714 euro gehiago izango dituela –2.701.714 euro–. Proposamenen artean daude, besteak beste, landa bideen konponketarako 30.000 euro eta bide publikoen mantentze-lanetarako 100.000 euro bideratzea. "Zenbait bidek asfaltatzeko beharra dute, egoera kaxkarrean baitaude", azaldu zuen alkateak. Bidebarri mankomunitatera 167.700 euro inguru bideratuko ditu Antzuolako Udalak. "Premia eta beharra duten herritar guztigutiei laguntza iristea gura dugu". Herri lurak erosi gura ditu Udalak, eta 30.000 euro bideratuko ditu. "Herriak kudeatu ahal izateko erosiko dira lurak", gaineratu zuen alkateak.



Iazko 8 Miliak lasterketako irteera. GOIENA

A8M lasterketa otsailaren 18an egingo dute, seigarrenez

Urtarrilaren 7an zabalduko da ofizialki izen ematea 'www.kirolprobak.com' webgunearen bitartez

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak lasterketaren etorkizuna kolokan zegoen arren, herritar talde batek lasterketarekin aurrera egitea erabaki du eta A8M seigarrenez egingo dute datorren urtean, otsailaren 18an –domeka–.

Aurreko urtean bezala, herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz, doako hamar izen-emate zozketatuko dituzte antzuolarren artean, izen-emate ofiziala ireki aurretik. Bertan parte hartzeko, interesa dutenek posta elektronikoko bat bidali behar dute, izen-abizenekin eta kontakturako

telefono zenbaki batekin, helbide honetara: antzuolako8m@gmail.com. Zozketa abenduaren 30ean egingo dute. Irabazleak telefonoz eta [facebook.com/antzuolako8m](https://www.facebook.com/antzuolako8m) webgunearen bidez jakinaraziko dituzte. Izen-ematea urtarrilaren 7an zabalduko dute, kirolprobak.com-en, 09:00etan.

Egitaraua

10:30ean, helduen irteera izango da –16-17 urteko gazteek gurasoen baimena sinatuta bidali behar dute–; 11:00etan, minimotorren lasterketa; eta ostean, hamaiketako eta sariak.



GOIENA

Matz-Erreka eta Goizper, bikain

Urrezko Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso berri dute Matz-Errekak eta Goizperrek. Ziurtagiriaren helburua eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia, erabilera eta hizkuntzaren kudeaketaren estandarizazio maila egiaztatzea da. Aurreko astean jaso zuten Antzuolako bi enpresek aitortza, Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Badator Olentzeroren eta Mari Domingiren magia

Ekintza ugarirekin gozatzeko aukera egongo da Antzuolan ondorengo egunetan. Kirola, musika, kantua eta, nola ez, txikitxoendako ekintzak izango dira nagusi. 'Ez dot moztuko bizarra' taldeak ere kaleratu du Gabon egunetarako egitaraua

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gabonak iritsi dira. Ilusioz beteriko egunak, bereziki etxeko txikitxoendako, ate joka dau-de. Festa giroa eta opor egunak aprobetxatzeko, ekintza ugari antolatu ditu Antzuolako Udalak.

Musika eta kantua

Bihar, The Upper Room taldearen gospel kontzertuaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan. Gospel kanturik ezagunenak kantatuko dituzte, euskaraz eta ingelesez; ikuskizun parte-hartzailea izango da eta bertaratutakoak ez dira epel geratuko.

Domeka goizean, eskolako umeen eta gurasoen eskutik,



Olentzero eta Mari Domingi harrera egiten antzuolarrei. IKER AIZKORBE

kalejira egingo dute. Errekalde-tik abiatuko dira –euria eginez gero, eskolako patioan–.

Arratsaldean, 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingi jaitsiko dira San Josetik herrigunera. Horren ondoren, ekitaldi nagusia egingo dute plazan eta txikitxoek euren eskaerak egingo dituzte.

Kirola ere bai

Abenduaren 26an, betekada arintzeko aukera ederra izango dute antzuolarrek. Familia giroan, bikotean edo lagun artean, San Esteban krosean parte hartzeko aukera izango dute. Debagoieneko Gabon kopa ere jokatu dute gaztetxo pilotariak. Finala abenduaren 31n jokatu da, Antzuolan.

Urte berriari ongietorria kirola eginez emateko aukera ere izango da, Arrolan. Bertaratzen direnendako, salda eta txistorra egongo da.

Herriko txikiak

Abenduaren 28an, urtero legez, haur parkea jarriko dute, goiz eta arratsaldean, eskolako patioan. Eta urtarrilaren 2an, *Do, re, ni*

family dantza eta musika ikuskizuna eskainiko dute Torresoroa aretoan, 3 eta 12 urte arteko umeendako.

'Ez dot moztuko bizarra'

Ez dot moztuko bizarra taldeak ere Gabonetarako ekintzak antolatu ditu. Hala, abenduaren 24an, luntxa eta material salmenta egingo du Zurrategin, 12:30ean.

Abenduaren 25ean presoen aldeko elkarretaratzean parte hartzeko dei egin diete antzuolarrei, Zurrategin, 13:00etan. Eta abenduaren 29an, azken egubakoitzeko elkarretaratzea egingo dutela gogorarazi dute.

Abenduaren 31n, Antzuolako Sarek antolatutako ekimena izango da, 18:30ean, Zurrategin. –urtarrilaren 13ko manifestazioaren harira–.

Urteko lehen egunerako ere elkarretaratzea deitu dute, 13:00etarako, eta Bilbora joateko dei egin dute. "Bilbora joateko autobusean izena emateko aukera Aitz Garbin, urtarrilaren 11ra arte", azaldu dute.

(Ekintza guztiak, zehatzago, Gabonetako agendan, 40. orrian)



Goizperrek gabon jai zoriontsuak opa dizkizue guztioi.

Urte berri on! 2018

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Minztadura · Industria · Bioteknologia

Udal aurrekontua, zorra kitatzera bideratua

Elgetako Udalak 1.560.564,29 euroko aurrekontua onartu du 2018rako. Iraitz Lazkano alkateak esan du ordaintzeko dauden kalte-ordainek baldintzatzen dutela udalaren ekonomia. Oposizioak, aldiz, proiektu eta ilusio falta sumatzen ditu

Larraitx Zeberio ELGETA

EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin eta oposizioaren abstentzioarekin egin du aurrera 2018ko aurrekontuak. Iraitz Lazkano alkateak adierazi du Udalak ordaintzeko dituen kalte-ordainek baldintzatzen dutela aurrekontua, eta aldaketa gutxi dagoela aurrekoarekin alderatuta.

Langile gastuetan igoera txiki bat izango dela esan du; izan ere, soldatik igotzea onartu dute eta jardun erdiko Kultura eta Turismo teknikari lanpostua betetzeko asmoa du Udalak.

Zerbitzurik murriztu gabe gastu arrunta jaisteko kontratu mordoxka berrikusi dituztela ere adierazi du alkateak, eta inbertsioetarako iazko hasierako aurrekontuan baino %12,44 gehiago izango dutela. Guztira, 93.658,96 euro. Zerga orokorren %1,5eko igoerak eta Foru Fondotik etortzea aurreikusten den diru kopuruak igoko dute sarriren atala.

Dagoenetan, 2018ko aurrekontuak ez du Foru Araua beteko eta litekeena da plan ekonomiko finantzarioa eskatzea. 37.000 euro inguru estutu beharko lirateke egoera hori saihesteko.

"Aurrekontuaren %15 -ia 230.000 euro- bideratuko dugu



Udalbatza, aurrekontua onartzeko martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.

bai ala bai kalte ordainak-ordaintzera. Aparejadorearekin dugun bigarren auzi hori ere ordaintzen hasi beharko dugu hurrengo urtean. Horrek esan gura du zertan gastatu erabakitzeke daukagun tarte oso-oso txikia dela. Mugatzen da %6ra", azaldu du Iraitz Lazkanok.

Inbertsio nagusiak

Inbertsioen atalak 94.000 euro inguru aurreikusten ditu. Egitasmo garrantzitsuenak dira kiroldegiko aldagelak berritzea eta baserritarren batzordetrik

hainbat lan burutzea, tartean Mendrakorta baserriarako bidea egitea. Udalak, bestalde, egokitzapenak egingo ditu eguneko zentroan, medikuak orain arte erabili izandako etxebizitzan, Espaloian, Bolatokin, Herri Eskolan eta Haurreskolan. Udal webgune berria egin gura du Udal Gobernu taldeak eta ekipo informatikoak berritzen jarraitzeke asmoa du.

Oposizioaren abstentzioa

Aurrekontuak ez du oposizioa gogobete eta Gu Geu Elgetako

ordezkariak abstenitu egin dira. Uste dute mantenu edo biziraupen hutseko aurrekontua dela Udal Gobernu taldeak aurkeztu duena, eta proiektu, helburu eta ilusio falta sumatzen dute. Inbertsioen atalean aurreikusitako diru-lerro gehienek gastu korriente bokazioa dutela esan du Mikel Larrea bozeramaileak. "Aurrekontu proposamena ikusita, argi ikusten da Elgetako Udalak duen egoera nahiko larria dela. Kopuru eta partida hauek ezin dira eztabaidatu. Aurrekontu hau mantenu hutsa da, biziraupenerako aurrekontua. Nire ustez, ahalegina egin beharko litzateke sarrerak nonbaitek erakartzeko. Ilusioa badago zerbait lortzeko, bilatzen dira bideak, eta uste dugu Elgetako Udalean falta dela helburuak lortzeko ilusio hori". Espaloia

ere industrialdearen egoerak aipatu zituen.

Iraitz Lazkano alkateak erantzun zuen mugimendua egon badagoela eta egin beharreko irakurketa ez dela hain katastrofista. Onartu zuen Udalak duen zorra kitatzera bideratutako aurrekontua dela, ezinbestean. "Zentimora ibili gara eta irudimena botata gauzak azkenean irten egiten dira. Helburuak mila ditugu, plangintza estrategikoa ere bai, eta parte hartze prozesuan ere egin zen. Ideia mordoxka atera ziren bertatik. Batzuk, gainera, hala hola betetzen doazenak. Triste da, baina udaletxe honetan jaso dugun egoera da agintaldia bukatu orduko milioi bat euro zorretan ordaintzea. Triste da, baina aurrekontu honen helburua da jaso dugun zorra kitatzea".

2018ko inbertsio nagusiak

Kiroldegiko aldagelak:	26.100,00
Baserritarren batzordea:	20.000,00
Irisgarritasun lanak:	7.500,00
Domingo Iturbe lursaila:	6.000,00
Gizarte zerbitzuak, inbertsioak:	5.342,09
Web orria diseinatu:	5.056,89
Intxorta, garbiketa landaketa:	4.000,00
Etxea egokitu:	3.000,00
Espaloia egokitu:	3.000,00
Bolatoki egokitu:	3.000,00
Intxorta saila erosi:	2.500,00
Brigadako lan tresnak:	2.000,00
Eskolako inbertsioa:	2.000,00
Haurreskola:	1.000,00
Kaleko altzariak:	1.000,00
Kiroldegiko materiala:	1.000,00
Ekipo informatikoa berritzeko:	1.000,00
Ur putzuak:	159,98
GUZTIRA:	93.658,96

Iturria: Elgetako Udala.

Kutxa saria Eneritz Larreari

Kutxak ikasketa amaierako sariak eman ditu, eta Eneritz Larrea elgetarra izan da sarituetako bat. *Inprimatutako argitalpen eta multimedietako diseinua eta edizio* ikasketak amaitu zituen, iaz, Donostiako Ceinpro zentroan, eta ikasketak lanarekin batera uztartu zituen. Ikastetxeko espediente akademiko onena izan da.



KUTXA FUNDATZIOA

Hilerriko lanak geldirik, eguraldiak baldintzatuta

Hilerriko horma konpontzeko lanak geldirik daude oraingoz. Horma kendu egin behar da eta eguraldiaren eraginez lurra pisuak dagoenez obrako ardura-dunek arriskua ikusten dute lur mugimendua egoteko. Udal arduradunek adierazi dute baldintza klimatologiko hobeak daudenean jarraituko dutela horma konpontzeko lanekin.

Ipuin kontalari boluntarioen saioekin jarraitzeko gertu

Mila entzuletik gora izan dira Udal Liburutegian boluntario taldeak egindako ipuin kontalari saioetan. Saioak ere 50 baino gehiago izan dira. Eguaztenean elkartu ziren boluntarioak aurrera begirakoak aztertzeko. Hurrengo hitzordua urtarilaren 19an izango da. Saioak, aurrez aurre, 17:00etan hasiko dira, 16:40an beharrean.

1937an Intxortara bota eta lehertu ez zen bonba

Pieza berria dute Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan. Olatza baserriko sendiak 70 urtean gordetako bonba bat eman du dohaintzan. Intxorta 1937 kultur elkartearendako balio handikoa da Lucio Garaik emandako lekukotasuna

L.Z. ELGETA

70 bat urte pasa dira, baina Olatza baserriko seme Lucio Garaik (Elgeta, 1925) ondo gogoan du bonba etxera ekarri zuteneko eguna. "Urriak 12 zituen. 1948. urtea izango zen". Intxortako puntatik oso gertu ira mozten ari zela aurkitu zuen Modesto anaiak. "Erdi lurperatuta zegoen, eta lehertu barik. Hala eta guztiz ere, etxera garraiatzea erabaki zuen eta laguntzeko esan zidan. Idi pareak tira egindako gurdiaekin eta lerarekin joan ginen", azaldu du. Bonba, ordea, pieza oso pisutsua zen eta makina bat komeria izan zituzten etxeko ganbararaino eramateko. "Zabaldut egin genuen gero. Feliciano anaiak guk baino gehiago zekien lehergailuen inguruan, eta, kostata bada ere, haren laguntzarekin lortu genuen. Poltsa bat bolbora beltz eta hamalau bat kilo trilita zituen barruan", azaldu du. Orduetik hona, familiaren zaintzapean izan da italiar jatorria duen bonba. Orain, ordea, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroari dohaintzan ematea erabaki dute. "Gure etxean baino jende gehiagok ikusiko du museoa. Intxortako puntara bota zuten frankistek, eta hemen egon behar du", esan dute Olatzakoe.



Jon Etkezarraga eta Lucio Garaik, dohaintzan emandako bonbarekin, Elgetan. L.Z.

PIEZA GUTXI DIRA OSORIK ETA KONTSERBAZIO EGOERA HAIN ONEAN IRISTEN DIRENAK

Lekukotasun garrantzitsua

Bonbarekin batera gerra garaiko informazio ugari eman du Lucio Garaik. 11 urte zituen 1936an, eta frontea Olatza baserritik oso metro gutxira kokatu zen. Azaldu du milizianoek zaz-

pi hilabetez hartu zutela baserria babesleku modura, eta frontea jausi ostean amak bertan gelditzea erabaki zuela gerrara joandako semeak noiz itzuliko zain. Semeetako batek emandako errebolberrera poltsikoan zuela ibili omen zen asteetan. Zorionez, guztiak izan zituen bueltan. Gerra ondorena ere oso gogorra izan zen. Garaileek uztaren erdia kentzen zieten urtero, eta behin bi behi ere bai. Uztaren zati handiena ezkutatzeko etxeko horma bat hustu omen zuten gordelekua egiteko.

material gehiago egotea.

Lucio Garaik emandako lekukotasunari ere garrantzi handia ematen diote. "Fronteko lehen lerroan egonda oso gutxi genekien Olatza baserriaren gainean", esan du Nerea Villak. "Lucio Garaik gauza asko kontatu ditu. Egia esan, herri honetan ez da asko kontatu gerra ostea zelakoa izan zen. Karlitzak gelditu ziren herriko buru eta gainerako guztiak isildu zituzten".



Olentzero, Elgetan, iaz. L.Z.

Bihar arratsaldean jaitsiko da Olentzero Intxortatik Elgetara

Herri Eskolako umeen azoka eta musika ikasleen Gabonetako kontzertu berezia daude iragarrita gaurko

L.Z. ELGETA

Elgetako neska-mutikoez hitzordu garrantzitsua dute bihar, 18:30ean. Olentzerok jakinarazi du urteroko bisita egingo diela eta herriko plazan jasoko dituela gutunak.

Gaur, barikua, Gabonetako azoka berezia egingo dute, goizean, Herri Eskolako ikasleek. Barazkiak eta baserriko bestelako produktuak salduko dituzte. 5 urteko gelako umeek eskolan egindako jostailuak salduko dituzte. Iluntzean, musika ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute, Espaloian, 19:00etan.

Lorea Larrañagak eta Maitena Mañarikua gidatuko dituzte.

Guraso Elkarteak antolatuta, Gabon egunean, hilak 24, eskean irtengo dira elgetarrak. 11:30ean abiatuko dira Herri Eskolatik eta 13:00 aldera amaituko dute plazan. Txorizoa eta salda banatuko dituzte bertan.

Eguberri egunerako, berriz, mendi irteera antolatu du Kantatzeko Mendi Taldeak, Intxortara. Taldea 11:00etan abiatuko da, plazatik.

Zenbaki honetako agenda bateratua jasota daude Gabonetako gainerako hitzorduak.

PILOTA TXAPELKETA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Eneko Ormaetxea-Alain Valle	7-18
Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Oskar Sarasua-Andoni Elorza	5-18
I. Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Eneko Maguregi-Etor Garate	18-8
I. Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Diego Cantabrana-Txomin de Vega	18-9
Eneko Maguregi-Etor Garate / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	18-16
Oskar Sarasua-Andoni Elorza / Eneko Ormaetxea-Alain Valle	18-10

LIGAXKAKO SAILKAPENAK

40 URTETIK GORAKOAK

1	Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi
2	Iban Retolaza-Pello Larrea
3	Jose Mari Zubiaurre-Gorka Bolinaga
4	Iñaki Ugarteburu-Mikel Elgoro
5	Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea

40 URTETIK BEHERAKOAK

1	Oskar Sarasua-Andoni Elorza
2	Josu Mañarikua-Benat Arabaolaza
3	Eneko Ormaetxea-Alain Valle
4	Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga
5	Eneko Maguregi-Etor Garate
6	Oxel Erostarbe-G. Arizmendiarieta
7	Diego Cantabrana-Txomin de Vega

EMAKUMEZKOAK

1	Janire Lazkano-Nagore Ojanguren
2	Maitena Mañarikua-Uxue Larrea
3	Rebeka Ubea-Ainhoa Zeziaga

FINALERDIAK

BARIKUA, HILAK 22

1.	Iban Retolaza-Pello Larrea / Jose Mari Zubiaurre-Gorka Bolinaga
2.	Oskar Sarasua-Andoni Elorza / Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga
3.	Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elgoro Josu
4.	Josu Mañarikua-Benat Arabaolaza / Eneko Ormaetxea-Alain Valle

Bilaketa eta gordailu lana

Olatza etxekoek dohaintzan emandako pieza ikusgai dago interpretazio zentroan. "Funtzio bat eman diote jaurtigaiari", azaldu du Intxorta 1937 kultur elkarteak Jon Etkezarragak. "Herriarrek eta bisitariek bertatik bertara ikusiko dute hemen zer nolako materiala erabili zen". Urte hauetan guztietan material ugari pilatu dute Elgetan. Pieza berriaren

inguruan adierazi dute bere kalibrea 260 milimetro dela eta lehergaiarekin 222 kilo pisatuko zituela. "Berezia da osorik dagoelako; izan ere, ez zuen eztandarik egin eta Elgetako borroketan erabili izan ziren artilleria piezen artean handienetakoa da". Intxorta 1937 kultur elkarteak kideek diote oso litekeena dela etxeko ganbaretan gerra garaiko

Inbertsioekin hasteko asmoz

2018ko aurrekontua hurrengo urteetan erreferente izango diren exekuzioen hasiera egiteko modukoa dela uste du Udal Gobernuak, baina oposizioak dio planifikazio falta dagoela. Proiektu berriak eta lehengo jarraipenak daude zerrendan

Oihana Elortza OÑATI

Aurtengoa baino %2,13 handiago izango den aurrekontua izango du datorren urtean Oñatik: 18.777.979,05 euro. guztira. "Aurrezki arrunt garbia duen aurrekontua da, eta pozik gaude", azaldu zuen Mikel Biain alkateak. Oposizioaren ustez, baina, "planifikazio falta" dago.

Batera

Datorren urteko lanen artean dute, esaterako, kiroldegiko exekuzio plana egitea; 300.000

euro daude gordeta. "Aurrekontu hau bada inbertsio handietan sartzeko inflexio puntua markatzen duena. Egoera osasuntsu batetik abiatuta, hurrengo urteetarako erreferente izango diren exekuzioen hasiera egiteko modukoa", Biainen esanetan.

Kirol Sailak bezala, Gizarte Zerbitzuetakoak ere igoera izango du datorren urtean; larrialdietarako diru laguntzak, esaterako, %8 handiagoak izango dira. Kulturen, Santa

Ana antzokiko komunak, lurra eta kamerinoak berritzeko dirua gorde dute. Han egingo diren ekintzen sarrerak erosteko sistema informatiko bat jartzeko asmoa ere badute. Gazteria Sailak ere igoera izan du; ludoteka eta gaztelekuko kudeaketa kontratazioek pisu handia hartuko dute. Ludotekari aurpegia garbitzeko 5.000 euro dituzte.

Beste sailetan egingo dituzten proiektuen artean daude, esaterako: Zubillagaren urbanizazioa

bukatu (240.000 euro); Olaburun aparkalekua egin, saskiak eta nagusiendako jolasak ere izan ditzakeen jolas gune bat Kasa-blankan (100.000); bidegorrian komun publikoak jartzea (10.000); emakume kontseiluaren sorrera; Bidaurretatik Olakuara bitartean argiteria hobetu (90.000); Udaleko igeltseroendako retro bat erosi (72.000); San Lorentzo auzoko irisgarritasun lanekin jarraitu (240.000); Olan paisaia proiektuaren barruan San Martin auzoko Baratzeko Pikua gunea egin (100.000); eta Natura Eskola berriztatu. Urgaingo sotoa ere egokituko dute. 400.000 euroko aurrekontua du, baina %60 Eusko Jaurlaritzako diru laguntzarekin estaltzea da asmoa. Beste egitasmo bat Araotzen ostaturia egitea da. Lehengo nesken eskolan egingo lukete, baldin eta Europako diru laguntza jasotzen badute.

Bestera

Oposizioko udal taldearen ustez, baina, Udal Gobernuak "ez du planifikaziorik" eta "egonkortasun eta bideragarritasun segurtasunik ere ez",

Lourdes Idoiaga bozeramaileraren esanetan, hori izan da kontra bozkatzeko arrazoietako bat. Bestea izan da eurek egindako proposamen gutxi onartu dituela Udal Gobernuak: "Adin guztietako herri bizia eraikitzea izan da gure helburua".

Alderdi jeltzaleak egindako proposamenen artean daude, esaterako: kultur sariak antolatzea; Oñatiko hiztegia mugikorrean kontsultatzeko aplikazioa egitea; Urrutxuko atletismo pista; udal zerbitzuetarako leihatila bakarra; zapatu eta jai bezperetan udaltzain zerbitzua egotea; esperientziaren eskola sortzea eta bosgarren edukiontzia jartzea. Poztu ditu, aldiz, emakume kontseilua sortzea eta parrokiako abesbatzarekin akordioa egiteak, adibidez.

300.000 EURO GORDE DIRA 2018AN KIROLDEGIKO EXEKUZIO PLANA EGITEKO



«Komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzaren kristaletik ikusi eta kontatu beharra, eta eskubidea.»

Miren Amuriza

Izan **berria laguna**
Berria.eus/geroazugan

CEROA ZUGAN **berria**

Olaitturriko estalpea eta aparkalekua

Olaitturrin erabilera askotariko eraikina egin gura dute datorren urtean. Udal Gobernuak duen ideia da egungo lur zoruaren ingurua itxi eta estaltzea. Erreka parerainoko gunea hartuko luke eraikin horrek, 1.600 metro koadro, gutxi gorabehera. Ondoko jolas parke txikia ere egokituko egingo lukete, eta hamar ibilgailu inguru aparkatzeko tokia egin. Barrua nola egituratu erabakitzeko, hor egin daitezkeen ekintzen zerrenda egingo dute lehenengo, eta beharren arabera egokitu gero barrua.

Ibilgailuak

Egingo den eraikinaren azpian aparkalekua egiteko aukera ere



Olaitturri aparkaleku eta jolasleku moduan erabiltzen da egun. O.E.

badago. Udal Gobernuak, baina, uste du lur azpiko bi aparkaleku publikoak nahikoak direla herrian, eta, hau egitekotan, pribatua izango litzateke. Horregatik, inguruko bizilagunei

galdetu diete ea horren beharra ikusten duten eta ea ordaintzeko gertu egongo liratekeen. 72 plaza aurreikusten dira eta erosteko 60 eskari baino gehiago jasoz gero egingo dute.

Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak

Herrian hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko diru laguntzak emango ditu datorren urtean Udalak. Proba pilotu bat izango da. Erortzeko egoeran egon barik alokatzeko moduan ez dauden etxebizitzendako laguntza izango da. Diru horrekin obrak egingo dituzte etxe horretan, eta gero, alokairu sozialean merkaturatuko. Diru hori Udalak jasoko du emandako diru laguntza jaso bitartean eta gero jabearen eskuetara bueltatuko da etxebizitza. 100.000 euro gorde dituzte ekimen honetarako eta kalkulatzan dute 8-10 urte bitartean egongo liratekeela etxebizitza horiek alokairu sozialean.



Etxebizitza hutsak sartuko dira proiektu horretan. O.E.

Inkesta

Etxe hutsen jabeei galdetegi bat bidaliko die Udalak eta alokairuan sartzeko deialdia irekia izango da. Ze etxebizitza birgaitu daitezkeen eta nortzuk

dauden interesatuta ikusita hartuko dute erabakia erdiguneko edo kanpoaldeko etxebizitzak konpondu eta ze tamainatakoak. Bizpahiru etxebizitza sartuko lirateke.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2017	2018	%
Komunikazioa eta parte-hartzea	796.340,98	516.611,10	-35,13
Gizarte zerbitzuak	1.759.969,82	1.781.669,28	1,23
Kirola	1.213.269,03	1.460.579,17	20,38
Kultura	1.101.662,55	1.182.488,57	7,34
Barne antolaketa	6.603.600,20	6.532.977,43	-1,07
Sozioekonomia	571.210,44	551.239,26	-3,50
Lurralde antolaketa	5.407.080,48	5.416.592,80	0,18
Aisialdi hezitzailea	933.678,25	1.335.821,44	43,07

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



Foruen plazan hartuko dituzte umeak, joan den urtean moduan. GOIENA

Eguerdian datoz aurten Mari Domingi eta Olentzero Oñatira

San Anton plazatxotik abiatuko dira, herriko musikariak lagunduta, eta 12:30ean iritsiko dira Foruen plazara

O.E. OÑATI

Iluntzean ez, eguerdian iritsiko dira aurten Oñatira Olentzero eta Mari Domingi. San Anton plazatxoan elkartuko dira Jose de Azpiazu musika eskolako musikariekin, Haitzondo kua-drillako kideekin eta Algaraz elkartekoekin eta guztiak elkarrekin iritsiko dira Foruen plazara 18:30ean, umeei musu eman eta euren eskariak eta esatekoak entzutera."Iluntzeko hitzordua luzatu egiten da, eta, eguerdian ere Gabon giroa egoten denez kalean, pentsatu dugu aurten eguerdian gonbidatzea Olentze-

ro eta Mari Domingi. Proba izango da", azaldu du Kultura teknikariak, Edurne Soralezek.

Dantza

Olentzeroz eta Mari Domingiz gain, Gabon giroko musika emanaldiak eta kalejirak egongo dira datozen egunetan herrian. Baita antzezlanak, umeendako jolasak eta tailerrak, hitzaldia, kontzertuak eta urteroko kirol hitzorduak, adibidez. Gaur, egubakoitza, esaterako, *Encuentros* dantza emanaldia egingo du Denis Santacana konpainiak Santa Anan, 22:30ean.

Zamar bat landatuko dute bihar Errekondorekin Antixenean

Herri bazkaria eta kontzertuak ere antolatu dituzte biharko, gaztetxearen bosgarren urteurrena ospatzeko

O.E. OÑATI

Antixena gaztetxeak jaio zeneko bosgarren urteurrena ospatuko du bihar, zapatua, eta egun osoko egitaraua prestatu dute.

Hasteko bost eguna izena jarri diote biharko ospakizunari. 11:30ean egingo duten ekitaldi batekin hasiko dute eguna eta aurrekua eta topa egin ostean, zuhaitza landatzeari egingo dute; zamar bat landatuko dute. Jakoba Errekondorekin egingo dute eta ostean bere azken liburuaren aurkezpena egingo du Antixenean bertan usurbildarrak.

Eguerdiko poteoaren ostean, herri bazkaria egingo dute. Joan gura duenak oraindik badu aukera txartela erosteko. Ongi eta Arrano tabernetan daude salgai eta egunean bertan ere eskura daitezke. Arratsaldean, 16:00etan, nortasun agiri arrotzen jaurtiketa lehiaketa egingo dute eta 18:00etan hasiko da eguna musikaz girotzen. Ordu horretan poteo musikatua egingo dute eta 21:00etan hasiko den kontzertuan talde hauek joko dute: Zartako, Seletah Stepí (Bad Sound) eta Afari Meriendak.



Mutilen eta nesken txapelketak jokatu ohi dituzte areto futbolean. GOIENA

Gabonetan ez da kirol eskaintzarik faltako

Kirolaren bueltako zenbait hitzordu finkatu dituzte Gabonetarako, era guztietakoak. Ohiko kuadrilla arteko txapelketek eta San Silvestre lasterketaz aparte, eskubaloi saileko Euskal Selekzioaren zenbait partidu biltzen ditu eskaintza sortak

Iker Oñate OÑATI

Kirol hitzorduez lepo dator Gabon garaia. Ohiko ekintzez aparte egongo da nobedaderik aurtengoan: Euskal Selekzioko eskubaloi jokalarien zenbait partidu. "Herriari kirol eskaintza zabaltzea" dute helburu nagusi halako hitzorduek, antolatzailerik aipatutakoaren arabera. Bide horretan, era guztietako ekintzak topatuko ditu herritarrek, horiek gehienak, Zubikoan. Horiez gain, San Silvestre lasterketa egingo dute abenduaren 31n: 16:00etan hasiko da haurren lasterketa; 16:30ean, nagusia (informazio gehiago 32 orrialdean).

Kuadrilla arteko txapelketak

Urtero lez, kuadrilla arteko bi txapelketaz gozatzeko aukera izango dute oñatiarrek: areto futbolekoa eta saskibaloioa. Euskal Preso Politiko eta Errefuxiatuen Lagunak kolektiboak antolatu du horietan lehena, "euskal preso politikoen eta

iheslarien auzia gizarteratzeaz aparte, herriari kirol hitzordu berri bat eskaintzeko", azaldu dute antolatzailerik. Bide horretan, 27ko arratsaldean goizeko hirurak arte eta 28an goizeko zortzietan hasita egongo dira areto futboleko partiduak. Kanporaketa formatuan egingo dute txapelketa. Eta parte hartu gura dutenek aurrez eman behar dute izena, abenduaren 23ra bitartean, Arrano, Boga, Ona edo Ongi tabernetan.

Bestalde, esan bezala, saskibaloi txapelketa ere egongo da Gabonetan, Aloña Mendikoek antolatuta. "Saskibaloia bidez, lagunartean ondo pasatzeko da egitasmoaren helburu nagusia. Eta, oro har, lortzen dugu hori,

AURREZ EMAN BEHAR DA IZENA ARETO FUTBOL ETA SASKIBALOI TXAPELKETETAN

giro ona sortzen da", diote txapelketako antolatzailerik.

Guztira, lau talde sortzen dituzte izena eman dutenekin, euren artean joka dezaten. Ostera, taldeko lehen biek eskuratzeko kanporaketarako txartela. Zehatz esanda, abenduaren 29ean –egun osoan zehar– eta 30ean –goizean– jokatuko dituzte partiduak. Eta parte hartu gura duenak aurrez eman behar du izena, saskibaloi saileko kideei jakinaraziz.

Gazteen eskubaloi partiduak

Aurten, berrikuntza moduan, Euskal Selekzioko zenbait eskubaloi taldek jardungo dute Zubikoan, abenduaren 30ean. Tartean, gazte mailako emakumeek eta mutilek dituzte hitzorduek. Batetik, Errotaberri taldearen kontra jokatu du emakume taldeak, 17:00etan hasita. Eta, bestetik, 19:00etan hasiko da mutilen partiduak; Amenabar Zarautz izango dute aurkari.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Albiste baten ondorenak

Sutzen garenean hamarreraino kontatu behar omen dugu ezagutzen ez dugun hizkuntza batean; horrela, zenbaki horiek asmatzen dihardugun bitartean gure barruko amorrua baretuko ei da. Bakea galdu dut aste honetan Gipuzkoan salduena den egunkarian irakurri dudak notizia batekin. Foru Aldundiak mendekotasun legean aldaketa batzuk egitea proposatu du. Berriaren arabera, dena da hobekuntza, aurrekontuaren igoera eta diru laguntzen gehitzea. Baina albiste sakonki irakurrita konturatu naiz mendekotasun maila altuena dutenek gaur egun jasotzen duten diru laguntzaren %20 galduko dutela. Argitaratzen ez dena existitzen ez den heinean, familiak berri honekin sentitzen duena bakardadea da, gutxiespena. Neurria proposatu duenak ere ez ditu aintzat hartu mendekotasun handiena dutenak eta haien familiak, haien beharrak eta zailtasunak. Aste honetan hizkuntza arrarorik asmatzen aritu beharrik ez dut izan, baretzeko GOIENAN idatzi ahal izan dut eta. Gomendatzen dizuet esperientzia. Beste barik. Eguberri on guztioi.

Salgai jarri dute pilota sailaren 'Barru' dokumentala

Mende erdia egin duela eta, *Barru* dokumentala kaleratu du Aloña Mendiko pilota sailak, atzera begirakoa ikusarazi guran; azaroaren 25ean aurkeztu zuten, Santa Ana antzokian. Orain, herriko hainbat gunetan egongo da eskuragarri: Txokolateixan, Aloña tabernan eta Akerren. Gura duenak 10 eurotan eros dezake.

Erostarbe eta Cueva, Gipuzkoako txapelkun ziklo-krosean

Gipuzkoako txapelkun maillota euren egin dute Garazi Erostarbek –junior kategorian– eta Unai Cuevak –kadete kategorian–. Oñatin jaso zuten aitortza, Urrutxuko zirkuituan eginiko ziklo-kros proba bukatu ostean, sari banaketa ekitaldian. Oro har, Aloña Mendikoak "pozik" dau de gazteek aurten emandako mailarekin.



ALOÑA MENDIKO ATLETISMO SAILA

Babesleari eskerrak

Aloña Mendiko atletak babesteko erabakia hartu du, bigarrenaz, ile apaindegiak. Hori horrela, babesletza eskertu gura izan dute sailekoek, ile apaindegiaren logoa duen kamiseta kaleratuta. Hain zuzen, alebin eta infantil mailetan diharduten neska-mutikoei erabiliko dute elastikoa, entrenamendu saioetan.



ETS musika taldea, kaleratu berri duten lanaren aurkezpen ekitaldian. ETS

ETSren egitasmo berria, estreinakoz, gaztelekuan

Orain arteko ibilbidearen errepasoa eta hausnarketa egin guran, saio esperimentalei ekingo die En Tol Sarmiento musika taldeak. Tartean, Oñatiko gaztelekuko agertokian izango da, hilaren 29an, 18:30ean hasita. Jada eskuragarri daude sarrerak

Iker Oñate OÑATI

Hamabi urteko ibilbidean gertoki berri bat probatzea erabaki du En Tol Sarmientok, Arabako Errioxako musika taldeak: arnasa hartu eta hausnartzea dago orain, sorreraren nondik norakoak eta orain arteko ibilbidea zelakoa izan den ikustea. "50 minutu inguruko ikus-entzunezko batean jaso dugu hori. Eta horrekin hasiko ditugu emanaldiak. Gero, ikusleen iritzia eta zalantzak entzun, errekin berba egin eta hainbat pieza eskainiko ditugu, akustikoan", argitu du Iñigo Etxezarretak, taldeko abeslariak. Abenduaren 29an jardungo dute herriko gaztelekuan, 18:30ean hasita; proiektu berria eskaintzen duten estreinako aldia izango da hori. Eta jada eskuragarri daude sarrerak, 3 euroren truke; gaztelekuan bertan lor daitezke.

Esperimentatzeko proiektua
Martxan dutena ez da ohiko proiektua; eta emanaldi birak

ez du luze joko. "Bost edo sei emanaldi eskainiko ditugu, gutxira", argitu du Etxezarretak. Esan bezala, Oñatiko gaztelekua da bira horretako lehen geltokia. "Aurretik ere egondakoak gara bertan, eta, proposamena jaso genuenean, baiezkua eman genuen, birritan pentsatu barik. Izan ere, ezagutzen dugu aretoa, oso aproposa da landu gura dugun formaturako", dio.

"Badakigu gure jarraitzaile gehienak gazteak direla, baina proiektu berria ez da horientzat bakarrik. Horiez gain, musikazale oro gonbidatu gura dugu", gaineratu du. Beraz, musika gustuko duen pertsona orori zuzenduriko emanaldia da datorren egubakoitzekoa.

SORRERAREN NONDIK NORAKOEZ ETA ORAIN ARTEKO IBILBIDEAZ HAUSNARTU GURA DU EN TOL SARMIENTOK

Ostean, ibilbidean aurrera

Gauzak horrela, En Tol Sarmientokoek orain artean landu ez duten formatuarekin jardungo dute gaztelekuko agertokian. Hori bai, kideek argi dute, esperimentzia berria dastatuta, musika egiten jarraitu gura dutela. Beraz, orain arteko zikloa itxi, eta bilakatzen jarraitzea litzateke asmoa. "Harrera ona izan du orain arteko formatuak, jendearen babesa nabari dugu, duda barik. Baina ziklo bat itxi eta eboluzioari ekiteko gogo dugu. Azken finean, zer egiteko kapaz garen ikustekoa", argitu du Etxezarretak.

Urtarrilean hainbat kontzertu

Bestetik, dagoeneko iragarri dituzte urtarrilean gaztelekuko agertokian jardungo duten zenbait talderen izenak. Besteak beste, Governors eta Kimera musika taldeak izango dira urtarrilaren 6an; eta, Glaukoma eta Autobus Magikoa, oster, hilaren 19an.

Bidean aurrera segitzen du 'Pinotxo, hariekin lotu gabe'-k

Agertoki handietan jarraituko dute Ganbara Txikikoek; Bilbo eta Iruñea dituzte hurrengo antzezleku

I.O. OÑATI

Pinotxo, hariekin lotu gabe musikarekin segitzen dute Ganbara Txikikoek, baina ez luzerako. Bada, Bilboko Euskalduna jauregian-abenduaren 27an, 17:00etan- eta Iruñeko Gayarre antzokian-urtarrilaren 3an, 18:00etan- dituzte finkaturik hurrengo hitzorduak. Zehatz esanda, azken horrekin itxiko dute musikaren antzezpen bira. Gura duenak eskuragarri ditu sarrerak, antzezleku horien webguneetan.

Musikaren bueltan dihardutenak "pozik" dira *Pinotxo, hariekin lotu gabe*-k orain artean eman duenarekin. "Oso emanaldi arrakastatsuak izan dira", diote. Eta eskerrak eman dizkiete musikala eskaintzea posible egiten dihardutenei, "presatu, muntatu eta, ostean, josten laguntzen dutenei, tartean".



Pinotxo, Kursalean. GANBARA FAKTORIA

Goiena telebistan, ikusgai

Goiena telebistan ere egongo da musikala ikusteko aukera. Interesa duenak honako egun hauetan izango du ikusgai: abenduaren 29an -21:00etan-, 30ean -16:00etan- eta 31n -12:00etan zein 20:45ean-.

Herriko festen giroa agertokian, Potx eta Lotx pailazoen bidez

Potx eta Lotx pailazo oñatiarrek estreinakoz zapalduko dute agertokia, *Herriko festetan* ikuskizunarekin: Oñatiko gaztelekuan jardungo dute abenduaren 28an. Gaur-gaurkoz, emanaldi bakararra dute aurreikusirik, 17:00etan hasiko dena. Hala ere, lehen hitzorduko sarrera guztiak agortuz gero, beste emanaldi bat eskainiko lukete,

19:00etan. Interesa duenak jada eskuragarri ditu ikuskizuneko sarrerak, gaztelekuan bertan, 3 eurotan.

Esan bezala, datorren egue-nekoa estreinako emanaldia izango dute Potxek eta Lotxek. Gaur artean, dena den, herri-tarrek izan dute euren berri: bideoklipa eta diskoa kaleratu dituzte. Durangoko Azokan aurkeztuta, abesti sorta salgai jarri dute herriko Kiku eta Mizke goxoki dendetan, 10 euroren truke.

Zubillagaren historia biltzen duen lana, liburu dendetan

Antxinako Zubillagari begirada bat bataiatutako liburua eskuragarri jarri dute herriko liburu dendetan-Aritza eta Altuna-; Zubillagaren atzera begirakoak biltzen ditu. Ekainaz geroztik eskuragarri dago argitalpena; gaur artean, Turismo Bulegoan eta Txokolateixan bakarrik.

Zehatz esanda, Eli Igartzabal eta Axun Villar auzotarrek

Ereitten auzo elkartearen eta Artixaren laguntzarekin landutako lana da. "Guk umetan ezagutu genuen Zubillaga hori nolakoa zen jaso gura izan dugu, gaurkoek eta ondorengoek jakin dezaten zenbat eta nola aldatu diren gauzak. Uste dut lortu dugula", dio Axun Villarrek, liburuaren egiletako batek.

Zehatz esanda, argazki zaharrak, auzotarren esanak, antzinako baserri zein ofizioen gainekoak eta gaurkoak ezagut daitezke liburuan.

Mila lagunek agurtuko dute urtea korrika eginez

ATLETISMOA Bergarako San Silvestre Trail lasterketak emakumezkoen parte-hartzea bikoiztuko du, eta, gainera, Maite Maiora eta Oihana Azkorbebeitia izango dira proban. Baina sansilvestreak ez dira Bergaran amaituko

Xabier Urzelai BERGARA

Urteko azken eguna korrika eginez amaituko dute debagoien-dar askok. 375 lagunek Bergarako San Silvestre Trail lasterketa –Peugeot Etormobil Saria– aukeratu dute, baina asko dira arratsaldean Oñatira, Eskoriatzara edo Aretxabaletara joango direnak.

Bergaran, hasteko, errekor bat hautsiz agurtuko dute 2017a: "Aurtengo edizioan emakumezkoen presentzia areagotu gura izan dugu. Iaz 34 emakumezko izan genituen, eta, kopuru hori handitzeko, bikote mistoen lasterketa ere egitea pentsatu genuen, eta arrakastatsua izan da, guztira 74 emakumezko izango ditugu-eta proban", adierazi du Hankaluzetrail taldeko Josu Letek.

Puntako erreferenteekin batera San Silvestre trail herri mailako lasterketa da, baina aurrean mundu mailan aurrean ibili diren Maite Maiora eta Oihana Azkorbebeitia izango dira irteera puntuan: "Maiora guk gonbidatu genuen, gure babeslearekin ere hartu-eman duela, eta guretako plazera da bere mailako lasterkari bat irteera puntuan izatea. Pentsa, Zegama-Aizkorrin errekorra egin du,



lazko lasterketaren une bat; korrikalariak aldapa behera. XABIER URZELAI

"EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA AREAGOTU GURA IZAN DUGU SAN SILVESTRE TRAIL LASTERKETAN"

Sky Extreme Munduko Kopa eta Overall Munduko Kopa irabazi ditu... Palmares izugarria du. Eta bestalde, sorpresa pozgarria hartu dugu ikusi dugunean Oihana Azkorbebeitiak izena eman duela lasterketan, Mun-

duko Sky Kopan onenekin batera ibili da lehian eta ez daki-gu Bergarara ze asmorekin etorriko den. Bada, konturatu orduko, mundu mailako puntako bi lasterkari izango ditugu gurean, nahiz garbi daukagun zer-nolako lasterketa den gurea: herri mailako lasterketa da".

Nagusien lasterketa (12:00) baino ordu erdi lehenago lasterketa solidarioa egingo dute, gaztetxoenei zuzenduta: "Elikagaien bankurako janaria batzea da asmoa, eta janaria ekartzeko eskatuko diegu herritarrei".

ESKUBALOIA Ford Mugarri zapatuan du atzeratutako lehia

Azaroko azken asteburuan bertan behera utzi behar izan zuten Ford Mugarri Arrasatek eta hirugarren postuan dagoen Siglo XX taldeek jokatu beharreko partidua. Uribe auzoa –eta ondorioz Iturripeko kantxa– argi barik geratu zen, eta bertan behera utzi behar izan zuten norgehiagoka. Bihar, zapatua, jokatu dute, Iturripen (18:15).

FUTBOLA Bergarako Gabonetako gazte mailako torneo gaur

Gaur, hilak 22, jokatu dute, Ipintzan, Bergarak antolatzen duen gazte mailako 28. Gabonetako futbol txapelketako finalerdiak. Alavesek eta UDAk jokatu dute 16:30ean eta Bergarak Realak hartuko du 18:30ean. Finala, berriz, bihar, hilak 23, jokatu dute. Partidua 16:00etan izango da, Agorrosinen.

FUTBOLA Gertu dituzte Bixente Etxeandiarren eta Txelisen torneoak

Mondrak eta UDAk gertu dituzte kategoria txikiei begira egiten dituzten Gabonetako torneoak. Abenduaren 30ean, Txelisen omenezkoan, infantil mailako talde mordoa batuko dira Mojategin (finala 13:30). Ibarrako futbol zelaian, berriz, abenduaren 26an, 27an, eta 28an –finalak– jokatu dituzte Etxeandiarren omenezko partidua.

SASKIBALOIA Ointxe!k hainbat hitzordu ditu Gabonetarako

Bihar, hilak 23, Mini Basket Festa Handia ospatuko dute: "Taldea askok eman dute izena, arrakastatsua izango da". Abenduaren 28an, berriz, hiruko saskibaloia txapelketa egingo dute eta urtarilaren 3an emakumezkoen goi mailako partidua izango da: IDK-Araski (19:30). Hitzordu guztiak Iturripen dira.

ATLETISMOA Hilaren 26an San Esteban krosoa Antzuolan

Datorren martitzenean egingo dute, hilak 26, San Esteban krosoa Antzuolan. Hainbat kategoriatako lasterketak egingo dituzte. 17:30ean 5 eta 8 urte bitarteko gaztetxoendako lasterketa egingo dute. 17:45ean, benjaminen, alebilen eta infantilen txanda izango da, eta 18:00etan izango da helduen txanda –kadete mailatik gora–.

FUTBOLA Realak, Eibar eta Debagoieneko selekzioa 30ean

Arizmendik antolatzen duen Emakumezkoen Gabonetako Futbol Torneoak egingo dute abenduaren 29an eta 30ean Ibarren. 29an Gipuzkoako klub askotako ordezkariak izango dira kategoria txikietako partidua jokatzeko. Hilaren 30ean, berriz, hiruko torneoak jokatu dute talde nagusiek (10:30).

XAKEA Arrasate Hiria torneo 26tik 30era bitartean

Gabonetako oporraldia aprobetxatuta, Arrasate Hiria Xake Torneoak nazioarteko maisuak batuko ditu abenduaren 26tik 30era bitartean Arrasaten. Suitzar erara jokatu dute torneoak, eta bost txanda izango ditu guztira. Hala, saio guztiak 17:30ean hasiko dituzte, Jose Luis Iñarran duten egoitzan. Irabazleak 650 euro irabaziko ditu.

Eskoriatzan, Oñatin eta Aretxabaletan

Eskoriatzan brindisa egingo dute (17:25) Silbestre-ko aurretik, eta goizean gazteendako lasterketak izango dituzte. Aretxabaletan (17:00) moztarotuta egingo dute korrika eta ordu erdi lehenago gazteendako lasterketa izango dute. Eta, seguruenik, Oñatik batuko du jende gehien irteera puntuan (16:30). Ordu erdi lehenago gazteak lehiatuko dira



Korrikalari kuadrilla, Oñatiko kaleetan korrika. GOIENA

Euskadiko eta Marokoko selekzioak aurrez aurre

ESKUBALOIA Abenduaren 27an bi selekzio horien arteko partidua girotuko ditu Oñatiko Zubikoako harmailak (18:30). Gabonetan eskubaloia bueltan beste hainbat hitzordu izango dira, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin

Xabier Urzelai OÑATI

Eskubaloiko goi mailako partidua gozatzeko aukera egongo da abenduaren 27an, eguaztena, Oñatin (Zubikoa, 18:30). Asobal mailako atsedendia aprobe-txatuta, Euskal Selekzioaren eta Marokoren arteko partidua antolatu du federazioak, eta, Oñatiko norgehiagokaren ostean, bi talde horiek Lezon jokatu dute bigarren lagunartekoa, azaroaren 28an. Sarrera 8 euro da –nagusienak– eta 5 euro, berriz, gazteendako.

Eskubaloia gehiago Gabonetan

Arrasaten, Ford Mugarrik bihar Siglo XX taldearen kontra joka-

tuko duen atzeratutako partidarekin batera (ikus 32. orria) beste hitzordu batzuk ere izango dira Gabonetan. Hala, abenduaren 30ean Urolako eskubaloia taldearekin batera torneo antolatu dute Arrasaten. 11:00etan infantilek jokatu dute Zumarragakoen kontra, eta 12:15ean izango da kadeteen txanda.

Bergaran, bihar, zapatua, Eskubaloia Egunarekin hasiko dituzte Gabonak. Goizean, infantilek, kadeteek eta gurasoek partidua jokatu dituzte, eta arratsaldean beterranoen partidua izango dituzte, Labegaraetan. Hilaren 27an eta 28an, berriz, emakumezkoen eskubaloia txapelketa egingo dute, eta Duran-

goko Ibaizabal, Ordizia eta Aloña Mendi gonbidatu dituzte. Hilaren 27an, 10:30ean Ordiziak eta Aloña Mendik jokatu dute, eta 12:00etan Ibaizabalek eta Bergarak. 28an, berriz, 10:30ean bezperako galtzailek jokatu dute, eta eguerdiko hamabietan irabazleek.

Eta, urtarrilaren 7an Eibarko eta Bergarako nesken arteko partidua aurreikusi dituzte, 10:00etan hasita.

Oñatin, berriz, Euskal Selekzioa zenbait eskubaloia taldek jardungo dute Zubikoan, abenduaren 30ean (informazio gehiago 30. orrian).

PILOTA Eskuz binako txapelketa barruan, santamasetan

Gaur, egubakoitza, pilotari profesionalen jaialdia izango da Arrasaten –Uarkapen, 18:00etan hasita–. Eskuz binako txapelketa barruan, Bengoetxea VI.ak eta Larunbek Irribarriaren eta Merino II.aren kontra neurtuko dituzte indarrak. Aurreko partiduan, Retegi Bik eta Jaunarenak Jaka eta Erostarbe izango dituzte aurrean.



Oinatz Bengoetxea. GOIENA

PILOTA Hilaren 30ean Bergaran, eta 31n Antzuolan

Batetik, abenduaren 30ean Gabon Sariko finalak jokatu dituzte Bergarako frontoian. 16:00etan hasiko dituzte partidua, eta, lehenengo, barrutik jokatu dute. Aurten, berriz, Antzuolan jokatu dituzte Gabonetako Pilota Topaketetako finalak. Abenduaren 31n izango dira partidua, goizez.

SASKIBALOIA Campusa egingo dute Eskoriatzan

Urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean, Areskok antolatutako Gabonetako campusa egingo dute kiroldegian. 2005-2009 bitartean jaiotako jokalariek guztiek dago zuzenduta. Izen-ematea 65 euro da, eta egunero bost euroko saioak egingo dituzte. Gaur, hilak 22, da izena emateko azken eguna (666 82 55 56 telefono zenbakira deituta).

by ganbara faktoria

Pinotxo

hariekin lotu gabe

Pinotxo hariekin lotu gabe ikuskizuna etxean izateko modua aurkezten dizugu. DVDa eta CDa Arrasateko eta Oñatiko Eroskin eta Oñatiko Txokolateixia interpretazio zentroan aurkituko dituzu. Horrez gain, posta elektronikoz eskatzeko aukera ere baduzu: idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com.

Gainera, zuzenean ikusteko bi aukera dituzu oraindik: abenduaren 27an Bilboko Euskalduna Jauregian eta urtarrilaren 3an Iruñeko Gayarren. Sarrerak *on line* salgai areto bakoitzaren atarian.

Arte desberdinekin ere osa dezakete artxipelago bat

Musika, bertsolaritza, narrazioa, abestia eta bideo-proiektzioak uztartzen dituen 'Artxipelagoa' emanaldia eskainiko dute bihar –zapatua– 20:00etan, Amaia antzokian, Arrasateko Udalak eta Santamas Komisiñoak elkarlanean antolatuta

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ainhoa Garmendia sopranoak, Pello Ramirez txelo eta eskusoi-nu-jotzaileak, Garikoitz Mendizabal txistulariak, German Ormazabal piano-jotzaileak, Andoni Egaña bertsolariak eta Belen Ibarrola artistak osatzen dute *Artxipelagoa* emanaldia. Hau da, arte ezberdinak uztartzen dituen ikuskizuna da. "Artxipelagoak badu ezaugarri hori. Irla txiki asko dira, baina osotasun bat lortzen dute guztien artean. Elkartzen ditu bereizten dituenak. Kasu honetan, sormena izango litzateke itsasoa", azaldu du Andoni Egaña bertsolariak.

Artxipelagoa sortzeko lehengo ideia German Ormazabal piano-joleak izan zuen eta hark pentsatu zuen zein elementuk osatuko luketen artxipelago hori. "Urte honen hasieran hasi ginen elkartzen. Pixkanaka, emanaldia lantzen joan ginen, bakoitzak ze ekarpen egin zezakeen aztertuz", dio Ramirezek. Emaizta berehala azaleratu zen. Izan ere, apirilean estreinatu zuten emanaldia, Iruñean, eta ordutik hona hainbat tokitan eskaini dute –Oñatin ere bai, maiatzean–. Seikotearen arteko harremana "oso ona" dela azpimarratu dute, eta orain arte emandakoarekin gustura azaldu dira. "Guztionean arteko harremana oso atsegina da, eta bakoitzak askatasuna du bere ekarpena egiteko", dio Ramirezek. Egaña gaineratu du "oso irla desberdinetakoak" izan arren, "harreman polita" dutela seiek.

Parte-hartzea bultzatuz

Musikari dagokionez, bi zatitan banatzen da emanaldia: batetik, Ainhoa Garmendia sopranoak kantu "klasikoak" abesten ditu, eta, bestetik, kantu "garaikidea" egiten dituzte. "Bigarren zati honetan, jendearen parte-hartzea bilatzen dugu. Pantailan kantuen letrak jartzen ditugu



Artxipelagoa emanaldia, Oñatiko Santa Ana antzokian, maiatzean. IMANOL SORIANO

eta gure asmoa da jendeak kantatzea", adierazi du Ramirezek. "Emanaldietan lortzen dugu jendeak parte hartzea, eta, alde horretatik, gustura gaude", azpimarratu du Egaña. Publikoari dagokionez, adin eta gustu

desberdinetako jendea hurbiltzen dela azaldu dute.

Sarrerak 12 euro

Sarrerak *Arrasate.eus* webgunean daude salgai, eta leihatilan ere egongo da aukera bihar.

Egaña, "asebeteta" BECen

Andoni Egaña *Artxipelagoa* emanaldiko kide izanda, eta bihar Arrasatera datorrela baliatuz, pasa den domekan BECen jokaturako 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren gainean galdetu dio GOIENAK. "Asebeteta" geratu zela aitortu du bertsolariak. "Oso final ona izan zen, oro har. Publikoaren jarrera ere txalogarria, antolakuntza bikaina eta Maialenen lana mugaz kanpoko", adierazi du.

Onartu du Lujanbio "beti" dagoela bere kineletan. "Izan zezakeen egun txar bat, baina bere egun txar bat ere ona da. Gainera, egun ona izan zuen; beraz... Bere lana estratosferikoa iruditu zitzaidan", nabarmendu du.

Finaleko zortzikoteari dagokionez, "oso maila handiko" bertsolariak direla azaldu du zarauztarrak. "Guztiekin dute maila ikaragarria, eta, egia esan, nik final bikaina espero nuen aurretik ere. 2001eko finala erreferentziatzat hartuta, orduko bost bertsolari aritu ziren domekan ere. 2001ean gazte zirenak orain 40 urteren bueltan dabilta. Esperientzia metatu horrekin guztiorrekin eta ikasten ari diren guztiarekin, pentsatzekoa zen maila handiko finala izatea, eta hala izan zen".

BECeko 14.600 pertsonen gain, telebista bidez 332.000 pertsonak jarraitu zuten finala. "Pozteko datuak dira", dio.

Huhezineman film laburrak aurkezteko epea zabalik dago

Berrikuntza nagusiak Mundukide saria eta argazki onenaren saria izango dira aurtengo edizioan

E.A. ARETXABALETA

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren 11. edizioa egingo da, 2018eko martxoaren 21etik 23ra bitartean, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean.

Filmak bidaltzeko epea 2018ko otsailaren 9ra arte egongo da zabalik. Sail bakoitzaren oinarriak www.huhezinema.com webgunean kontsultatu daitezke.

Edizio honetan, bi berrikuntza nagusi daude: alde batetik, Mundukide saria egongo da, giza eskubideak eta justizia sozialaren gaiak egokien txertatuta dituen film labur onena sarituko duena. Sari horren irabazleak 700 euro eramango ditu. Bestetik, MUko ikasleen sailean, hautatutako film laburren artean argazki onenaren saria egongo da. 1.500 eurotan baloratutako kamera-ekipamendua izango da saria, Zarauzko Ogeita4 Camera

Solution enpresaren eskutik. Jasotako film labur guztien artean Aukeraketa Batzordeak hamar film labur aukeratuko ditu jaialdiaren sail ofiziala osatzeko. Hamar horietako bakoitzak 200 euro jasoko ditu hautatua izateagatik.

Hiru sailetan banatuta

Lehiaketaren baitan, hiru sail ezberdindu dira, eta sail bakoitzean sari ezberdinak egongo dira: sail ofiziala –Goiena saria, 1.000 euro; Mundukide saria, 700 euro; Vertigo saria, 400 euro; eta ikusleen saria, 300 euro–; MUko ikasleen saila –fikzio onenaren saria, 300 euro; dokumental onenaren saria, 300 euro; argazki onenaren saria, 1.500 euroko kamera eta ikuslearen saria, 100 euro–; eta Kutixi saila –Basque Culinary saria, 400 euro eta Ikusleen saria, 100 euro.

Berrikuntza askorekin dator zazpigarren Euspot lehiaketa

Musika sinkronizazio onenaren saria egongo da aurtengo eta trebakuntzan saiakera berezia egingo dute

E.A. ARETXABALETA

Ikus-entzunezko publizitate arloan euskararen erabilera zabaltzea eta euskaraz lan egiteko gai izango diren profesionalak sortzea helburu duen Euspot lehiaketak sare sozialen gaineko hausnarketa bultzatuko du 2018ko edizioan. *Irudi digitala gure bizitzako harremanetan* leloa du edizio berriak.

Berrikuntza ugariarekin dator 2018ko lehiaketa. Batetik, musika sinkronizazio onenaren saria izango da, Audionetwork-ek eskainita, eta bestetik, trebakuntzan saiakera berezia egingo dela iragarri dute antolatzaileek: "Euskal Herri osoko hainbat eskolarekin harremanak sendotu eta lan-saio gehiago eskainiko dira".

Leloaren bitartez, sare sozialen erabileraren gaineko hausnarketa bultzatu nahi dute: "Sare

sozialak gure bizitzako ia esparru guztietara zabaltzen dira, eta horrek gure artean harremanetzeko moduak ere baldintzatzen ditu. Nerabe zein helduok, sare sozialekin gutaz lantzen dugun irudiari garrantzi handiegia ematen ote diogu? Alderdi birtual horretan jasotzen dugun erantzun, oihartzun eta oniritzi edo oniritzirik ezari kasu gehiegi egiten ote diogu? Horretaz jabetu behar dugu", adierazi dute.

2.550 euro saritan

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Sariak hauek izango dira: spotik onena –1.000 euro–; MUko ikasleen spotik onena –500 euro–; publikoaren saria –500 euro–; musika sinkronizazio onenaren saria –300 euro– eta BHKlip saria (14-18 urte) –250 euro–. *Euspot.eus* webgunean daude oinarriak.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Murubide kalean, 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainua, despentsa, trastelekua eta –nahi izanez gero- garaje itxia. Hirugarren solairuan dago eta gela guztiek ematen dute kanpora, bainuak ezik. Igogailua, jarri berria. Dena egokiera oso onean. Erdialdetik oso gertu. Aukera paregabea. Telefonoa: 943 533 827

103. ERRENTAN EMAN

Angiozar. Eraberritutako etxebizitza errentan ematen da Angiozarren: hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, aseoa txiki bat eta txokoa dauzka, hainbat solairutan banatuta. Berokuntza, tximinia eta hari musikalorekin, bizitzera sartzeko moduan. Guztiz ekipatuta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 33 18 70

Bergara. Erdigunean, Arruriagan, etxebizitza errentan ematen da. 55 metro koadrokoa, hirugarren solairuan eta duplexa. Sukaldea, jangela, komuna, bikotearendako moduko logela bat eta egongela handia. Kanpoaldera ematen du eta jantzitza dago. Ur beroa eta berogailua gas naturalarekin eta igogailua. Telefonoa: 600 36 81 37 (Itziar)

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdigunean etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Telefonoa: 618 28 91 28

Arrasate. Etxebizitza bila nabil Arrasaten. Gela bakarrekkoa bada ere ondo. 600 eurotik gorakoa ez dadila izan. 618 28 91 28

Bergara edo Arrasate. Familia bat gara etxebizitza behar dugu errentan.

Epe luzeke lan kontratua daukagu. 651 02 03 14

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan, kuarterelaren parean. Telefonoa: 609 94 76 94

Arrasate. Erdialdean logela bila nabil. Ikaslea naiz. 634 69 01 96

303. ERRENTAN EMAN

Ganbara Oñatin. Etxaluzen (Kalebarria 54an) ganbara alokatzen da. Biltegi moduan erabiltzeko oso aproposa. Prezio ona. Deitu 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 618 19 51 01

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Soziosanitario ikasketak eta urtetako esperientzia duen emakumea nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Telefonoa: 630 99 11 85

Arrasate eta Aretxabaleta. Etxeak, jatetxeak, bulegoak eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Titulazioa eta esperientzia dauzkat. Zaintza lanetan ere arituko nintzateke. Telefonoa: 631 82 63 32 (Celine)

Arrasate eta Aretxabaleta. Garbiketak egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 631 03 04 49

Bergara edo Arrasate. Neska gertu gauean pertsonak zaintzeko. Deitu zenbaki honetan goizeko 8:00ak eta 9:00 artean edo 20:00etatik 22:00etara. 943 50 47 29

Debagoiena. Emakume arduratsu eta langilea gertu uneak zaintzeko ebeko lanak egiteko edota tabernan jarduteko. Ahal bada, arratsaldez. 675 94 46 35 (Marije)

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzen eta garbiketan jarduteko. Etxean

bertan bizi izaten edo bestela. 634 23 33 58

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Autoa daukat. 662 43 08 50

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 19 02 54 (Lilian)

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 44 25 79 (Yaritza)

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizain laguntzaile ikasketak dauzkat. 698 65 19 25 (Emilse)

Debagoiena. Garbiketan eta ume zein nagusien zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 631 37 01 82 (Candida)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita asteburuetan ere. Garbitasun lanak ere egingo nituzke. 632 95 30 13

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke, etxean bertan bizi iaten edo bestela. Esperientzia daukat. 603 37 50 51 (Gloria)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 50 84 07

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarren lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Titulazioa eta lege-papera dauzkat. 612 20 35 71

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan, sukalde laguntzaile edota supermerkatuan lan egiteko gertu nago. Telefonoa: 647 01 74 66

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka, asteburuetan edota gauean. Berehala hasteko moduan. 631 19 98 77

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, zein ostalaritzan eta dendan lan egiteko. 656 79 28 37

Debagoiena. Ume eta nagusiak zaintzen, garbiketak eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 59 76 90 (Luz Marina)

Debagoiena. Ume eta nagusiak zaintzen, garbiketak eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 03 69 88 (Sandra)

Emakume euskalduna Bergaran. Eskarmentu handiko emakume eus-

kalduna eskaintzen da era guztietako garbiketak burutzeko: atariak, etxebizitzak, tabernak eta abar. 690 86 46 80

Lan bila. Esperientzia handiko emakumea jende nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza. 632 44 92 85

Zaintza lanak. 19:00etatik aurrera nagusiak edo umeak zainduko nituzke Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 83 32 44

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Matematika. Batxilergoko bigarren mailako matematika eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arra-

satén. Interesatuok deitu zenbaki honetara, mese-dez: 669 63 52 25

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Gorbeia txakurkumeak. Urriaren 30ean jaiotako txakurkumeak saltzen dira 30 eurotan. Ama Gorbeia eta aita Border Collie arrazakoak. Animaliekin lanerako edo etxeko lagun bezala erabili daitezke. Informazio gehiagorako deitu mugikorrera: 687 32 99 57

8. DENETARIAK

802. EROSI

Galeoiak. Galeoen marrazkiak dituen koadroa erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

OROIGARRIA

Itziar Aldazabal Irasuegi

Ikastolako gurasoa

2017ko abenduaren 17an hil zen, 44 urte zituela.



Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2017ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Itziar Aldazabal Irasuegi

2017ko abenduaren 17an hil zen, 44 urte zituela.



Neguko arratsalde batean hostoak erortzen dira negar tanta artean. Zure irrifarra beti gure bihotzean gure Itziar maitea.

Bere senar Asier, alaba Alaitz eta familia osoaren partetik. Arrasaten, 2017ko abenduaren 22an.

HILDAKOAK

Justina Egidazu Pagaldai. Arrasaten, abenduaren 14an. 98 urte.

Juan Luis Molina Ruiz. Bergaran, abenduaren 14an. 51 urte.

Maria Rosario Junco Oleaga. Oñatin, abenduaren 14an. 70 urte.

Juan Cruz Gezalaga Larrea. Antzuolan, abenduaren 14an. 75 urte.

Jose Mari Telleria Oregi. Bergaran, abenduaren 14an. 76 urte.

Jose Antonio Gantxegi Juaristi. Arrasaten, 15ean. 67 urte.

Angel Sebastian Garai Uribesalgo. Arrasaten, 17an. 72 urte.

M. Carmen Merchan Fernandez. Arrasaten, 17an. 94 urte.

Itziar Aldazabal Irasuegi. Arrasaten, abenduaren 17an. 44 urte.

Koldo Zulueta Etxaniz. Oñatin, abenduaren 18an. 84 urte.

Jesusa Idigoras Larrañaga. Bergaran, abenduaren 18an. 80 urte.

Patxi Arrazola Ochoa. Oñatin, abenduaren 19an. 61 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 23	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Domeka, 24	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 25	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Martitzena, 26	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 27	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 28	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 23	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 24	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 25	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 26	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 27	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 28	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 22	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 23	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 24	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 25	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 26	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 27	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 28	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2017ko abenduaren 31ra arte:	
IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39	

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2017 osoan:	
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4	
943 76 11 74	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-tik edo AppStore-tik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro
- 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

OROIGARRIA



Patxi Arrazola Ochoa

2017ko abenduaren 19an hil zen,
Puerto de Santa Marian (Cadiz), 61 urte zituela.

Eskerrik asko aita.

Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA



Patxi Arrazola Ochoa

2017ko abenduaren 19an hil zen,
Puerto de Santa Marian (Cadiz), 61 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Andoniren lagunak.
Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Koldo Zulueta Etxaniz

2017ko abenduaren 18an hil zen, 84 urte zituela.

Errementeri inguruan,
familiaren onduan,
txoriak dauden lekuan,
irribarretsu oroituko da
zure ahotza kantuan.

Iñaki, Xabier, Nikolas eta Mariasun.
Olabartan (Oñati), 2017ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Ramoni Aguirre Larrea

Eusebio Anduagaren alarguna

2017ko abenduaren 11n hil zen, 93 urte zituela.

Donostiko Marrutxipin jaio
ta egin zinan pertsona
beti izan dozu beste danoi
laguntzen prestutasuna

ordutik hona eduki dozu
danondako maitasuna
hau da emaniko eredu
maite zaitugu, amona.

Zure bilobak: Igor eta Mireia, Iñigo eta Mirari, Andoni, Eñaut
eta Maddi, Ibai eta Nagore, Uxue, Julen eta Xabi.
Zure birlobak: Xuban eta Ekai.

Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Juan Luis Molina Ruiz

'Moli'

2017ko abenduaren 14an hil zen, 51 urte zituela.

Orain beste izar distiratsu bat daukagu zeruan.

Agustina, Iñigo, Aitziber eta Unai.
Bergaran, 2017ko abenduaren 22an.

ESKER ONA



Koldo Zulueta Etxaniz

2017ko abenduaren 18an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bereziki, Oñatiko parrokiako abesbatzakoei.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza abenduaren 30ean izango da, zapatua, 19:30ean,
Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

ESKER ONA

Ramoni Aguirre Larrea

Eusebio Anduagaren alarguna

2017ko abenduaren 11n hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza abenduaren 23an, zapatuan, izango da, 19:30ean,
Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

ESKER ONA



Juan Luis Molina Rui

'Moli'

2017ko abenduaren 14an hil zen, 51 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko abenduaren 22an.

ESKER ONA

Aurora Telleriarte Egidazu

Bergaran abenduaren 5an hil zen Aurora Telleriarteren familiaren
partetik, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna
adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2017ko abenduaren 22an.

ESKER ONA

Fernando Kortabarria Guridi

2017ko abenduaren 12an hil zen, 56 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza, abenduaren 23an, zapatuan, izango da,
19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

URTEURRENA

Enrike Irusta Basauri

2016ko abenduaren 28an hil zen, 64 urte zituela.

Urteurreneko meza larunbatean, abenduaren 23an, izango da,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingoaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2017ko abenduaren 22an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Banaka ezin zaituztetelako eskertu lerro
hauen bidez esan nahi dizuet, nire eskuetan
jarri duzun konfiantza eta nirekiko izan
duzuen maitasuna nahi dizuedala eskertu
bihotz bihotzez. Joan direnak nire bihotzean
eta zuen inguruan beti.

MARIBI

Tel.:617 44 21 55. BERGARA

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'ALIZIA MUSIKALA' IKUSTEKO AUKERA

Abenduak 24, 17:30 eta 23:00; eta abenduak 25, 10:00, 16:00 eta 20:00



GOIENA

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIENEN ERREPASOA

'Gaurkoak' Abenduaren 26tik aurrera, 14:30

EGUBAKOITZA, 22

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Kulturizketa: Andueza-Bilbao
13:00 Txantxariak 3
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Gaurkoak
14:45 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Gaurkoak
16:30 Onein: Barazki Lasagna
17:00 Gaurkoak
17:15 Kulturizketa: Andueza-Bilbao
17:45 Gaurkoak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Hurbiletik: Pedro Miguel Etxenike
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Osoko bilkura: Oñati
21:30 Amaia DJ
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Kulturizketa: Andueza-Bilbao
23:30 Osoko bilkura: Oñati

ZAPATUA, 23

09:00 1,2,3 Hemen da Miru
09:30 Txantxariak 3
10:00 Kantari 10
10:30 Hemen Debagoiena
11:30 Astearen errepasoa
12:30 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
13:00 Osoko bilkura: Bergara
14:00 Mahai-ingurua: Bertso txapelketa
15:00 Amaia DJ
15:30 Harira: Markel Olanó
16:30 Kantari 10
17:00 Kantari 9
17:30 1,2,3 Hemen da Miru
18:00 Xistera
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Astearen errepasoa
22:00 Osoko bilkura: Bergara
23:00 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 24

09:00 1,2,3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 10
10:00 Kantari 9
10:30 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
11:00 Amaia DJ
11:30 Kulturizketa: Andueza-Bilbao
12:00 Osoko bilkura: Bergara
13:00 Mahai-ingurua: Bertso txapelketa
14:00 Xistera
16:00 Kantari 10
16:30 Txantxariak 3
17:00 1,2,3 Hemen da Miru
17:30 Musikala: Alizia
20:00 Kulturizketa: Andueza-Bilbao
20:30 Ikustenda: Hil' Gazte Amets Ormaetxea
21:00 Amaia DJ
21:30 Adil! Isekanbila: Zesuma
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Musikala: Alizia

EGUBAKOITZA, 22

SANTAMASETAKO IRUDI ONENAK

'Hemen Debagoiena'
18:00/20:00/22:00

ZAPATUA, 23

BERGARAKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkura'
13:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/
telebista

DOMEKA, 24



GOIENA

'OLENZERO & CO' MUSIKALA

'Musikala'
16:00/21:30

MARTITZENA, 26

URTEKO LABURPENA, IRUDITAN

'Urtekaria 2017'
11:00/18:45

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

1. Arrasateri Bira

52 pertsonak hartu dute parte eta gehienek ibilaldi osoa egin dute – hamaika pertsonak izan ezik–. Antolatzaileek positiboki baloratu dute.

2. Moises Aspiazu Dantza Taldea

Arabako fandango eta arin-arin koreografiaren txapelketako hirugarren saria jaso zuen asteburuan Bergarako Moises Aspiazu Dantza Taldeak.

3. 'Txikiteruak' Iruñean

Eskoriatzako Txikiteruak kuadrillak urteroko bazkaria egin zuen pasa den zapatuan. Aurten, Iruñean izan dira: Herrikoan bazkaldu, eta gero parrandan.

4. Malagako Maratoia

Aitor Zuñiga, Urtzi Uribetxebarria, Jon Loiti eta Edu Zuñiga arrasatearrek egin zuten, hilaren 10ean. "Egun zoragarria" izan zuten arineketan egiteko.

5. Sabina eta Isidoro

Sabina Barquero eta Isidoro Quintana 1967ko abenduaren 30ean ezkondu ziren. "Zorionak, ama eta aita! Eskerrik asko beti hor laguntzen egoteagatik!".

6. Potx eta Lotxen bideoklipa

Oñatiko Potx eta Lotx pailazoek Auskalomendi kantuen bideoklipa grabatu dute Arregi agroturismoan hainbat herritarren laguntzarekin.

ZORION AGURRAK



ONATI
Ilargi Markuleta Kortajarena
Urtarrilaren 2an, 4 urte. Dagoeneko lau urte. Zorionak, printzesa, etxeko danon partetik.

ARRASATE
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, 57 urte. Zorionak, amama Marisa! Egun politta pasatzia opa dotsugu. Eskerrik asko beti gurekin egoteagatik. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, Alaineren eta Kenarren partetik.



ARRASATE
Nora Justinne Sanchez Sanchez
Abenduaren 31n, 14 urte. Zorionak aitaren, amaren eta familia osoaren partetik. Musu asko eta segi halaxe, txapeldun!




ANTZUOLA
Irati Aranguren Quintana
Abenduaren 31n, 9 urte. Zorionak, Irati! Egun politta pasatu eta patxo potolo-potolo, etxeko partetik! Bereziki, Maialenen besarkada handi bat!




ONATI
Eneko Aranburu Onaindia
Abenduaren 27an, 12 urte. Zorionak eta asko disfrutatu Lekitxon surf egiten. Muxu handi bat, etxeko partetik.



ARRASATE
Iزارo Morales Murgia eta Mireia Cabrera Morales
Izarok 4 urte, abenduaren 25ean eta Mireiak 19 urte, abenduaren 31n. Zorionak eta ondo pasatu zuen egunean. Muxu bat familiaren partetik.



BERGARA
Aitor Beistegi Frias
Abenduaren 23an, 5 urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta hartu muxu handi bat, etxeko guztion eta, bereziki, anaiaren eta lehengusu eta lehengusinen partetik.




ARRASATE
Iker Mateos Ramos
Abenduaren 22an, 15 urte. Zorionak, txapelduna! Ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat, familia osoaren partetik.




BERGARA
Mariñe Sotil
Abenduaren 22an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoragarria pasa dezazula. Besarkada handia eta marrubizko muxu asko, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Abenduaren 20an, 7 urte. Zorionak, Gari eta Oihan! Ederto ospatu zuein urtebetetze eguna! Patxo potolo bat etxeko danon eta, bereziki, Izaroren partetik.



ARRASATE
Lur Aginagalde Ozerinjauregi
Abenduaren 20an, 2 urte. Zorionak, Lur! Ederto ospatu zure eguna! Patxo potoloak laguntxo danon partetik: Bittor, Kenare, Julen, Unai eta Maren.



ARETXABALETA
Antton Zurutuza Amozarrain
Abenduaren 17an, 9 urte. Zorionak, maitte! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, etxeko danon partetik.



ONATI
Eider Galdos Pombar
Abenduaren 17an, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunian eta muxu pila bat, etxeko danon partetik!



ONATI
Josefa Lizarralde
Abenduaren 16an, 103 urte. Zorionak, amama! Ondo pasatu eguna eta segi horrelako ondo egoten urte askotan! Patxo handi bat, familia danaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ONATI
Garazi Martins Lera
Abenduaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Garazi! Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Lier Bardezi Kerejeta
Abenduaren 14an, 7 urte. Zorionak gure txapeldunari! Egun eder-ederra euki! Patxo erraldoi bat! Mua! Malen, aitaixo eta amatxo.



TALDEAN AURRERA
Urte berri on!

goiena[“]
Zu hemen zaude.

EGUBAKOITZA 22

BERGARA Haur eta**gaztetxoentzako atrakzioak**

Bergara Bizi ekimenaren bidez haur eta gaztetxoentzako atrakzioak Bedelkar elkarteak antolatuta, 17:00etatik 20:00etara.

Seminarioko patioan, 17:00etan.

OÑATI Jaiotza biziduna egingo dute San Martinen

Parrokiak San Martin egoitzan egingo duen jaiotzan parte hartuko dute Musika Eskolako ikasleek.

San Martin egoitzan, 17:30ean.

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea

Aretxartek gonbidatuta gaztaina-saltzailea izango da Herriko Plazan. Bezeroen artean txartelak banatuko dituzte gaztainak debalde jateko.

Herriko Plazan, 18:00etan.

BERGARA Argiak piztuko dituzte

Bizikletaz argiak pizteko aukera.

Fraiskozuri plazan, 18:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua

Musika Eskolako ikasleek Gabonetako emanaldia egingo dute pilotalekuan.

Udal pilotalekuan, 18:30ean.

OÑATI Oñatiko kirol sariak 2017

Kirol sariak banatuko dituzte udaletxean.

Udaletxean, 19:00etan.

OÑATI Dultzaina eta atabala

Jose de Azpiazu Musika Eskolako dultzaina eta atabaleko ikasleek saioa eskainiko dute.

Foruen plazan, 19:00etan.

ELGETA Musika ikasleen emanaldia

Gabonetako saio berezia Lorea Larrañagaren musika ikasleekin.

Espaloia kafe antzokia, 19:00etan.

BERGARA Gabonetako postalen XIII. lehiaketako sari banaketa

Serafin Esnaolaren omenezko lehiaketako sariak banatuko dituzte Gure Ametsa elkarteak.

Gure Ametsa elkarteak, 19:00etan.

ELGETA Gabonetako pilota txapelketako finalerdiak

Ligaxka amaituta, finalerdiak jokatuko dituzte sailkatu diren bikoteek.

Udal pilotalekuan, 19:30ean.

GABONETAKO EGITARAUUA



IMANOL SORIANO

ARRASATE 'Artxipielagoa' ikuskizuna

Ainhoa Garmendia sopranoa, Andoni Egaña bertsolaria, Pello Ramirez txelo eta eskusoinu jotzailea, Garikoitz Mendizabal txistularia, German Ormazabal pianista eta Belen Ibarrola artista, oholta gaineak. Sarrerak, 12 euro.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

OÑATI 'Encuentros' dantza ikuskizuna

Denis Santacananaren *Encuentros* dantza emanaldia. Sarrera 8 euro.

Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ZAPATUA 23

OÑATI Espeleotxiki

Sarrera 15 euro. Izena eman behar da aurrez: 943 08 20 00 telefonora deituta.

Arrikruz kobak, 10:00etan.

ARRASATE Mini basket

Gipuzkoako saskibaloi federazioaren laguntzarekin, festa handia ospatuko dute Arrasateko Iturripe kiroldegian.

Iturripen, 10:00etan.

BERGARA Eskubaloi eguna

Kirolari eta gurasoen arteko partiduak jokatuko dituzte goizean.

16:00etan, beteranoen arteko

partidua jokatuko dute: mutilak eta neskak. Kamisetak jarriko dituzte salgai 10 eurotan.

Labegaraletan, 10:00etan.

BERGARA Txistulariak

Bergarako Txistulari Bandak kalejira egingo du.

San Martin plazan, 11:00etan.

BERGARA Nafar feria egingo dute San Antonion

11:00 Feriaren irekitzea eta pintxoak karpan jarriko den tabernan; 10:30-13:00 elkarte arteko X. sukaldaritza lehiaketa; 10:30-14:30 Angie DJa; 11:30ean meza; 12:00-14:00 poniak, zezentxoak eta jolasak mutikoentzat; 12:30ean Gabonetako postalen XIII. lehiaketaren sari banaketa; 13:00etan Alai Taldea abesbatzaren emanaldia; 14:30ean Saskiaren zozketa karpan; 15:00ean bazkaria.

San Antonio auzoa, 11:00etan.

OÑATI 'Hasteko, Bost!' eguna

Gaztetxearen bosgarren urteurrena ospatzeko eguna. Egitaraua hau da: 11:30ean, ekitaldi nazionala (aureskua, topa, zuhaitz landaketa Jakoba Errekondorekin eta Errekondoren liburu berriaren aurkezpena); 13:00etan, poteoa; 14:30ean, bazkari herrikoia; 16:00etan, NA arrotzen jaurtiketa lehiaketa; 18:00etan, poteo musikatua; 21:00etan, kontzertua gaztetxean: Zartako eta Selektah Stepi (Bad Sound) taldeekin. Ondoren afari merienda

Antixena gaztetxean, 11:30ean.

BERGARA Haur eta**gaztetxoentzako atrakzioak**

Bergara Bizi ekimenaren bidez haur eta gaztetxoentzako atrakzioak Bedelkar elkarteak antolatuta.

Ordua: 11:30-13:30 eta 17:00-20:00.

Seminarioko patioan, Bergara 11:30ean.

OÑATI Erakusleihu lehiaketaren sari banaketa

Zapatuan banatuko dira Gabonetako erakusleihu lehiaketako sariak.

Udaletxean, 13:30ean.

BERGARA Mus Txapelketa

Euskal Herriko Mus Txapelketako Bergarako kanporaketa. Izena momentuan bertan eman beharko da eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

Artatse elkarteak, 16:00etan.

OÑATI Kandelen gaua

Turismo Bulegoaren 15. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan.

Sancti Spiritus Unibertsitatean, 18:00etan.

ELGETA Olentzeroren etorrera

Intxortatik jaitsiko da Olentzero neska-mutikoen gutunak jasotzera.

Herriko plazan, 18:30ean.

ANTZUOLA Gospel kontzertua

The Upper Room taldeak kontzertua eskainiko du, euskaraz eta ingelesez. Sarrera: 5 euro.

Torresoroan, 19:00etan.

ARAMAIO Bertso saioa

Aramaioko Udalak eta bertso eskolak antolatuta Gabonetako saioa egingo dute. Bertsolariak Amets Arzallus, Xabi Igoa, Alaia Martin eta Julio Soto izango dira. Peru Abarrategi izango da gai-jartzailea.

Kultura etxean, 19:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako kontzertua

Behoko Errota musika eskolako emanaldia.

Zaldibar antzokian, 20:00etan

BERGARA Gabonetako kontzertua

Bergarako Musika Eskolak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoak, Aritzeta abesbatzak eta Bergarako Musika Bandak hartuko dute parte.

Udal Pilotalekuan, 20:30ean.

DOMEKA 24

GATZAGA Gabon kantuan

Baserriz baserri ibiliko dira kantuan gatzagarrik.

Plazan, 9:00etan.

OÑATI Plater-tiro txapelketa

Gabonetako plater-tiro txapelketa egingo dute Txopekuan, Pago-Uso elkarteak antolatuta.

Txopekuan, 10:30ean.

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Patxi Errementaria

Munartik hasita Herriko Plazaraino. Ibilbidea: Munar, Uribe auzoa, San Andres, Aprendizen Eskola, Musakola, Santa Marina eta Seber Altube –13:30–. Eguraldi txarrarekin Udal Pilotalekuan izango litzateke. *Munarren, 11:20ean.*

OÑATI Gabon kanten kalejira

Txantxiku Ikastolan hasiko dira eta ondoren, ikastolako Guraso Kontseiluak salda banatuko du plazan. *Herriko kaleetan, 11:30ean.*

ELGETA Gabon kantak

Maala guraso elkarteak antolatuta Gabon kantak kalez kale herrian. Amaitutakoan txorizo eta salda banaketa egingo dute herriko plazan. *Herri Eskolatik abiatuta, 11:30ean.*

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi

San Martzialetik etorriko dira 11:30ean Olentzero eta Mari Domingi. Oxirondo azoka paretik umeekin batera plazara joango dira. 18:30ean, Olentzerok eta Mari Domingik Seminarixoa haurren gutun jasotzea; ondoren txokolatea. Osintxun, 18:00etan etorriko da Olentzero menditik. Angiozarren, 18:45ean Olentzero plazatik irtengo da kantuan. *Seminarixoa, 18:30ean.*

ESKORIATZA Olentzero eta Mari Domingi

12:00etan Olentzeroren laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte Herriko plazan. 17:30ean Gabon kantak, Jose Arana zaharren egoitzan. 18:00etan, Apotzaga auzotik datozen Olentzero eta Mari Domingiri ongi-etorria egingo zaien. Ibilbidea honakoa izango da: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta herriko plaza. Ondoren, Txistulari eta soinu-joleekin batera, kantuak, kalez kale. *Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.*

OÑATI Olentzero eta Mari Domingiri harrera

Parte hartzaileak: Jose de Azpiazu musika eskola, Haitzondo kuadrila eta Algaraz elkarte. *Foruen plazan, 12:30ean.*

ANTZUOLA Material salmenta eta luntxa

Ez dot moztuko bizarra taldeak antolatuta luntxa eta material salmenta egingo dute. *Zurrategi plazan, 12:30ean.*

ARRASATE Goikobalu
Goikobalu abesbatzaren emanaldiak: 17:00etan Iturbide egoitzan eta 17:30ean Ospitalean. *Iturbide egoitzan, 17:00etan.*

ARAMAIO Olentzero
Olentzeroren etorrera kiroldegian –Guraso elkarte, Trikitixa Elkarte, Bixente Goikoetxea abesbatza eta Papargorri–. *Kiroldegian, 18:00etan.*

ARRASATE Olentzero
San Andresetik –18:15– herriko plazaraino joango da. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

ANTZUOLA Badator Olentzero!
11:00etan Eskolako umeen eta gurasoen eskutik, kalejira, Errekaldeetik irtenda. Euria eginez gero, eskolako patioan. 18:30ean Olentzero eta Mari Domingiren jaitsiera San Josetik. Ondorengo ekitaldi nagusia, plazan. *San Josen, 18:30ean.*

ARETXABALETA Olentzero eta Mari Domingiren etorrera
Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira Aretxabaletera herriko txistulariek eta gurasoek lagun eginda. Kiroldegitik Herriko Plazara arteko ibilbidea egingo dute. *Herriko kaleetan, 18:30ean.*

OÑATI Musika banda
Udal musika bandak Gabonetako doinuak joko ditu Gabon gauean. Iñaxio Ibarrodo da musika bandaren zuzendaria. *Foruen plazan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 25

ELGETA Mendi irteera Intxortara
Kantsatzeko Mendi Taldeak antolatuta mendi irteera. Goian hamaiketakoa, txistorrarekin. *Plazatik abiatuta, 11:00etan.*

ANTZUOLA Elkarretaratzea
Elkarretaratzea egingo dute Zurrategi plazan, presoan alde. *Zurrategi plazan, 13:00etan.*

ESKORIATZA Eskupitajo
Eskupitajo taldearen musika entzuteko aukera egongo da Inkernu tabernan. *Inkernu tabernan, 22:30ean.*

MARTITZENA 26

ANTZUOLA Debagoieneko Gabon kopa

Debagoieneko Gabon kopa, pilotalekuan, goizez. Antzuolako eta eskualdeko beste herri batzuetako alebin eta infantil mailako pilotariekin. *Pilotalekuan, 09:00etan.*

ARAMAIO Apaingarriak sortzen
5-6 urteko umeei zuzendutako tailerra egingo dute: apaingarriak sotzen. *Kultura etxean, 10:00etan.*

ARRASATE Ludotekako ekintza
10:00etan Biteri plazan. Euria egiten badu: sukaldaritza, 17:00etan Ludotekan. *Biteri plazan, 10:00etan.*

OÑATI Gabonetako ur jolasak
Gabonetako ur jolasak Zubikoako igerilekuan. 10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 18:00etara *Zubikoan, 10:30ean.*

ELGETA Haur parkea
Neska-mutikoendako Gabonetako haur parkea, frontoian, Udalak antolatuta. Sarrera: 2 euro. *Udal pilotalekuan, 16:00etan.*

ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan
2 euro bazkideek eta 3 euro bazkide ez direnek. *Igerilekuan, 17:00etan.*

ARETXABALETA Gaztelekua irekita! muralARTEAN saioa
Gaztelekua irekita! saioa egingo dute, mural ARTEAN izenarekin. *Atxagazte Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARETXABALETA Futbola
Bixente Etxeandia futbol txapelketa Jokatuko dute hilaren 26an, 27an eta 28an. *Ibarran, 9:00etan.*

ARRASATE Gaztegunearen apainketa
Gaztegunea apainduko dute. *Gaztegunean, 17:00etan.*

BERGARA Dantza emanaldia Elirale konpainiarekin
Oa-Huate Elirale konpainiarekin, 2-7 urtekoentzat, 17:00etan eta 18:30ean. Sarrera: 4 euro. *Seminarixoa, 17:00etan.*

ANTZUOLA San Esteban krosa
17:30ean 5-8 urte bitartekoak; 17:45ean benjaminak, alebinak eta infantilak; 18:00etan kadeteak eta hortik gorakoak. *Herriko Plazan, 17:30ean.*



TXALO PRODUKZIOAK

aretxabaleta 'Jainko basatia' antzezlan

Komedia dramatikoak da *Jainko Basatia*. Ezkonduta dauden bi bikoteren arteko harremanak kontatzen ditu. Edukazio eta gizalege handiz hasiko dena frustrazio eta mixeria istorio batean amaituko da. *Abenduaren 26an, martitzena, Zاراia aretoan, 19:30ean.*

OÑATI Tertulia egingo dute gaztetxean
Gazte asanblada zaharretako kideekin tertulia egingo dute. *Antixena gaztetxean, 19:00etan.*

OÑATI 'HITZALDIA: 'ONDAS GRAVITACIONALES: UNA NUEVA PERSPECTIVA DEL UNIVERSO'
Hizlaria: Jose Felix Rojas, UPV/EHUko Planeta-zientzien taldeko kidea. Ilatargi taldeak antolatua *Kultura etxean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 27

ARETXABALETA Irteera berezia
Atxagaztek antolatuta irteera egingo dute. Ogitarkekoa eramatea gomendatu dute. *AZBEko geltokian, 10:00etan.*

ARAMAIO Erretratuak margotzen

11 urtetik aurrerako gaztetxoei zuzendutako tailerra egingo dute: erretratuak margotzen ikasiko dute. *Kultura etxean, 10:00etan.*

ESKORIATZA Gabonetako parkea
Egun bateko sarrera 5 euro. *Manuel Muñoz kiroldegian, 10:00etan.*

BERGARA Hiruko saskibaloia txapelketa
Bergara Kirol Elkartearen eskutik saskibaloia. *Udal pilotalekuan, 10:00etan.*

OÑATI Ludoteka
3-12 urte bitarteko haurrentzat ekintza bereziak. *Txaloka ludotekan, 10:30ean.*

ARETXABALETA Patinajea
Patinaje ikastaroa egingo dute Ibarra kiroldegian, familia giroan.

Aurrez izena eman beharra dago; azken eguna abenduaren 22a da. *Ibarra kiroldegian, 10:30ean.*

OÑATI Gabonetako ur jolasak
Gabonetako ur jolasak. 10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 18:00etara. *Zubikoan, 10:30ean.*

ELGETA Zirku tailerra
Zirku tailerra, gimnasioan, boluntario talde baten eskutik. Sarrera doan. *Elgetako gimnasioan, 16:00etan.*

ARETXABALETA Kale ekintza egingo dute
Kale hezitzaileek antolatuta kale ekintza egingo dute Iralabarri plazan: kamisetak margotu, txapak, perkusio saioa. *Iralabarri plazan, 17:00etan.*

ARRASATE Ludotekako ekintza: Ginkana
Ginkana egingo dute. Euria bada: film laburren emanaldia egingo dute, 17:00etan, Ludotekan. *Ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE Sukaldaritza tailerra
Sukaldaritza tailerra egingo dute. *Gaztegunean, 17:00etan.*

OÑATI 'Sagu eta Pagu'
Sagu eta Pagu filma, gaztetxoendako. Sarrera: 3,50 euro. *Zinema aretoan, 17:00etan.*

OÑATI Gabonetako futbito txapelketa
Gabonetako futbito txapelketa. *Zubikoan, 20:00etan.*

OÑATI Eskubaloia
Euskadi- Maroko *Zubikoan, 18:00etan.*

BERGARA 'Do, re, mi family'
Musika, dantza eta jolasa bateratzen dituen emanaldia, 3-12 urte artekoendako. Sarrerak, 4 euro. *Seminarixoan, 18:00etan.*

EGUENA 28

ESKORIATZA Gabonetako parkea
Gabonetako parkea. *Manuel Muñoz kiroldegian, 10:00etan.*

ARETXABALETA Gaztelu puzgarriak kiroldegian
Gaztelu puzgarriak jarriko dituzte neska-mutikoendako. *Ibarra kiroldegian, 10:00etan.*

ARRASATE Ludotekako ekintza
Igartubeitia baserrira irteera. Prezioa: 3 euro. *Garibain, 10:00etan.*

OÑATI Ludotekako ekintza bereziak
Ordua: 10:30-13:30Adina: 3-12 urte bitarteko haurrentzat. *Txaloka ludoteka, 10:30ean.*

BERGARA Gabonetako jolas parkea
Sei urtetik beherakoendako. Eguneko sarrera, lau euro. Orduetia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. *Udal pilotalekuan, 11:00etan.*

ANTZUOLA Haur parkea
Haur parkea, eskolako patioan. Orduetia: 11:00-13:30 eta 16:30-19:00. *Eskolan, 11:00etan.*

OÑATI Emanaldia eguneko zentroan
Musika Eskolako akordeoi, pandero eta trikitixako ikasleek emanaldi bat egingo dute eguneko zentroan. *Oñatiko Eguneko zentroan, 11:00etan.*

BERGARA Familientzako tailerra: laborategiko jolasak Manu Hernandezekin
Gaztelaraz izango da. Izena eman behar da: www.laboratorium.eus atarian. *Laboratorium-en, 12:00etan.*

ELGETA Erretiratuaren karta joko lehiaketa
Urteroko mahai-joko lehiaketa egingo dute Elgetako erretiratuek. Briskan eta tutean arituko dira. Interesatuak egunean bertan eman behar dute izena Ozkarbi elkartearen. *Ozkarbi elkartearen, 16:00etan.*

BERGARA Goiengazte eguna egingo dute
Goiengazte eguna, abenduaren 28an Bergaran egingo dena, bailarako nerabeak elkar ezagutzeko eta elkarlanean aritzeko helburuarekin. Bandera jolas erraldoia, merendola eta kontzertuak egongo dira, besteak beste. *Xabalote Gaztelekuan, 16:30ean.*

BERGARA Sun magoaren ikuskizuna
Bi saio egingo ditu umeendako: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak, lau euroren truke egongo dira salgai. *Seminarixoan, 17:00etan.*



GOIENA

OÑATI 'Zutubetarrak' ikuskizuna
Galder Perezek zuzenduta, Olatz Pagaldai eta Jon Osoron aktoreen ikuskizuna. Salneurria hiru euro da. Gaztelekuan eros daitezke sarrerak. *Abenduaren 27an, eguaztena, Gaztelekuan, 18:30ean.*

OÑATI Potx eta Lotx pailazoaren ikuskizuna
Sarrera da hiru euro. Oharra: Sarrera guztiak saltzen badira, 2. saioko sarrerak jarriko dira salgai(2. saioa egitea erabakiz gero, 19:00etan izango da) *Gaztelekuan, 17:00etan.*

BERGARA Sun magoa
Sarrera: 4 euro *Seminarixoan, 17:00etan.*

BERGARA Ur jolasak
Ur jolasak egingo dituzte etxeko txikiendako. *Agorrosin kirol gunean, 17:00etan.*

ARRASATE 'Horra, horra' Eguberriko kontzertua
Arrasateko Arizmendi Ikastolako eta Errenteriako Zaria Txiki abesbatzek, kontzertua egingo dute, jazz hirukotearen eta metal boskotearen laguntzarekin. Iker Galartza eta Aitziber Garmendia aktoreak izango dira aurkezleak. Debalde. *Amaia Antzokian, 19:30ean.*

OÑATI 'Abracadabra' filma, zineklubean
Abracadabra filma eskainiko dute zineklubean. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

ARETXABALETA Dantza eta musika
Otxandategi talde nafarrak Abby Potxola dantza eta musika emanaldia eskainiko du kultura etxean. *Arkupe kultura etxean, 20:00etan.*

OÑATI Txuleton's zuzenean
Txuleton's talde oñatiarrak kontzertua eskainiko du. *Antixena gaztetxean, 20:00etan.*

ARRASATE Bi bala taldearen emanaldia Arrasateko gaztetxean
Kooltur ekimenaren barruan Bi bala taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean. *Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.*

BERGARA Bergarako bertsolari txapelketa nagusia
Bergarako bertsolari txapelketa nagusia jokatu dute egunean. Arzellus, Eñaut, Jon Patxi, Gari, Moto, Unai eta Oxan izango dira bertsotan oholza gainean. Bergarako Kopla barik bertso taldeak antolatutako saioa da aipatutakoa. Gai-jartzaile lanetan eta saioa aurkezten Txinbo ibiliko da. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 29

ELGETA Gaztelekutik irteera Bilbora
Gaztelekutik antolatuta irteera Bilboko Gabonetako parkera. Taldea 9:15ean abiatuko da Elgetatik eta 18:00etarako izango da bueltan. Prezioa erabiltzaileendako 20 euro, eta ez erabiltzaileendako 25 euro. Izena emateko azken eguna: abenduak 22 –gaur–. *Elgetan, 09:15ean.*

ESKORIATZA Bilboko Gabonetako parkera irteera
Adina: 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako irteera egingo dute Bilbora. Prezioa: 12 euro. Izena eman daiteke: Tortolis ludotekan bertan, abenduaren 22ra arte –gaur–. *Eskoriatzan, 09:30ean.*

ARETXABALETA Goizeko mendi buelta egingo dute
Mendi buelta egingo dute Atxagazte gaztelekuak antolatuta. *Gaztelekuan, 10:00etan.*

OÑATI Mendi irteera
Mendi irteera egingo dute gaztetxeak antolatuta.



GOIENA

BERGARA Sahararen aldeko jaialdia egingo dute gaztetxean
Tea eta pastak izango dituzte, eta lgam-eko kideek hitzaldia eskainiko dute. Ttipika dantzak eta henna tatuajeak. Ondoren, musika: Hayuh Ramsi, Azkaiter Pelox, eta Nomadak. Brahim Mohamed eskolarako izango da dirua. *Abenduaren 29n, egubakoitza, gaztetxean 17:00etan.*

Antixena gaztetxean, 10:00etan.

ARAMAIO Apaingarriak sortzen tailerra
Apaingarriak sortzen tailerra egingo dute kultura etxean 9 eta 10 urte bitartekoendako. *Kultura etxean, 10:00etan.*

OÑATI Saguzarrak ikusteko irteera
'Saguzarrak, gure ezkutuko lagunak' irteera. Kobazuloko bisita berezia eta eskulan tailerra. Sarrera da lau euro. Aurrez eman behar da izena: 943 08 20 00 *Arrikrutz kobak, 10:00etan.*

OÑATI Ludotekako ekintza bereziak
3-12 urte bitarteko haurrentzat. *Txaloka ludotekan, 10:30ean.*

OÑATI Koadrilen arteko saskibaloï txapelketa
Gabonetako koadrilen arteko saskibaloï txapelketa. Aloña Mendi Kirol Elkarteko saskibaloï-sailak antolatua. *Zubikoan, 10:30ean.*

BERGARA Gabonetako parkea pilotalekuan
Gabonetako parkean parte hartzeko gomendatutako adina 6 urtetik behera da. Ordua:

11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Eguneke sarrera 4 euro izango da. *Udal Pilotalekuan, 11:00etan.*

ELGETA Auzolana, EPA gela margotzea
Elgetako Udalak auzolanerako deia egin du. Helburua da kultura etxeko EPA gela margotzea. *Kultura etxean, 15:00etan.*

ARAMAIO 'Yogipuinak' ipuin kontaketa, Maite Arreseren eskutik
Gaztetxoendako ipuin kontalaria kultura etxean, *Yogipuinak*, Maite Arreseren eskutik, 17:00etan izango da saioa. *ultura etxean, 17:00etan.*

ARRASATE Sexualitate tertulia eta Olentzero ezkutua
Sexualitate tailerra egingo dute gaztegunean. *Gaztegunean, 17:00etan.*

BERGARA Haur eta gaztetxoentzako atrakzioak
BERGARA BIZI ekimenaren bidez haur eta gaztetxoentzako atrakzioak egongo dira BEDELKAR elkarteak antolatuta. Ordua: 17:00-20:00 izango da. *Seminarioko patioan, 17:00etan.*

BERGARA Ur jolasak
Bergaran ur-jolasak egingo dituzte. *Agorrosin kirol gunean, 17:00etan.*

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea
Aretxartek gonbidatuta gaztaina-saltzailea izango da Herriko Plaza. Bezeroen artean txartelak banatuko dituzte gaztainak debalde jateko. *Herriko Plazan, 18:00etan.*

BERGARA Fraiskozuri plazan bizikletaz rgiak pizteko aukera
Argiak bizikletak pizteko aukera egongo da. *Fraiskozuri plazan, 18:00etan.*

BERGARA Saskibaloï
Saskibaloï txapelketa egingo dute saskibaloï elkarteak antolatuta. *Labegaraietan, 18:00etan.*

ARAMAIO Argazki proiektzioa
Argazki proiektzioa Sastiñan. *Sastiñan, 18:30ean.*

OÑATI ETS akustikoan emanaldia
En Tol Sarmiento akustikoan. entzuteko aukera. Sarrera da hiru euro. Aurrez daude sarrerak salgai gaztelekuan. *Gaztelekuan, 18:30ean.*

ARETXABALETA Bertso saioa

Bertso jaialdia egingo dute Arkupen. Gonbidatutako bertsolariak: Amets Arzallus, Agin Laburu, Uxue Alberdi eta Oihana Iguaran. Sarrera, 4 euro. *Arkupe kultura etxean, 19:00etan.*

ANTZUOLA Azken ostiraleko elkarretaratzea
Euskal presoen alde, azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dute Ez dot moztuko bizarra ekimenak antolatuta. *Zurrategi plazan, 19:00etan.*

ARETXABALETA Gabonetako kontzertua
Aretxabaleta Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du parrobian. *Parrokian, 19:30ean.*

ESKORIATZA Kontzertua: San Asentzio abesbatza
Zuzendaria: Jesus Urrutia. Sarrera doan izango da. *Zaldibar antzokian, 20:00etan.*

ELGETA Azken barikua, elkarretaratzea
Presoen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratze isila Elgetako herriko plazan. *Herriko plazan, 20:00etan.*

OÑATI 'Serenity' kontzertua
Ganbara abesbatzaren kontzertua orkestrarekin. Sarrera da 10 euro. *San Migel parrokia, 22:00etan.*

OÑATI 'Jumanji' filma
Jumanji filma. Sarrera da 4,50 euro. *Zinema aretoan, 22:30ean.*

ZAPATUA 30

ESKORIATZA Gabonetako nesken XIII. Futbol txapelketa
Nesken kirolari bultzada ematen jarraitzeko asmoz, Arizmendi K.E.-ak, hamahirugarren urtez,nesken hiruko txapelketa antolatu du. *Almen ikastolan, 10:00etan.*

ARRASATE Gaztegunetik mendi irteera
Mendi irteera *Gaztegunean, 10:00etan.*

OÑATI Koadrilen arteko saskibaloï txapelketa
Gabonetako koadrilen arteko saskibaloï txapelketa. Aloña Mendi Kirol Elkarteko saskibaloï sailak antolatua. Aurreko egunetik dator txapelketa. *Zubikoan, 10:30ean.*

BERGARA Haur eta gaztetxoentzako atrakzioak
BERGARA BIZI ekimenaren bidez haur eta gaztetxoentzako atrakzioak BEDELKAR elkarteak antolatuta. Ordua: 11:30-13:30 eta 17:00-20:00. *Seminarioko patioan, 11:30ean.*

ARETXABALETA 'Karmele Igartua' sorkuntza bekaren sari banaketa
Karmele Igartua sorkuntza bekaren 2017ko saria banatuko dute; film laburren gidoiak eskatu dituzte aurtten. *Arkupe kultura etxean, 12:00etan.*

BERGARA Pilota txapelketako finalak
Gabonetako pilota txapelketako finalak jokatuco dituzte Udal Pilotalekuan. *Udal pilotalekuan, 16:00etan.*

OÑATI 'Jumanji' filma. Gaztetxo eta helduendako
Jumanji filma. Hiru saio: 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean *Zinema aretoan, 17:00etan.*

ARETXABALETA Bingo jolasa egingo dute gaztelekuan
Bingoan jokatuco dute Atxagazte gaztelekuan hilaren 30an, 17:30etik 19:30era. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

ESKORIATZA Ikuskizuna: 'Mari Kixkur eta hiru hartzak'
Mari Kixkur neskato bihurria eta alaia da; ilea kizkurra eta urre kolorekoa du. Igande batean gurasoekin haserretuko da, haserre joango da eta basoan galdu. Zuhaitzaren artean ezkutatuta dagoen hiru hartzen etxea ezagutuko du, bertan geratuko da egun pasa, bere etxea balitz bezala. XIX. mendeko ipuin klasikoa gaur egungo oholtzara ekarriko du Glu Glu-k. Ohikoa duen legez, musika, dantza eta komedia antzerki jolasarekin uztartuko dira. Euskaraz izango da emanaldia. Sarrera: 3 euro. *Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

BERGARA Fraiskozuri plazan bizikletaz argiak pizteko aukera
Bizikletaz argiak pizteko aukera. *Fraiskozuri plazan, 18:00etan.*

BERGARA Saskibaloï txapelketa Labegaraietan
Gabonetako 8. Bolintxo okindegia saskibaloï txapelketa egingo dute Labegaraietan. *Labegaraietan, 16:00etan.*

ARETXABALETA Emakumezkoen futbol txapelketa

Gabonetako futbol txapelketa.
Ibarran, 10:30ean.

ARRASATE Txelisen omenezkoa

Futbol txapelketa.
Mojategin, finala, 13:30ean.

OÑATI Eskubaloia

Euskadiko gazte mailako eskubalo partiduak.
Zubikoan, 17:0etan.

ARRASATE Eskubaloia

Gabonetako eskubalo partiduak jokatu dituzte: 11:00etan Arrasate-Urola (infantilak); eta, 12:15ean Arrasate-Urola (kadeteak).
Iturripen, 10:30ean.

BERGARA Sutargi eta Gabero abesbatzen kontzertua

Sutargi eta Gabero abesbatzen kontzertua Seminarixoan. Emanaldia doan izango da, baina leihatilan sarrera txartela hartzea derrigorrezkoa izango da.
Seminarixoan, 19:00etan.

DOMEKA 31

ARAMAIO Lagun izkutua Sastiñan (ATGA) eta txin-txina

Lagun ezkutua egingo dute Sastiñan, eta 00:00etan txin-txina Goikon.
Goikon Aramaio 00:00etan

ESKORIATZA X. Silbestre eta VII. Milia Manuel Muñoz Saria

10:30ean: Haurren lasterketarako izen-ematea eta dortsal margoketa; 12:00etan: 10 urtetik beherakoen lasterketa; 12:30ean: Txistorra-jana; 17:25ean: Brindisa; 17:30ean: helduen lasterketa Herriko Plazatik hasita –VII. Manuel Muñoz Saria–; 18:00etan: luntxa. Oharra: (Mozorro onenari saria egongo da)
Fernando Eskoriatza plazan, 17:30ean.

ELGETA Pilota finalak

Urtero moduan lau t'erdiko eskuz binakako pilota txapelketako finalak. Ondoren, sari banaketa.
Udal pilotalekuan, 11:30ean.

BERGARA San Silbestre txiki lasterketa solidarioa Irala Kalean

(Peñalba parean)
Irala kalean, 11:30ean.

ARAMAIO Alaiak elkarteak antolatuta, kantu-jira egingo dute

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta kantu-jira egingo dute herriko kaleetan, Arantzazu Ruiz de Azua akordeoi jotzaileak lagunduta.
Herriko kaleetan, 12:30ean.

ARRASATE Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua

Arrasateko Musikaleko bandak Gabon kontzertua eskainiko du Amaia antzokian.
Amaia Antzokian, 13:00etan.

BERGARA San Silvestre trail lasterketa

San Silvestre trail mendi lasterketa egingo dute.
San Martin plazan, 12:00etan.

OÑATI 2017 ixa 2018 San Silvestre lasterketa

2017 ixa 2018 San Silvestre lasterketa Atxintxiketan kirol elkarteak antolatuta. 16:00etan gaztetxoek lasterketa hasiko da.
Foruen enparantzan, 16:30ean.

ARETXABALETA San Silbestre lasterketa

San Silbestre herri lasterketa hainbat eragilek antolatuta.
Herriko kaleetan, 17:00etan.

OÑATI Musika bandaren kalejira

Oñatiko musika bandak kalejira egingo du urteko azkeneko egunean. Doinu ezagunak joko dituzte musikariek. Plazan hasiko dute kalejira eta herriko kaleetan ibiliko dira. Iñaxio Ibarrondo da zuzendaria.
Herriko kaleetan, 18:30ean.

ARETXABALETA Bizar Zuriren etorrera

Bizar Zuri etorriko da herrira Leizarra musika eskolako ikasleek eta gurasoek lagun eginda. Herriko kaleak zeharkatuko ditu gutunak jasoaz eta gozokiak emanaz.
Herriko kaleetan, 18:30ean.

ANTZUOLA Presoen aldeko ekimena egingo dute urteko azken egunean

Antzuolako Sarek, urtarrilaren 13ko manifestazioaren harira, kale agerraldia egingo du Zurrategin. Musikarien laguntzarekin, *Kalera kalera* abestuko dute, besteak beste.
Zurrategi plazan, 18:30ean.

OÑATI DJ Gaua egingo dute Antixenan

DJ Gaua egingo dute urteko azkeneko gauean, urtea musikarekin amaitzeko.
Antixena gaztetxean, 23:59ean.



GOIENA

OÑATI Errege bezperako bertso saioa

Lujanbio, Mendiluze, Colina, Arzallus, Elortza, Sarriegi eta Gaztelumendi bertsolariak arituko dira. Gai jartzailea izango da Txinparta bertso eskola.
Urtarrilaren 5ean, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

ASTELEHENA 1

BERGARA Elkartasun kotilioia egingo dute

Gaztetxean egingo dute kotilioia, 5 euroren truke. Besteak beste, egongo da: Ttun-Ttun brigada, saski erotikoaren zozketa Martxanteren eskutik, karaokea eta Dj Narbai musikaria.
Gaztetxean, 01:30ean.

ANTZUOLA Urte berriari ongi etorria

Urte berriari ongi etorria Arrola mendian egingo diote. Bertaratzen direnentzako salda eta txistorra egongo da.
Antzuolan, 09:00ean.

ANTZUOLA Elkarretaratzea egingo dute Zurrategin

Urteko lehenengo egunean elkarretaratzea egingo dute Zurrategin. Euskal presoen alde aterako dira Ez dot moztuko bizarra ekimenak antolatuta Zurrategi plazan.
Zurrategi plazan, 13:00etan.

OÑATI 'Jumanji' filma

Jumanji filma eskainiko dute urteko lehenengo egunean.
Zinema aretoan, 19:30ean.

MARTITZENA 2

ARRASATE Txikilandia Gabonetako parkea

Uarkape pilotalekuan egingo dute Gabonetako parkea. Orduetia izango da: 10:30-13:30 eta 16:00-20:00.
Uarkape pilotalekuan, 10:30ean.

ESKORIATZA Txiki Txef

Tortolis ludotekan Txiki Txef ekintza egingo dute, 8-12 urte bitartekoendako. Ordua: 11:00-13:00. Adina: 8-12 urte. Lekua: Tortolis ludotekan. Bazkide eta bazkide ez direnei zuzendutako ekintza izango da.
Tortolis ludotekan, 11:00etan.

BERGARA Gabonetako parkea

Gomendatutako adina 7 urtetik aurrera. Ordua: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Lekua: Labegaraieta kiroldegia Sarrera: eguneko sarrera 4 euro; hiru eguneko bonoa 10euro.
Labegaraietan, 11:00etan.

ANTZUOLA 'Do, re, ni family', umeendako ikuskizuna

Do, re, ni family, umeendako ikuskizuna, 3 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzako. Xabier Lizaso pianojotzaileak eta Aukeran dantza taldeko Olatz Oribe dantzariak

eskainitako ikuskizuna. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia da. Haurrei, kantuak eta koreografiak ikasi ondoren, oholtzara igo eta benetako artistak izatera jolasteko aukera eskainiko zaie arte eszenikoan bidez. 18:30ean, Torresoroan. Sarrera: 5 euro.

Torresoroan, 18:30ean.

EGUAZTENA 3

ARRASATE Txikilandia Gabonetako parkea

Orduetia: 10:30-13:30 eta 16.00-20.00. Lekua: Uarkape pilotalekuan.
Uarkape pilotalekuan, 10:30ean.

ESKORIATZA Saskibaloia

Campusa
Saskibaloia campusa egingo dute Eskoriatzan.
Kiroldegian.

ESKORIATZA Eskulanak

Adina: 3 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Ordua: 11:00-13:00. Lekua: Tortolis ludotekan. Bazkide eta bazkide ez direnei zuzendutako ekintza da.
Tortolis ludotekan, 11:00ean.

ARETXABALETA Gabonetako parkea

Orduetia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Prezioa: eguneko sarrera 6 euro; eta, 2 egunetako sarrera 10 euro. Familia ugariak 3. haurra doan izango dute.
Ibarra kiroldegian, 11:00etan.

OÑATI Gabonetako jolas parkea

Gabonetako jolas parkea (ohe elastiko, puzgarri, tailerra...) Sarrera da 3 euro egun erdia; eta, egun osoa 5 euro. 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.
Zubikoan, 11:00etan.

BERGARA Gabonetako parkea

Gomendatutako adina 7 urtetik aurrera da. Ordua: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrera: eguneko sarrera 4 euro; hiru eguneko bonoa 10 euro;.
Labegaraietan, 11:00etan.

BERGARA 'Biodibertsitatea.

Biziaren Etorkizuna'
erakusketara bisita gidatua ipuin kontalariarekin
Familiientzat (haurrak helduekin) izango da Biodibertsitateari buruzko bisita gidatua eta ipuin kontaketa saioa.
Laboratorium-en, 11:30ean.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Bergarak ere badu bere BTN17

Aste honetan, oraindik, ahoz aho dabil pasa den igandean BECen izandako Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala. Bide batez, zorionak Maialeni eta gainerako finalistei. Eta Gabonak ere bertan ditugula eta, Bergarako Kopla Barik helduen bertso-eskolak antolatzen duen txapelketa etorri zait burura. Urteak daramatza abendu inguruan txapelketa antolatzen. Zenbait urtetan hiru saio ere izan ditugu. Ni akontezimendu honen zain egoten naiz urtero eta zerbait gogorra behar dut kale egiteko, eta ez naiz bakarra; badakit beste batzuk ere horrela egoten direla. Aurtun finalera goaz zuzenean. Ez da BECen izango; Bergarako gaztetxean izango da. Ez dira 8 bertsolari izango eta ez da Maialenen papera beteko duen emakumerik egongo. Baina 7 bertsolari fin izango ditugu, gai-jartzaile bizkorra eta epaimahai zorrotza. Faltan izango ditu zenbait gauza, baina BECen baino umore gehiago egongo da, eta garrantzitsuena: gau ederra pasatzeko aukera emango digute. Hori segurua da. Abenduaren 28an, 22:00etan. Ez da inoiz orduan hasi, baina tira...

Beraz, eskerrik asko Kopla Barik-i, geuk ere geure BTN17 izango dugulako urtean zehar egiten duzuen lanari esker.

BUKATZEKO

Elkarrizketatzailea, elkarrizketatu bihurtu

'Ur Handitan' ETBko telebista saio arrakastatsuko aurkezle Xabier Madariaga elkarrizketatu dute Huheziko Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasleek Goienako platoan. Haurdunaldi subrogatuaz berba egin du kazetariak ikasleekin

Miren Arregi ARRASATE

EITBko kazetari Xabier Madariaga Goienako platoan izan da asteen. *Ur Handitan* telebista saio arrakastatsuko aurkezlea, ez da Goienak proposaturiko elkarrizketa batera etorri, baizik eta Huheziko Ikus-Entzunezko Komunikazioko bigarren mailako ikasleek egindako elkarrizketa eskaerari erantzutera.

Ikasleek informazio generoko telebista saio bat ekoiztu behar izan dute hiruhileko honetan: "Taldeetan banatuta, programa bat ekoiztea izan da ariketa", dio Mondragon Unibertsitateko irakasle Maitane Pueblak. Saioak guztira 15 minutu izan behar ditu eta horietatik 10 izan behar dira, platoan. Helburua da platon saio bat ekoizteko menperatu behar diren alderdi guztiak ezagutzea. Errealizazioa, platoa, argiak, audioa, gidoia, aurkezpena... Eta horretarako, Goienako platoa erabiltzen dute ikasleek. "Kasu honetan, Xabier Madariaga elkarrizketatzea erabaki dute ikasleek, eta, hori horrela, *Ur Handitan* saioko estetikan inspiratu dira". Madariaga bere elkarrizketatuen tesituran ipini dute. Elkarriz-



Xabier Madariaga kazetaria Huheziko ikasleekin, Goienako platoan. MIREN ARREGI

ketatzailea elkarrizketatu bilakatu dute oraingoan.

Ikasleak oso pozik azaldu dira Xabier Madariagak hasieratik azaldu duen prestutasunarekin. "Oso gertu azaldu da hasieratik", dio Madariaga elkarrizketatu

duen Mikel Bazanbidek. "Elkarrizketa egiteko eskaera onartzeaz gainera, prozesuan bertan ere hartu du parte eta hori asko eskertu dugu". Madariagak berak Huhezira egindako bisita baten otu zitzaizen ikasleei hura

elkarrizketatzeko aukera. Izan ere, bere kazetari eta aurkezle lanaz berba egitera etorri zen Madariaga Huhezira. "Informazio generoaren gaineko pautak batzuk eman zizkigun ikasgelan eta bere ibilbide profesionala ere kontatu zigun", azaldu du irakasle Maitane Pueblak.

Haurdunaldi subrogatuaz

Goienako platoan egindako elkarrizketara, baina, ez da Madariaga bere kazetari ibilbideaz berba egitera etorri. Oraingoan, berak oso gertutik bizi duen gai baten gainean berba egitera etorri da bilbotarra: haurdunaldi subrogatuaz berba egitera, alegia. Xabier Madariagak eta haren bikote Urko Pikazak haurdunaldi subrogatuaren bitartez izan zituzten euren seme-alaba bikiak duela 16 hilabete. Gai horren bueltan, 30 minutu inguruko elkarrizketa egin dio platoan Mikel Bazanbide ikasleak, eta gustura sentitu da Madariaga elkarrizketatu paperean. "Oso polita izan da, batez ere, ikusten duzulako ilusio mordoarekin egiten dutela, eta hori gure erredakzioetan askotan galdu egiten dugun zerbait da", zioen elkarrizketaren bukaeran Madariagak.

'Ur Handitan', arrakastatsua

ETB1en aurkezten duen *Ur Handitan* saioa izaten ari den arrakastaz galdetuta, talde guztiaren eta elkarrizketatuen euren inplikazioa goraiatu ditu Madariagak. "Intimitatean sartzen gara, eta ematen digute dena", adierazi du Madariagak. "Emaila ikusten dut etxean eta itzela da, sekulako lana dago atzean", dio kazetariak.

ALIZIA MUSIKALA

HERRIALDE MIRESGARRIAN BADAGO WIFIA!

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAK 24. 17:30 ETA 23:00

ABENDUAK 25. 10:00/16:00/20:00

goiena
Zu hemen zaude.



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea esk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturrioltz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea esk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18, solairuarte esk.
685 70 17 96

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53



Muriasko zuzendari nagusi Paulino Barrenetxea eta Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabal hitzarmena sinatzen. GOIENA

Grupo Murias eta Goiena elkarlanean arituko dira

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Grupo Muriasek eta Goiena Komunikazio Taldeak. Grupo Muriasek kudeatzen duen Arrasateko Laubide plaza azpiko aparkalekuan parkinga dohainik izango du Goienak, hiru orduz, gonbidatu eta kolaboratzaileendako

Murias Taldeak hiru orduko parkinga emango dio, doan, Goiena Komunikazio Taldeko kolaboratzaile orori. Goienak, trukean, bere hedabideetan publizitaterako ahalmena eskainiko dio Muriasi. Murias Taldeak kudeatzen ditu Arrasateko Biteriko eta Laubideko parkingak, eta, hain zuzen ere, bigarren horretan, hiru orduz dohainik

aparkatzeko aukera izango du Goienara elkarrikketa batera edo kolaborazio batera doan pertsonak. Parking biak daude erdigunean, eta, horrenbestez, Goienara doan kolaboratzaileari erosotasun handia emango dio Laubiden dohain aparkatzeko aukerak.

Iazko abenduaren 13an hasi zen Murias aparkaleku biak

kudeatzen; Biteriko parkingak 400 aparkaleku dauzka, hiru solairutan banatuta. Biteriko lehen solairua errotaziorako erabiltzen da, eta bigarren eta hirugarren solairuak ordainpeko abonatuentzat. Laubideko parkinga, aldiz, errotazio hutserako dago prestatuta. Guztira, bi parkingetan, zortzi pertsona ari dira lanean une honetan.

Urteetan itxita

Lehen urte honetan, erabiltzaile kopurua %10 inguru hazi da, bi parkingen erabiltzaile kopurua kontuan hartuta. "Igoera honen gakoa Laubideko parkingean dago, urte askotan itxita egon baita", dio Murias Taldeko zuzendari Paulino Barrenetxeak. "Laubideko parkinga, urte askoan itxita egon ondoren, Biterikoaren mailan jarri nahi genuke eta horretan zentratuta gaude. Horretarako, Arrasateko Udalarekin, Debagoieneko Merkataritza Bulegoarekin eta Ibai-Arterekin elkarlanean gabiltza". Hori horrela, Arrasateko Udalak herriko seinaleak indartuko ditu, erabiltzaileari Laubiderako bidea errazteko. Ibai-Arteko saltokietan 10 eurotik gorako erosketak egiten dituen bezeroak, bestetik, ordubeteko aparkalekua izango du dohainik. Eta, hain zuzen ere, testuinguru berean kokatzen da Goienarekin egindako hitzarmena ere: "Akordio horri esker, Laubideko parkinga ezagutzera emateko asmoa dugu".

Hitzarmen garrantzitsua

Murias Taldeko arduradunak pozik dira Goienarekin sinatu duten hitzarmenarekin. "Goienak harrera bikaina egin digu eta elkarlanean aritzeko oinarri sendoak jarri ditugula esango nuke", adierazi du Barrenetxeak. "Zerbitzu enpresa bat garenez, lekuan lekuko eragileekin harremanak sustatzea da gure helburuetako bat, eta asmo irmo horren adibide gisa har genezake hitzarmena", gehitu du. Izan ere, Murias Taldea marka zabaldu eta indartu nahian ari da. "Desberdin egiten gaituen hori hedatu nahi dugu, gure kode etikoaren baitan: esfortzua, umil-

tasuna eta adimena. Horretarako, txirrindulari taldea eta sare sozialak ezinbestekoak dira, baina baita Goiena Komunikazio Taldearekin lortu dugun hitzarmenaren gisakoak ere".

25 enpresaz osatua

Murias Taldea alor desberdinetan ari diren 25 enpresak osatutako taldea da. Horien artean daude eraikuntza-enpresak, etxebizitzaren promoziora dedikatutako, merkataritza guneak, zaharren egoitzak, Donostiako autobus geltoki berria, zinemak eta Euskadi Basque Country-Murias txirrindularitza taldea, besteak beste. "Esan genezake sortzez eraikitzaileak garela, bokazioz sustatzaileak eta izatez lagunkoiak", dio, Murias Taldearen izaeraz galdetuta, zuzendari nagusi Paulino Barrenetxeak.

Murias Taldearen lan-eremu naturala Euskal Herria da, baina Madrilen ere lan asko egindakoak dira. Azken urteotan, gainera, Zamoran, Getafen, Tolledon eta Melillan proiektu esanguratsuak garatu dituzte. Nazioartera ere ari dira zabaltzen eta horren adibide da Paris inguruan garatzen ari diren proiektu bat. Debagoienari dagokionez, Arrasateko Biteri eta Laubide parkingak kudeatzeaz gainera, Epeleko konpostatze-planta eraiki dute, AP-1en eraikuntzan ere hartu dute parte eta herri gehienetan etxebizitzak eraiki dituzte.

"GOIENAK HARRERA BIKAINA EGIN DIGU ELKARLANEAN ARITZEKO OINARRI SENDOAK JARRIZ"

APARKALEKUA DOAN ORDUBETE

1. Bila itzazu gure bereizgarria duten dendak.
2. Egin itzazu zure erosketak.
3. Eskatu zure parking txartela.
4. Ordubete DOAN izango duzu.

GPS KOORDENATUAK
43.064154, -2.48965,21

Arrasate Parking-ek eta Ibai-Arteko saltokiek ORDUBETE OPARITZEN DIZUTE Laubide aparkalekuan